Bizkaiko 2020ko Energia Iraunkorreko Estrategia koordinatu eta bultzatu da, prestakuntzako, partaidetzako, materialen argitalpeneko jarduketekin, eta egoitza-eraikuntzetan energiaren aurrezpena, energi eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatzeko laguntza-lerro bat kudeatu da.

Se ha coordinado e impulsado la Estrategia de Energía Sostenible para Bizkaia 2020, con actuaciones de formación, participación, edición de materiales, y la gestión de una línea de ayudas para el ahorro, eficiencia energética y energías renovables en edificaciones residenciales.

Bizkaia lurralde historikoko iraunkortasunaren jarraipen eta monitorizatze integraleko sistema gisa, Bizkaiko Iraunkortasun Adierazleen Sistema eguneratu, elikatu eta zabaldu da, lurralde historikoaren iraunkortasuna ebaluatzeko tresna gisa. Besteak beste Bizkaiaren aztarna ekologikoa kalkulatu da.

Como sistema de seguimiento y monitorización integral de la sostenibilidad del Territorio Histórico de Bizkaia, se ha procedido a la actualización, alimentación y difusión del Sistema de Indicadores Sostenibilidad de Bizkaia, como instrumento de evaluación de la sostenibilidad del Territorio Histórico. Entre otros, se ha calculado la Huella Ecológica de Bizkaia.

Iraunkortasunaren ikuspegitik politika berritzaileen prospekzioa egiteari dagokionez, lankidetza-hitzarmen berria sinatu da Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU), “Euskadiko Ekosistemen Zerbitzuen Ebaluazioa” ikerketa-proiektuaren garapenerako. Era berean, BizkaiLab ikerketa-programarekin batera lan egin da. Azkenik, iraunkortasunari eta generoari buruzko ikerketa soziologiko bat bultzatu da.

En cuento a la prospección de políticas innovadoras desde la pespectiva de la sostenibilidad, se ha suscrito un nuevo convenio de colaboración con la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) para el desarrollo del proyecto de investigación la “Evaluación de los Servicios de los Ecosistemas de Euskadi”. Asimismo, se ha colaborado con el programa de investigación BizkaiLab. Finalmente, se ha impulsado una investigación sociológica sobre Sostenibilidad y Género.

3.- Ingurumen eraginaren ebaluazioa

Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila dugu Ingurumen Organoa, eta proiektuen Ingurumen Eragina ebaluatzeaz arduratzen da (2015. urtean 72 txosten eginda, bereziki bide azpiegiturei dagozkienak), era berean, planen ingurumen ebaluazio estrategikoak ere gauzatu dira (2015. urtean 40 txosten eginda, batez ere udaletako hirigintzako planak).

3.- Evaluación de Impacto Ambiental

El Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural es el Órgano Ambiental de la Diputación Foral de Bizkaia, correspondiéndole la evaluación de impacto ambiental de proyectos (72 informes emitidos en el año 2015 fundamentalmente de infraestructuras viarias), así como la evaluación ambiental estratégica de planes (40 informes emitidos durante 2015, fundamentalmente de planes urbanísticos municipales).

4 - Ingurumen alorreko prebentzioa

4.1.-Jarduera sailkatuak

Araudi aplikagarrian xedatu denarekin bat etorriz, hiriko bizitegirako lurzoruan sailkaturiko jarduerei buruzko 75 espediente, txosten eta salaketa izapidetu dira.

2015. urtean, “Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013-2017 aldirako Zaratari buruzko Plan Estrategikoa”ren jarduketak garatu dira.

4 - Prevención Ambiental

4 .1.- Actividades clasificadas

De acuerdo con lo dispuesto en la normativa aplicable,se han tramitado 75 expedientes, informes y denuncias relativos a actividades clasificadas en suelo urbano residencial.

Durante el 2015 se ha desarrollado actuaciones de “Plan Estratégico sobre el ruido para el período 2013-2017 de la Diputación Foral de Bizkaia”.

4.2.Iraunkortasunean oinarritutako fiskalitatea

Sozietateen gaineko Zergaren araudiaren baitan, inbertsio jakin bati buruzko ingurumenaren egokitasunaren gaineko 162 egiaztagiri eman dira.

4.2.Fiscalidad sostenible

Dentro de la normativa reguladora del impuesto de sociedades, se han emitido 162 certificados relativos a la idoneidad ambiental de determinadas inversiones.

5.- Plangintza eta lan hidraulikoak

Urari buruzko 2000/60/EE Esparru Zuzentaraua eta Hiriko Hondakinei buruzko 1991/271/EE Zuzentaraua betetzearen barruan kokatzen da Ingurumen Sailaren uren gaineko politika. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzan dihardu tokiko erakundeekin hornidura eta saneamendu lanetan, arlo horretako udal eskumenen eraginkortasuna bermatzeko xedearekin.

5.- Planificación y obras hidráulicas

La política de aguas del Departamento de Medio Ambiente se enmarca dentro del cumplimiento de la Directiva Marco del Agua 2000/60/CE y la Directiva sobre Saneamiento de las Aguas Residuales Urbanas 1991/271/CE. Para ello, la Diputación Foral de Bizkaia coopera con las entidades locales en la ejecución de las obras de abastecimiento y saneamiento, a fin de garantizar la efectividad de las competencias municipales en esta materia.

Ildo horretan, eta helburu horiek betetze aldera, ezinbestekoa da uraren kudeaketaren etengabeko hobekuntza indartzea, betiere aurrezkia sustatuz, erregulazio handiagoa emanez, instalazioak berrituz eta zerbitzua hobetzeko azpiegiturak egitea eta, azken batean, bizkaitarren bizi-kalitatea hobetzeko xedearekin.

En este sentido, y para la consecución de dichos objetivos, se hace imprescindible incidir en la mejora continua de la gestión del agua, desde el fomento del ahorro, el aumento de la regulación, la renovación de las instalaciones y la construcción de infraestructuras destinadas a la mejora del servicio y, en última instancia, la mejora de la calidad de vida de los ciudadanos de Bizkaia.

Bizkaiko udalerrien saneamendua eta hornidura bermatzeko hainbat obra burutu dira.

Se ha llevado a cabo diversas obras para garantizar el saneamiento y el abastecimiento de los municipios de Bizkaia.

6.- Koordinazio Administratiboa

6.- Coordinación Administrativa

6.1. Diru-laguntzak

6.1. Subvenciones

Eraginkortasun energetikoaren arloan Tokiko Ekintza Planak (Tokiko Agenda 21) ezartzeko diru-laguntzen programari dagokionez, 72 eskaera aurkeztu ziren eta diru-laguntzak eman zitzaizkien Lurralde Historikoko udalen eta mankomunitateen 69 proiekturi.

En relación al Programa de subvenciones para la implantación de Planes de Acción Local (Agenda Local 21) en materia de eficiencia energética, fueron presentadas 72 solicitudes y concedidas subvenciones a 69 proyectos de los Ayuntamientos .

Etxeko hondakin organikoak biltzeko edukiontzia (5. edukiontzia, pertsonalizatua) ezartzeko ematen diren diru-laguntzen programari dagokionez, 20 eskaera aurkeztu ziren, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko 14 udal eta mankomunitateri eman eta ordaindu zitzaizkien diru-laguntzak.

En relación al Programa de subvenciones para la implantación de los contenedores de recogida selectiva de la fracción orgánica del residuo doméstico (5º contenedor personalizado), se presentaron 20 solicitudes, concediéndose y abonándose la subvención a 14 Ayuntamientos y Mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia.

6.2. Desjabetze espedienteak

6.2. Expedientes expropiatorios

Foru Sailaren hornikuntza- eta saneamendu-proiektuen edo bestelako proiektuen exekuziorako lurzorua kudeatzeko desjabetze espedienteei dagokienez, Enkarterriko saneamendu-sare berriak eraikitzeko eta hobetzeko proiektuaren burutzapenaren eraginpeko ondasunak okupatzeko eta eskubideez jabetzeko espedienteak izapidetzen jarraitu da Sopuerta eta Galdames eta Turtziozko udalerrietan, baita Berriatua-Ondarroa intertzeptorearen eraikuntza-proiektuko 2. proiektu xehatua ere.

En lo que respecta a los expedientes expropiatorios para la gestión del suelo de la ejecución de los proyectos de abastecimiento, saneamiento u otros proyectos del Departamento, se ha continuado con la tramitación de los expedientes para la ocupación de los bienes y derechos afectados por la ejecución del proyecto de nueva construcción y mejora de las redes de saneamiento de la Comarca de las Encartaciones en los municipios de Sopuerta y Galdames y en Turtzioz, y del proyecto Desglosado número 2 del proyecto constructivo del interceptor Berriatua-Ondarroa.

6.3. Lankidetza eta finantziazio hitzarmenak

2015 ekitaldian zehar, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoari 40.000.000 euroko zenbatekoa ordaindu egin zaio, hornikuntza eta saneamendu obrak 2008-2018 urteetan finantzatzeko Partzuergo hori eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean sinatutako Lankidetza Hitzarmenari jarraituz.

Bestalde zenbait hitzarmen sinatu eta garatu dira URA Busturialdeko Ur Partzuergoarekin eta Barakaldo, Sestao eta Portugaleteko udalekin, zenbait ingurumen-azpiegitura garatzeko.

Era berean, hondakinen kudeaketaren inguruko lankidetza hitzarmenak sinatu dira udal hauekin: Zaratamo, Trapaga, Orozko, Muskiz, Busturialdeko Mankomunitatea, Forua, Ea, Barakaldo, Arrankudiaga eta Arakaldo. Gainera, Bizkaiko Elikagaien Bankuarekin beste hitzarmen bat sinatu da elikagai galkorren bilketa abiatzeko, Bizkaiko saltoki handien laguntzarekin.

6.3. Convenios de colaboración y financiación

Durante el ejercicio 2015, se ha abonado un importe de 40.000.000,00 de euros al Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia con base en el Convenio de Colaboración suscrito entre dicho Consorcio y la Diputación Foral de Bizkaia para la financiación de obras de abastecimiento y saneamiento (2008-2018).

Por otra parte, se han suscrito y desarrollado varios convenios con URA, el Consorcio de Aguas de Busturialdea,y los Ayuntamientos de Barakaldo, Sestado y Portugalete para el desarrollo de diversas infraestructuras ambientales.

Así mismo, se han suscrito Convenios de colaboración en materia de gestión de residuos con los Ayuntamientos de Zaratamo, Trapagaran, Orozko, Muskiz, Mancomunidad de Busturialdea, Forua, Ea, Barakaldo, Arrankudiaga y Arakaldo y con el Banco de Alimentos de Bizkaia para la puesta en marcha de una recogida de alimentos perecederos en colaboración con las grandes superficies de Bizkaia

6.4. Encomienda Garbiker

2015. urteko ekitaldian, Garbiker foru enpresari eginiko enkarguarekin jarraitu da Foru Sozietateari ordaindutako hiriko hondakinak kudeatzeko zerbitzuak emateko; guztira 6.040.000 euroko zenbatekoa du aipaturiko enkarguak.

Era berean, Bilboko Udalak Artigas hondakindegia laga ondoren, Garbikerren enkarguaren baitan sartu da hondakindegia.

6.4. Encomienda Garbiker

En el ejercicio 2015 se continuó con la encomienda realizad a la empresa Foral Garbiker para la prestación de los servicios de gestión de residuos urbanos abonandose a la Sociedad Foral un importe de 6.040.000 de euros por dicha encomienda.

Asi mismo, tras la cesión del vertedero de Artigas realizada por el Ayuntamiento de Bilbao, dicho vertedero ha sido incluido en la encomienda de Garbiker.

7.- Hidrologia

2015ko ekitaldian Azterketa eta Hidrologia Zerbitzuak Bizkaiko Hidrometeorologia Sarearen instalazioak mantendu eta berritu ditu.

7.- Hidrología

Durante el ejercicio 2015 el Servicio de Estudio e Hidrología ha mantenido y renovado las instalaciones de la Red de Hidrometeorología de Bizkaia.

8.- Hondakinak

Bizkaiko Hiriko Hondakinak Kudeatzeko 2005-2016ko II. Plan Integrala betetzeko eta burutzeko jarduketak. Plan horrek bere gain hartzen du hondakinak kudeatzeko aukeren hierarkiako eskala.

Kudeaketarako hierarkia komunitarioko helburu horiei erreparatuta, honako jarduketa hauek burutu dira 2015ko ekitaldian:

- Herritarren partaidetza eta kontzientziazioa sustatzeko kanpainak egin dira, materia organikoa biltze aldera.
- Artigasko hondakindegiko eskuinaldeko ibarra iragazgaizteko lehenengo faseko aurreproiektua eta proiektua idatzi dira.
- Hiriko Hondakinen Behatoki Iraunkorraren bidez, Bizkaian 2015. urtean sortutako hiriko hondakinak aurkitu, sailkatu eta zenbatu dira.
- Betelanen proiektuak betearazteko kontrolak egin dira, hondakinak hondakindegietan desagerrarazteari eta betelanak egiteari buruzko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua oinarri hartuta.

8.- Residuos

Las acciones desarrolladas por el Departamento han ido encaminadas a la cumplimentación y la ejecución del II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016, que asume la escala jerárquica de opciones de gestión de los residuos.

Atendiendo a estos objetivos de la jerarquía comunitaria de gestión, durante el ejercicio 2015, se han llevado a cabo entre otras las siguientes actuaciones:

- Se ha realizado campañas para el fomento de la participación y concienciación ciudadana para la recogida selectiva de la materia orgánica.
- Se han redactado el anteproyecto y el proyecto de la primera fase de la impermeabilización de la vaguada derecha del vertedero de Artigas.
- Mediante el Observatorio Permanente de residuos urbanos, se han localizado, clasificado y cuantificado los R.U. generados durante el año 2015 en Bizkaia.
- Se han realizado controles en ejecución de proyectos de rellenos en base al Decreto 49/2009, de 24 de febrero por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos.

Saila: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
Departamento: Sostenibilidad y Medio Natural

Millaka euro/Miles de euros

Kapitulua Capítulo	Izendazioa Denominación	2015				2014			
		H.K. C.I.	A.K. C.F.	B. O.	Bet. % % Ejec.	H.K. C.I.	E.K. C.F.	B. O.	Bet. % % Ejec.
1	Langileriaren ordainsariak Remuneraciones de Personal	21.101	20.116	19.433	96,6%	15.796	15.533	15.177	97,7%
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak Gastos de Bienes Corrientes y Servicios	22.901	23.302	22.639	97,2%	6.529	6.722	6.714	99,9%
3	Finantza gastuak Gastos Financieros								
4	Transferentzia arruntak Transferencias Corrientes	16.183	16.183	13.563	83,8%	13.926	15.894	15.075	94,8%
6	Benetako inbertsioak Inversiones Reales	7.870	8.035	5.391	67,1%	2.521	3.366	3.350	99,5%
7	Kapital transferentziak Transferencias de Capital	56.813	56.817	55.556	97,8%	7.624	7.635	7.414	97,1%
8	Finantza-aktiboen aldakuntza Variación Activos Financieros	2.335	2.335	2.335	100,0%				
9	Finantza-pasiboen aldakuntza Variación Pasivos Financieros								
	Guztira / Total	**127.204**	**126.789**	**118.916**	**93,8%**	**46.396**	**49.151**	**47.729**	**97,1%**

Sail Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*

03. Gizarte Ekintza
03. *Acción Social*

2015eko uztailera arte, Gizarte Ekintza Sailak lau zuzendaritza nagusiren bitartez jardun zuen. Hala ere, ahaldun nagusiaren uztailaren 2ko 94/2015 Foru Dekretuak honakoa zehaztu zuen: alde batetik, Berdintasunerako eta Gizarteratzeko zuzendaritza nagusiak Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasun Sail berrira pasatuko zela ñabardura batzuk egin ostean; bestetik, Gizarte Ekintza Sailak Norberaren Autonomia Sustatzeko Zuzendaritza nagusiaren eta Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez jardungo zuela.

Hasta el mes de julio de 2015, el Departamento de Acción Social desplegó su actividad a través de cuatro direcciones generales. Sin embargo, el Decreto Foral del Diputado General 94/2015, de 2 de julio, determinó, por un lado, que las direcciones generales de Igualdad y de Inserción Social pasaran, con matices, al nuevo Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, y que el Departamento de Acción Social desplegara su actividad a través de las direcciones generales de Promoción de la Autonomía Pesonal y de Administración y Promoción Social.

Hori guztia dela bide, memoria hau orain Gizarte Ekintza Saila osatzen duten zuzendaritza nagusien jardunera mugatzen da.

Por todo ello, la presente memoria se limita a la actividad desarrollada por las direcciones generales que actualmente conforman el Departamento de Acción Social.

Administrazioaren eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia.

Dirección General de Administración y y Promoción Social.

Eremu honetan, sail orokorrean administratzeko beharrezko funtzioak garatzen dira, saileko inbertsio plana kudeatzen da, saileko gizarte zerbitzuek behar dituzten azpiegiturak jartzeko, eta babesgabetasun egoeran dauden edo hala egoteko arriskuan dauden haur eta nerabeak babesteko.

Dentro de su ámbito se desarrollan las funciones necesarias para la administración general del departamento, la gestión del plan de inversiones departamental, orientado a la dotación de las infraestructuras necesarias para los servicios sociales del departamento y la protección a la infancia y adolescencia en situación de desprotección o riesgo de estarlo.

Azterlanak egitea, zerbitzuak planifikatzea eta sailaren plan estrategikoaren kudeaketa ere Zuzendaritza Nagusiaren ardura dira, baita Bizkaiko Foru Aldundiarenak ez diren zentroak eta gizarte zerbitzuak ikuskatu, baimendu, ebaluatu eta homologatzeko eginkizunak ere.

La elaboración de estudios, planificación de servicios y la gestión del plan estratégico del departamento también son responsabilidad de la dirección general, así como las funciones de inspección, autorización, evaluación y homologación de los centros y servicios sociales que no sean propios de la Diputación Foral de Bizkaia.

Zuzendaritza nagusiak garatzen dituen jarduera nagusiak hurrengo hauek izan dira:

Las principales actividades desarrolladas dentro de la dirección general han sido las siguientes:

- Saileko langile plantilaren konfigurazioa mantentzea, % 35a bitarteko langileak direlarik.

- Mantenimiento de una configuración de la plantilla departamental en donde en torno a un 35% tiene carácter de interino.

03. Gizarte Ekintza
03. *Acción Social*

- Instalazioak mantentzeko 1.127 esku-hartze egin dira, hala prebentziozkoak nola zuzentzekoak, baita ondasun higigarriak eta informatikakoak ez diren ekipoak mantentzearekin loturiko 147 jarduketa ere.

- 2015. urtean zehar, lanegun guztietan egon dira zabalik saileko hiru erregistro bulegoak eta dokumentazioko 102.533 sarrera eta 110.369 irteera erregistratu dira. Sailak NT aplikazioaren bidez igorri dituen jakinarazpenak guztira 190.143 izan dira.

- Sailaren gastu aurrekontuaren % 94,92 bete da.

- Sailaren hiru ISO 9001 ziurtagiriak mantendu dira zentroak baimentzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko prozesuetan; Nazioarteko Adopzioa eta Mendekotasunaren Balorazioa.

- Urteko lehenengo hiruhilekoan fakturazio elektronikoa ezarri zen eta ARDATZ sisteman sartu zen.

- Informatikaren arloan, ordenagailu nagusiko 20 aplikazio, 8 mikro aplikazio eta interneteko 18 aplikazio kudeatu dira. Azken horien gehikuntza inguru horretako migrazio estrategiagatik izan da, hau da, ARDATZ proiektu estrategikoaren barruan.

- IMSERSO: Mendekotasunak dituzten pertsonen datuak igorri dira IMSERSOra: datu historikoei eta zerbitzu berriei, berbarako CRIak, zereginetako zentroak, unitate sozio-sanitarioak eta etxe etxeko zerbitzuari buruzko datuen igorpena azpimarratu behar da.

- Se han practicado 1.127 intervenciones de mantenimiento de instalaciones, tanto preventivas como correctivas, así como 147 actuaciones relacionadas con el mantenimiento de mobiliario y equipos no informáticos.

- A lo largo del año 2015 se han mantenido abiertas durante todos los días hábiles las tres oficinas de registro del departamento, habiéndose registrado 102.533 entradas y 110.369 salidas de documentación. El número de notificaciones enviadas por el departamento a través de la aplicación NT ha ascendido a 190.143.

- Se ha ejecutado en un 94,92 % el presupuesto de gastos del departamento.

- Se han mantenido las tres certificaciones ISO 9001 del departamento, en los procesos de autorización, inspección y control de cxentros; Adopción Internacional y Valoración de la dependencia.

- En el primer trimestre del año, se implantó la facturación electrónica, integrándose la misma en el sistema ARDATZ.

- En el ámbito informático se han gestionado 20 aplicaciones de ordenador central, 8 aplicaciones en micro y 18 aplicaciones en internet. El incrememnto de estas últimas obedece a la estratregia de migración a dicho entorno, dentro del proyecto estratégico ARDATZ.

- Se han enviado y puesto al día con el IMSERSO la información sobre personas dependientes, destacando el envío de datos históricos y nuevos servicios como los CRIs, centros ocupacionales, las unidades socio-sanitarias y el servicio de ayuda domiciliaria.

03. Gizarte Ekintza
03. *Acción Social*

- Hainbat ekimen garatu dira boluntariotzaren arloan, BOLUNTA programa garatzeko sinatutako hitzarmenaren bitartez eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan modu aktiboan parte hartuz.
- Se han realizado diversas iniciativas en el ámbito del voluntariado, mediante el convenio para el desarrollo del programa BOLUNTA y participando activamente en el Consejo vasco del Voluntariado.

- Hainbat jardunaldi antolatu dira eta horietatik aipagarrienak lirateke “Bizkaia, adin guztietarako lurraldea”, “Belaunaldien arteko programak nola bultzatu”, “Arreta goiztiarrean aurrera egiten” eta “ Etikako I Jardunaldia”.
- Se han organizado diferentes jornadas, destacando “una Bizkaia para todas las edades”, “¿Cómo impulsar programas intergeneracionales?”, “Avanzando en la Atención Temprana” y “I Jornada de Ética”.

- Sailaren eskumenekin erlazionatutako 16 azterlan egin dira.
- Se han elaborado 16 estudios relacionados con competencias del departamento.

- Estand propioaren bidez parte hartu zen Nagusi 2015 Azokan.
- Se participó, a través de un estand propio, en la feria Nagusi 2015.

- Adineko pertsonei orientazio juridikoa emateko zerbitzuak eman ziren eta, aldi berean, beste jarduera batzuk antolatu dira (belaunaldien arteko ibilaldiak, adinekoen lehiaketak, etab.), eta nagusi txartela garatu da.
- Se prestaron servicios de orientación jurídica a las personas mayores, y, además, se organizaron diversas actividades (marchas intergeneracionales, concursos de personas mayores, etc.), el desarrollo de la nagusi txartela.

- Zahartze aktiboari eta belaunaldien arteko zahartzeari buruzko jarduerak egin dira, baita boluntarioen sustapenerako ere.
- Se han realizado actividades de envejecimiento activo e intergeneracional y de promoción del voluntariado.

- Babesik gabe geratzeko arrisku egoeran diren adingabeak babesteko 953 espediente abiarazi dira.
- Se han iniciado 953 expedientes de protección a menores en situación de riesgo de desprotección.

- Adingabe ijitoekin eta haien familiekin jarduteko famili jarduketarako egitarauan, guztira, 108 adingaberi eman zaie arreta.
- Programa de intervención familiar con personas menores de edad y sus familias de etnia gitana han sido atendidos en total 108 menores.

- Familiako Esku-hartzean Espezializatuko Egitaraua: 2015. urtean 482 familiarekin jardun da.
- Programa de Intervención Familiar Especializada. Durante el año 2015 se ha intervenido en 482 familias.

- Nerabeekin jarduteko programa espezializatua. 2015. urtean 50 adingaberi eman zaie laguntza.
- Programa especializado en intervención con adolescentes. Durante el año 2015 han sido atendidos 50 menores.

- 75 famili harrera formalizatu dira, bai eta nazioarteko 18 adopzio formalizatu ere.
- 405 sartze izan dira egoitza harreran.
- Familien Elkargunerako Zerbitzu Espezializatua eman da, eta 2015. urteko abenduaren 31etik 202 kasutan eman da arreta, horietatik 86 neskatila guztira. Hala, kasu berriak 74 izan dira, eta orotara 4.732 jarduketa burutu dira.

Pertsonen Autonomia Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

Zuzendaritza Nagusi honi dagokio mendeko pertsonak laguntzeko zerbitzuak garatzea, ardatz harturik, batetik, elbarrituak, eta adinekoak, bestetik.

2015ean garatu diren jarduera azpimarragarrienak honako hauek dira:

- Mendekotasuna baloratzeko prozesuari buruzko informazioa helarazi zaie 21.681 pertsonari baino gehiagori.
- Mendekotasuna baloratzeko 14.290 espediente ebatzi dira.
- ABPren egindako kopurua 12.655 izan da.
- Kotizazio gabeko 6.723 prestazio inguru kudeatu dira, hala baliaezintasunari nola erretiroari dagozkionak.
- Familia inguruko zaintzetarako prestazioa bideratu da, eta 12.769 pertsona izan dira horien onuradun, ekitaldiaren amaieran.
- Estimulazio goiztiarren zerbitzuaren barruan 1.687 adingabeko izan dira jaramona jaso dutenak.

- Se han formalizado 75 acogimientos familiares, y se han formalizado 18 adopciones internacionales.
- Se han producido 405 ingresos en acogimiento residencial.
- Se ha proporcionado un Servicio de Punto de Encuentro Familiar Especializado, que a 31 de diciembre de 2015 ha atendido un total de 202 casos, siendo niñas 86, del total han sido casos nuevos 74 y el número de actuaciones realizadas ha ascendido a 4.732.

Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal

A esta Dirección General le corresponde desarrollar los servicios de apoyo a las personas dependientes, centrando su atención en las personas discapacitadas, por un lado, y en las personas mayores, por otro.

Las actividades más reseñables desarrolladas en el año 2015 han sido las siguientes:

- Se ha informado sobre el proceso de valoración de la dependencia a más de 21.681 personas.
- Se han resuelto 14.290 expedientes de valoración de la dependencia.
- Se han realizado 12.655 PIAs.
- Se han gestionado en torno a 6.723 Prestaciones No Contributivas, en sus distintas vertientes de invalidez y de jubilación.
- Se ha articulado la prestación vinculada a los cuidados en el entorno familiar, siendo 12.769 personas las beneficiarias a finales del ejercicio.
- Se han atendido a 1.687 menores dentro del servicio de estimulación temprana

- 1.381 pertsonari eskaini zaie arreta GIZATEK programaren baitan, laguntzarako produktuena.
- 68 pertsonak jaso dute laguntzaile pertsonalagatiko prestazioa.
- 1.362 pertsona izan dira egoitza zerbitzuaren onuradun.
- Egoitzazko 4.706 plaza baino gehiago eta eguneko zentroetan 943 plaza mantendu dira ezintasunak dituzten pertsonei arreta eskaintzearen ondoreetarako; gainera, beste 359 plaza mantendu dira pertsonen autonomia sustatzeko zentroetan.
- 1.045 pertsonei eman zaie arreta eguneko zentroetan.
- 5.931 adineko pertsonei eman zaie arreta egoitzetan.
- 309 pertsona hartu dira gizarte-osasuneko egoitza unitateetan.

- 1.381 personas han sido atendidas dentro del programa GIZATEK, productos de apoyo.
- 68 personas han sido perceptoras de la prestación por asistente personal.
- 1.362 personas han sido beneficiarias de la prestación vinculada al servicio residencial.
- Se han mantenido más de 4.706 plazas residenciales y más de 943 plazas en centros de día, para la atención a personas discapacitadas, complementándose con 359 plazas en centros para la promoción de la autonomía personal.
- Se han atendido a 1.045 personas mayores en centros de día
- Se han atendido a 5.931 personas mayores en residencias.
- 309 personas han sido atendidas en unidades residenciales socio sanitarias.

Saila: Gizarte Ekintza
Departamento: Acción Social

Millaka euro/Miles de euros

Kapitulua Capítulo	Izendazioa Denominación	2.015				2.014			
		H.K. C.I.	A.K. C.F.	B. O.	Bet. % % Ejec.	H.K. C.I.	E.K. C.F.	B. O.	Bet. % % Ejec.
1	Langileriaren ordainsariak Remuneraciones de Personal	17.856	17.504	17.220	98,4%	21.986	22.666	21.975	97,0%
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak Gastos de Bienes Corrientes y Servicios	238.356	236.058	224.942	95,3%	247.220	243.295	238.640	98,1%
3	Finantza gastuak Gastos Financieros								
4	Transferentzia arruntak Transferencias Corrientes	214.831	214.766	203.693	94,8%	211.294	212.717	208.585	98,1%
6	Benetako inbertsioak Inversiones Reales	4.188	5.644	5.515	97,7%	4.290	6.360	5.812	91,4%
7	Kapital transferentziak Transferencias de Capital	4.023	4.436	4.264	96,1%	3.360	3.392	3.235	95,4%
8	Finantza-aktiboen aldakuntza Variación Activos Financieros								
9	Finantza-pasiboen aldakuntza Variación Pasivos Financieros								
	Guztira / Total	**479.254**	**478.408**	**455.634**	**95,2%**	**488.151**	**488.430**	**478.247**	**97,9%**

Sail Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*

04. Euskara eta Kultura
04. Euskera y *Cultura*

Euskara eta Kulturako Foru Sailak 2015eko ekitaldian zehar egindako jarduerak sei arlotara bildu dira:

1. Kirol arloa.
2. Kultur Ondarearen arloa.
3. Kultur Ekintzako arloa.
4. Euskara arloa.
5. Argitalpen eta Kultura Jarduerak arloa.
6. Zerbitzu zentralen arloa.

Horrela, hauexek nabarmen ditzakegu:

1. Kirol arloa.

Arlo honen barruan, jarduketa egitarau hiru nabarmen ditzakegu:

1.1. Jolas Kirola.

Programan bertan jasota dagoenez, helburu orokorra da kirola egiteko ohitura sortzeko baliabideak ematea bizkaitarrei, eta bereziki aipatzen da Bizkaiko Eskola Kirolaren 2014/2015eko denboraldiaren antolaketa.

Bizkaiko kirola sustatzeko eta Foru Erakundearen kirol-politika hiritarrari hurbiltzeko aldizkariaren 3 zenbaki argitaratu dira. Aldizkari horren izena “Gure Sport-Bizkaiko Kirol Aldizkaria” da.

Gainera, eskola kirolaren arloko monitore ikastaroaren alde egiten jarraitzen da eta pertsonal teknikoak aurkeztutako prestakuntza gaitasuna diruz laguntzen jarraitzen da, baita beste jarduera batzuk ere, hala nola 3K programa eta gurasoentzako online prestakuntzako programa.

Las actividades desarrolladas por el Departamento Foral de Euskera y Cultura durante el ejercicio 2015, se han centrado en seis áreas:

1. Área de Deportes.
2. Área de Patrimonio cultural.
3. Área de Acción cultural.
4. Área de Euskera.
5. Área de Publicaciones y Actividades Culturales.
6. Área de servicios centrales.

Podemos así destacar:

1. Área de Deportes.

Dentro de este área podemos destacar tres programas de actuación:

1.1. Deporte Recreativo.

Dentro del programa se contempla el objetivo general de facilitar a la población de Bizkaia los recursos para generar hábito deportivo, con especial mención a la organización del programa de Deporte Escolar de Bizkaia correspondiente a la temporada 2014/15.

Se han editado 3 números de la revista de promoción del deporte de Bizkaia y de acercamiento al ciudadano de la política deportiva de la Institución Foral denominada “Gure Sport-Bizkaiko Kirol Aldizkaria”.

Además, se sigue apostando por el curso de monitorado de deporte escolar, y por subvencionar la capacitación formativa presentada por el personal técnico, así como otras actividades tales como el programa 3K y el programa de formación online para madres y padres.

1.2. Kirol federatua.

Egitarau honen barruan, federazioko jarduerak dinamizatzeko jarduerak arautzen dira, kirolarien kopurua handitzeko xedez.

Bizkaiko Foru Aldundiak bereziki interesgarritzat jotako kirol-jardueren atalaren barruan, guztira, 49 kirol gertakariri eman zaie diru-laguntza. Era berean, Bizkaiko Kirol Federazioei kontraprestazio ekonomikoak eman zaizkie beren funtzio publiko delegatuak bete ditzaten; eta Bizkaiko Kirol Federazioen Elkartearekiko (BKFErekin) lankidetzari eutsi zaio, elkarte horri atxikita dauden federazio guztientzako zerbitzu orokorrak kudeatu ahal izateko.

Bertako Kirola Bizkaiko udalerrietan sustatu da, euskal pilotari dagokion “Pilota-Gazte" egitaraua, euskal joko eta kirolei dagokien “Sustraiak Sustatzen” egitaraua, arraunketa zabaltzeko eta kirol hori teknifikatzeko egitaraua eta beste egitarau batzuk baliatuz. Eta diru-laguntzak eman dira harri-arrastatze probak antolatzeko.

Eliteko kirolaren sustapenari dagokionez, Bizkaia-Bizkaialde Fundazioa guztira 40 babesle izatera heldu da, eta guztira babestutako 28 talde izan ditu.

Amaitzeko, adierazi beharra dago kirolaren Medikuntzako Unitate Mugikorrak etorkizun handiko kirolariei eta partaidetzako edo lehiaketako kirola egiten duten pertsonei azterketa medikoak egin dizkiela. Azkenik, etorkizun handiko kirolariei laguntzeko programa nabarmendu behar da.

1.2. Deporte Federado.

Dentro del programa se regulan las actuaciones dirigidas a la dinamización de la actividad federativa al objeto de incrementar el número de practicantes.

Dentro del apartado de las actividades deportivas consideradas de especial interés por la Diputación Foral de Bizkaia, se han subvencionado un total de 49 eventos deportivos. Se ha procedido también a la concesión de contraprestaciones económicas a Federaciones Deportivas de Bizkaia para el ejercicio de sus funciones públicas delegadas, así como a mantener la colaboración con la Asociación de Federaciones Deportivas de Bizkaia (AS.FE.DE.BI.) para gestionar la prestación de servicios comunes a las Federaciones deportivas adscritas a la misma.

Promoción del Deporte Autóctono a través de los Municipios de Bizkaia, con programas específicos como “Pilota-Gazte” de pelota vasca, “Sustraiak Sustatzen” de juegos y deportes vascos y el programa de difusión del remo y de tecnificación del mismo, y concesión de subvenciones para la organización de pruebas de Arrastre de Piedra.

De cara a la promoción del deporte de Elite, la Fundación Bizkaia-Bizkaialde cuenta con un total de 40 patrocinadores, habiendo sido 28 los equipos patrocinados.

Señalar finalmente los reconocimientos médicos realizados a través de la Unidad Móvil de Medicina del deporte tanto a deportistas promesas como a personas que realizan deporte bien sea vía participación, bien de competición. Finalmente, resaltar el programa de apoyo a deportistas promesas.

1.3. Udal kirola.

Programaren xedea Bizkaiko jarduera fisikoaren tasak handitzea da, betiere herritarrek oinarrizko kirola egin ahal izateko baldintzak eta tokiak dituztela bermatuz.

Esparru honetan lehenengo eta behin "Kirolbide" egitarauari eman zaion bultzada azpimarratu behar da. Egitarau hau udaletako kirol eragileen hobekuntza, prestakuntza eta eguneratzean laguntzea da. Aldi berean agintarientzako foro batzuk antolatu dira, eta baita ikastaro/jardunaldi teknikoak ere.

Bizkaian 5.000 biztanletik behera dituzten udalerrietako kirol azpiegituren inbertsioen finantzazioa sustatu da, 30 udalerritako beste horrenbeste proiekturi diru-laguntzak bideratuz.

1.3. Deporte Municipal.

Su objeto es elevar las tasas de actividad física en Bizkaia, garantizando las condiciones y espacios que permitan el acceso de la población a las actividades deportivas básicas.

En este ámbito, destacar el impulso al programa "Kirolbide" dirigido a contribuir a la mejora, perfeccionamiento y actualización de los agentes deportivos municipales organizándose, además, diversos foros de dirigentes y cursos/jornadas técnicas.

Se ha fomentado la financiación de inversiones en infraestructuras deportivas en Municipios de Bizkaia de menos de 5.000 habitantes, subvencionándose 30 proyectos en otros tantos Municipios.

2. Kultura Ondarearen arloa.

Honako hiru ardatz hauen inguruan egin da lan:

- 2.1.- Ikerkuntza.
- 2.2.- Zaharberrikuntza-Kontserbazioa
- 2.3.- Hedapena
- 2.4.- Foru Agiritegi Historikoa
- 2.5.- Foru Liburutegia

2. Area de Patrimonio cultural.

Los ejes sobre los que se ha trabajado ha sido los siguientes:

- 2.1.- Investigación
- 2.2.- Restauración-Conservación
- 2.3.- Difusión
- 2.4.- Archivo Histórico Foral.
- 2.5.- Biblioteca Foral.

2.1.- Ikerkuntza.

Ildo horretan, 2015eko ekitaldian, Bizkaian lan egiten duten ikerlariek bultzatu eta kudeaturiko proiektuei emandako laguntzaz gain, intereseko hainbat ekintza landu ditu Foru Erakundeak Bizkaiarentzat.

2.1.- Investigación.

En este sentido, durante el ejercicio 2015, además del apoyo dado a los proyectos impulsados y gestionados por personas investigadoras que operan en el Territorio, desde la Entidad Foral también se han abordado actividades de interés para Bizkaia.

Horien artetik, honako kanpaina hauek nabarmendu behar dira: Tribisburu (Bermeo), Santimamiñe eta Arrola, besteak beste.

2.2.- Zaharberrikuntza-Kontserbazioa.

Atal honetan, gehienbat hauexek izan dira jardueraren ardatzak:

2.2.1.- Bizkaiko kultura ondareko elementuetan jarduteko aurretiazko baimenak; foru aldundiei dagokie soilik eskumen hori. Guztira, 262 espediente izan dira 2015eko ekitaldian.

2.2.2.- Birgaikuntza proiektuetarako diru-laguntza. Kapitulu honetan, Bilboko Apezpikutzarekin izenpeturiko akordioa dela medio, higiezinen kultura ondare erlijiosoko 12 proiektutarako diru-laguntza eman da.

Halaber, Kultura Ondare Zibila birgaitzearen arloan, 22 proiektutarako laguntza eman da; guztira 61 pertsona izan dira onuradunak.

2.2.3.- Kultura Ondarearen Zerbitzuaren aholkularitza eta jarduketak.

Foru Erakundeak eskaintzen duen aholkularitzari dagokionez, bisita ugari egin dituzte Kultura Ondarearen Zerbitzuko teknikariek esku hartzeko irizpideak ezartze aldera; hartara, proiektu horietan guztietan eman zaizkie aholkuak sustatzaile guztiei banaka.

Kultura Ondare Higiezinaren eremuko zuzeneko jarduketen atalean, nabarmentzekoa da Muxikako Oka Jauregian izandako esku-hartzea.

De entre ellos, cabe destacar las campañas de Tribisburu (Bermeo), Santimamiñe y Arrola, entre otras.

2.2.- Restauración-Conservación.

En este apartado, la actividad se ha centrado fundamentalmente en:

2.2.1.- Autorizaciones previas para la intervención en elementos que conforman el patrimonio Cultural de Bizkaia, competencia que corresponde exclusivamente a las Diputaciones Forales. En total se han registrado durante el ejercicio 2015 un total de 262 expedientes.

2.2.2.- Apoyo económico a proyectos de rehabilitación. En este capítulo, mediante el Acuerdo firmado con el Obispado de Bilbao, se han subvencionado un total de 12 proyectos correspondientes al Patrimonio Cultural Inmueble de carácter religioso.

Asimismo, en el ámbito de la rehabilitación del Patrimonio Cultural Civil, se han apoyado un total de 22 proyectos, habiéndose beneficiado de las ayudas económicas un total de 61 personas.

2.2.3.- Asesoramiento y actuaciones del Servicio de Patrimonio Cultural.

En cuanto a la labor de asesoramiento que se oferta desde la Entidad Foral, se han realizado numerosas visitas por personal técnico del Servicio de Patrimonio Cultural, a fin de establecer criterios de intervención, habiéndose asesorado a los promotores individualmente en todos y cada uno de los proyectos.

En el apartado de actuaciones directas en el ámbito Patrimonio Cultural Inmueble, cabe destacar la actuación en el Palacio de Oka de Muxika.

Kultura ondare higigarriari dagokionez, Zaharberrikuntza eta Kontserbazio Arloak 5 pintura eta 5 eskulturatan jardun du eta 4 erretaulatan esku hartzeko finantzazioa eman du. Era berean, atal honetan aipatzekoa da obren gaineko aholkularitza eta kontserbazio lanak, bai BizkaiKOAko proiektuetarako, bai Bizkaiko museoentzat.

Respecto al Patrimonio Cultural de carácter mueble, desde el Área de Restauración y Conservación se ha intervenido directamente sobre 5 piezas de pintura y 5 de esculturas, así como financiado la intervención sobre 4 retablos. Igualmente, en este apartado cabe destacar la labor de asesoramiento y conservación de obras, tanto a los proyectos que conforman BizkaiKOA como a los Museos de Bizkaia.

2.3. Zabalkundea

Ondare Kulturaren zabalkundearen kapituluan, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Sarea osatzen duten museoei eginiko diru-ekarpenez gain, BizkaiKOA Foru Enpresa Erakunde Publikoak egiten duen jarduera nabarmendu behar da.

BizkaiKOA proiektutik, hauexek nabarmenduko genituzke:

a) Museoen jarduera eta eskaintza koordinatzea,

b) Baliabideen kudeaketa egokia eskala ekonomiak erabiliz.

Zabalkundearen arloa bukatzeko, jarraitu egin da KOBIE aldizkaria argitaratzen; izan ere, Bizkaian egiten diren ikerketa-lanak ezagutarazteko plataforma da gaur egun, sektorean eginiko inbertsioaren emaitza.

2.3. Difusión.

En el capítulo de divulgación del Patrimonio Cultural, además de las aportaciones económicas que la Diputación Foral de Bizkaia realiza a los diferentes Museos que conforman la Red en Bizkaia, cabe destacar la actividad desarrollada por la Entidad Pública Empresarial Foral BizkaiKOA.

Del proyecto BizkaiKOA, resaltaríamos dos aspectos:

a) La coordinación en la actividad y oferta museística,

b) La gestión adecuada de los recursos aplicando economías de escala.

Para finalizar con el ámbito divulgativo, se ha continuado con la edición de la revista KOBIE, siendo actualmente la plataforma de difusión de los trabajos de investigación que se desempeña en Bizkaia, fruto de la inversión realizada en el sector.

2.4. Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa.

Katalogazio lanekin jarraitu da Agiritegi Historikoko funtsetan, zertarako-eta katalogaturiko funtsen maila egokiari eutsi ahal izateko, ikerlarien eskura jartzeko moduan betiere.

2.4 Archivo Histórico Foral de Bizkaia.

Se ha continuado con las labores de catalogación en los diferentes fondos que conforman el Archivo Histórico, a fin de mantener unos niveles adecuados de fondos catalogados susceptibles de ser puestos a disposición de las personas investigadoras.

Zentzu honetan, internet bidez kontsultatu daitezke katalogatutako funtsak. Gainera, Foru Agiritegi Historikoko agiriak digitalizatzeko prozesuarekin jarraitu da.

En este sentido, destaca la posibilidad de consultar a través de internet los fondos catalogados. Además, se ha continuado el proceso de digitalización de la documentación del Archivo Histórico Foral.

2.5.- Foru Liburutegia.

Bizkaiko Foru Liburutegiaren ohiko jarduerari dagokionez, berriz, funtsa aberasten jarraitu da, baita bertako funts bibliografikoak enkoadernatzeko, katalogatzeko eta digitalizatzeko lanekin ere.

Foru Liburutegia mundu digitalera egokitzeko xedearekin, “milenium” aplikazio informatikoa garatu da, funtsak errazago eskuratzeko. Hala, egoki kontserbatzen direla bermatuko da.

2.5.- Biblioteca Foral.

Por lo que se refiere a la actividad ordinaria de la Biblioteca Foral de Bizkaia, se ha continuado con el enriquecimiento del fondo, así como con las labores de encuadernación, catalogación y digitalizaciones de los fondos bibliográficos de la misma.

Con objeto de acomodar la Biblioteca Foral al mundo digital, se ha desarrollado la aplicación informática “milenium”, dirigida a una mayor accesibilidad a los fondos que asegure su adecuada conservación.

3. Kultur ekintzako arloa.

Jardueraren oinarrizko ardatzak hauek izan dira

Bizkaiko Udalen eta Mankomunitateen kultur zerbitzuak bultzatzea, hainbat motatako laguntza handia emanez: ekonomikoa (bereziki azpimarratu behar dira Erakunderik baztertuenak, lurralde orekaren ikuspuntutik), aholkularitza-laguntza, laguntza teknikoa eta koordinazio-laguntza. Azken hori “Kulturgintzan”·foroaren bidez.

Kultura arloko erakundeei babesa, batez ere Bilboko Orkestra Sinfonikoa (BOE) eta Operaren Lagunen Bilboko Elkartea (OLBE) eta ikuskizunak sustatu dira, eta arreta berezia eskaini zaie Bizkaian antzerkiak sustatzen eta antolatzen aritzen diren enpresei.

3. Area de Acción Cultural.

Los ejes básicos de la actividad de esta área han sido:

Potenciación de los servicios culturales de los Ayuntamientos y Mancomunidades de Bizkaia mediante una importante labor de apoyo económico (haciendo especial incidencia en las Entidades más desfavorecidas desde un punto de vista de equilibrio territorial), de asesoramiento técnico y de coordinación, esto último mediante el foro “Kulturgintzan”.

Apoyo a entidades culturales, destacando la Orquesta Sinfónica de Bilbao (BOS), y a la Asociación Bilbaína de Amigos de la Opera (ABAO) así como a la promoción de espectáculos escénicos, con especial atención a las empresas encargadas de la promoción y organización de espectáculos teatrales en Bizkaia.

Arte-sorkuntza sustatu eta berari laguntza ematea. Horretarako, bekak eman dira modalitate guztien artean; beste alde batetik, Bizkaiko sortzaile plastikoak sustatzeko jarduerak bultzatu dira, “Ertibil” agerketa ibiltariaren bidez, eta laguntza eman zaie Bizkaiko udalerrietan egindako erakusketei.

Bizkaiko Dantza-Etxea proiektua nabarmendu behar da, prestakuntza eta koordinazio jardueretarako.

Honako hauek aipatzekoak dira: “Pedro Mª Unanue” Bilboko Kantuaren Nazioarteko Lehiaketaren XV. edizioaren irabazleen gala lirikoa, Foru Aldundiaren bekadunen dantza gala eta Ziortzako Kontzertuak.

Azpimarratu behar da, azkenik, Sailaren mende diharduen “Euskalduna Jauregia-Palacio Euskalduna, SA” foru enpresa publikoari eman zaion babesa eta laguntza.

Promoción y apoyo a la creación artística. Para ello se han concedido becas en diferentes modalidades así como se han impulsado actividades de promoción de los creadores plásticos de Bizkaia mediante la Muestra Itinerante “Ertibil” y apoyado a exposiciones coordinadas en los Municipios de Bizkaia.

Destacar el proyecto Bizkaiko Dantza-Etxea destinado a actividades de formación y coordinación.

Mencionar tanto la organización de la Gala Lírica de ganadores de la XV edición del Concurso Internacional de Canto de Bilbao – Bizkaia “Pedro Mª Unanue”, la gala de Danza de becarias y becarios de la propia Institución Foral, así como la de Ziortzako Kontzertuak.

Destacar finalmente, el fomento y apoyo dado a la empresa pública foral dependiente del Departamento “Euskalduna Jauregia-Palacio Euskalduna, SA”.

4. Euskara arloa.

Arlo honetan jarraitu zaien funtsezko jarduketa-lerroak honako hirurak izan dira:

4.1. Lurralde Historikoan euskara erabiltzea sustatzea, honako eremuotan jardunez:

Enpresa-munduan jardun da. Beren lan-zentroetan euskara erabiltzeko planak burutzen dabiltzan enpresei laguntzak eman zaizkie. Gainera, Bizkaian euskaraz argitaratzen diren aldizkako argitalpenak eta euskara eta teknologia berriak uztartzen dituzten programak sustatu dira.

4. Area de Euskera.

En esta área se han seguido tres líneas fundamentales de actuación:

4.1. Promoción del uso del euskera en el Territorio Histórico, a través de actuaciones en los siguientes ámbitos:

En el mundo empresarial, se han concedido ayudas a las empresas que están llevando planes de uso del euskera en sus centros de trabajo. Además, se ha fomentado también las publicaciones periódicas que se editan en euskera en Bizkaia y los programas que conjugan el euskera y las nuevas tecnologías.

04. Euskara eta Kultura
04. Euskera y *Cultura*

Beste funtsezko alderdi bat Bizkaiko Lurralde Historikoko euskara-azpiegiturak sendotzea izan da. Horretarako, arlo honetan lan egiten duten elkartzezko sareak bultzatu dira; ildo horretatik, Euskaltzaindiarekin indarrean dagoen hitzarmena nabarmendu nahi dugu, baita Labairuko Estanislao Erakundeari, Irratibide, SAri, Udako Euskal Unibertsitateari eta UPV/EHU eta Deustuko Unibertsitateari emandako laguntzak ere.

Otro aspecto fundamental ha sido el fortalecimiento de las infraestructuras del euskera del Territorio Histórico de Bizkaia, para lo cual se han potenciado los tejidos asociativos que trabajan en este campo; en este aspecto deseamos remarcar el convenio vigente con Euskaltzaindia, así como el apoyo al Instituto Estanislao J. de Labayru, Irratibide, SA, la Universidad Vasca de Verano, y las ayudas concedidas a la UPV/EHU y Universidad de Deusto.

Nabarmendu behar denez, Bizkaiko Lurralde Historikoko euskararen alde ahalegin handiak egin dira, bai eremu horretan lan egiten duten Erakundeen aldeko hainbat jarduketaren bai "Gure artean, Euskaraz" sentsibilizazio-kanpainaren eta gazteei zuzenduriko “Gozatu euskaraz” kanpainaren bitartez. Era berean, Euskararen Egunaren ospakizuna eta Lauaxeta sariak ematea aipatu behar dira.

Mención aparte merecen los esfuerzos realizados a favor del euskera propio del Territorio Histórico de Bizkaia tanto a través de distintas actuaciones en favor de Entidades que trabajan en este ámbito, como a través de la campaña de sensibilización “Gure artean, Euskaraz" y la campaña dirigida a la juventud “Gozatu euskaraz”. Igualmente, mencionar la celebración del “Euskararen Eguna” y la concesión de los Premios Lauaxeta.

Era berean, aipatu behar da, udal erakundeekin lan handia garatu dela haiei laguntzeko, euskara sustatzeko beren aurrekontu-beharrizanetarako diru-laguntzak emateko, alegia. Era berean, azpimarratu beharra dago "Alkarbide" Udalen eta Mankomunitateen euskara zerbitzuen topagunea den bilguneari eman zaion bultzada.

También hay que destacar la tarea desarrollada con las entidades municipales, de cara a la ayuda a aquellas, para subvenir a sus necesidades presupuestarias en el fomento del euskera. Mencionar también, el impulso del foro “Alkarbide” como espacio de encuentro de los servicios de euskara de los Ayuntamientos y mancomunidades.

Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Euskaltzaindiarekin batera Azkue Fundazioari emandako laguntza aipatu behar da, euskara puntako teknologien bidez sustatzeko.

Finalmente mencionar el apoyo dado junto a Euskaltzaindia y la Universidad del País Vasco, a Azkue Fundazioa para el fomento del Euskera utilizando tecnologías punta.

4.2. Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan euskararen erabilera normalizatzea. Beroni dagokionez, honakoa nabarmen dezakegu:

4.2. Normalización del uso del euskera dentro de la Diputación Foral de Bizkaia. Cabe mencionar a este respecto:

Foru Aldundiko lanpostuei esleituriko eskakizunak lortzeko ikastaro berriak antolatu direla. Halaber, langileek euren lanpostuetarako hizkuntza-gaitasuna areagotzeko lanetan jarraitu dugu, 23 lan-talde antolatuz, Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Sustatzeko Planaren barruan.

La organización de nuevos cursos dirigidos a la consecución de los perfiles asignados a los diferentes puestos de trabajo de la Diputación Foral. Asimismo, se continúa con la labor de capacitación lingüística de las personas emleadas en sus puestos de trabajo, organizándose 23 grupos de trabajo dentro del Plan de actuación de Fomento del Uso del Euskara en la Diputación Foral de Bizkaia

4.3. Itzulpena, Terminologia eta Hizkuntz Teknologia:

Funtsezko helburua Foru Aldundian sortzen diren testu guztiak gaztelaniara, euskarara, ingelesera eta frantsesera eta alderantziz itzultzea da. Halaber, euskarari dagokionez administrazioko lengoaia eta terminologia juridiko-administratiboa bateratu, normalizatu eta garatzea; bai eta toponimia eguneratzea ere.

Itzulpenak kudeatzen dituen sistema kudeatzailean (“trados”) hobekuntzak egin dira; eta terminologian Foru Aldundiko administrazio terminoen bilduma eguneratzen jarraitu da. Gainera, “CEGE” itzulpenak kudeatzeko aplikazio berria instalatu da.

4.3. Traducción, Terminología y Tecnología Lingüística:

El objetivo esencial es la labor de traducción entre castellano, euskara, inglés y francés de los textos que se generan en la Diputación Foral, así como la unificación, normalización y desarrollo del lenguaje administrativo y de la terminología jurídico-administrativa del euskara, y en la actualización toponímica.

Se han realizado diversas mejoras en el sistema gestor de traducciones (“trados”) y, en el campo de la terminología, se ha continuado actualizando la recopilación de términos administrativos de la Diputación Foral. Además se ha instalado una nueva aplicación para la gestión de las traducciones “CEGE”.

5. Argitalpen eta Kultura Jarduerak arloa.

Indartu egin da zabalkunderako programa: aldi baterako erakusketak, literatur topaketak, hitzaldiak eta askotariko lantegiak, ikastaroak eta irakurketa taldeak, eta “Bizkaldatz” literatur lehiaketa nabarmentzen da, bai eta BizkaIdatz Txikia”ren lehenengo edizioa ere berrikuntza gisa. Gainera, Argitalpenen Katalogoa eguneratu da, eta kultur intereseko hainbat lan argitaratu dira.

5. Area de Publicaciones y Actividades Culturales.

Se ha potenciado el programa de divulgación, que comprende exposiciones temporales, encuentros literarios, conferencias y diversos talleres, cursos y grupos de lectura, destacando el certamen literario “BizkaIdatz” y, como novedad, la primera edición de “BizkaIdatz Txikia”. Además, se ha actualizado el Catálogo de Publicaciones, así como editado distintas obras de interés cultural.

6. Zerbitzu Zentralen arloa

Jarduera horiek guztiak Zerbitzu Orokorren eta Aholkuak emateko eta Arauak garatzeko Kabinetearen gainbegiratze eta aholkularitzaren menpean egiten dira; izan ere, Zerbitzu Orokorrak koordinazio eta laguntza emateko organoak dira, hala zuzendaritzako organoei dagokienez, nola sailaren kudeaketaren organoei.

Gainera, Saileko Zerbitzu Orokorretatik “Bizkaiko Kultur Txartela” egitaraua kudeatu da, kulturako produktuen kontsumoa sustatzeko.

6. Area de servicios centrales.

Todas esas actividades se realizan bajo la supervisión y asesoramiento de los Servicios Generales y del Gabinete de Asesoramiento y Desarrollo Normativo, configurándose éstos como instrumento de coordinación y apoyo tanto respecto de los órganos directivos, como de los de gestión del Departamento.

Además destacar la gestión desde los Servicios Generales del departamento del programa “Bizkaiko Kultur Txartela”, para estimular el consumo de productos culturales.

Saila: Euskara eta Kultura
Departamento: Euskera y Cultura

Millaka euro/Miles de euros

Kapitulua Capítulo	Izendazioa Denominación	2.015				2.014			
		H.K. C.I.	A.K. C.F.	B. O.	Bet. % % Ejec.	H.K. C.I.	E.K. C.F.	B. O.	Bet. % % Ejec.
1	Langileriaren ordainsariak Remuneraciones de Personal	10.840	10.394	9.995	96,2%	12.248	12.450	12.111	97,3%
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak Gastos de Bienes Corrientes y Servicios	8.218	8.098	8.019	99,0%	10.051	9.861	9.721	98,6%
3	Finantza gastuak Gastos Financieros								
4	Transferentzia arruntak Transferencias Corrientes	33.161	34.168	33.948	99,4%	34.812	35.394	35.185	99,4%
6	Benetako inbertsioak Inversiones Reales	2.697	2.849	2.835	99,5%	2.713	2.829	2.790	98,6%
7	Kapital transferentziak Transferencias de Capital	2.286	2.306	2.131	92,4%	1.622	2.213	1.903	86,0%
8	Finantza-aktiboen aldakuntza Variación Activos Financieros					2			
9	Finantza-pasiboen aldakuntza Variación Pasivos Financieros								
	Guztira / Total	**57.202**	**57.814**	**56.928**	**98,5%**	**61.448**	**62.746**	**61.710**	**98,3%**

Sail Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*

05. Ogasuna eta Finantzak
05. *Hacienda y Finanzas*

1.- Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak honako egitarau hauen ardura du.

610.302 egitarauaren, “Ikuskapena eta KLTZ” izena duenaren helburuen artean zerga betebeharrak dituztenen zerga egoera frogatzea dago, hain zuzen ere Foru Ogasunarekin dituzten betebehar eta beharkizun horiek zehatz betetzen dituztela egiaztatzeko eta, hala denean, bidezko erregularizazioari ekiteko.

Arestian aipatu den funtzio hori zailagoa bihurtu da denborak aurrera egin ahala tartean inguruabar jakin batzuk izan direlako, esaterako maula egiteko bitartekoak egun zorrotzagoak direlako, ekonomia globalizatu delako, zergak nazioarteko kontu bihurtu direlako eta finantza-figura berriak agertu direlako. Kontua da baldintza horiekin maulak egiten dituzten talde egituratuak azaldu direla. Mota horretako jarduketak antzemateko eta horiek egitea eragozteko derrigorrezkoa da kudeaketa eta ikuskapena egiten duten organoen arteko lankidetza estua, eragiketa horiek jatorritik bertatik aurrearretaz zaintzeko eta antzemateko. Horrek esan nahi du pertsonal askok egin behar duela lan ataza horietan, aurrearretazkoak izan arren, zerga-bilketaren onurarako izango direlako.

Arestian aipatu diren termino horietan maula egiten duten talde handi antolatu eta egituratu horien aurka egitea ez ezik, frogaketa eta ikerketa orokorraren arloko jarduketak egiteko beharrezkoa da aurrez zerga ordaindu behar dutenen aukeraketa egitea. Ondore horretarako funtzio horiek betetzeko bidezko jarduketa plana egokitu behar da. Talde berezi bat dago, ikuskapen plana egiteko, eta horrek, saileko goragoko organoek ematen dituzten gidalerroak eta Bizkaiko Foru Ogasuneko Iruzurraren aurkako Batzordean horri buruz hartzen diren erabakiak betez, zerga ordaindu behar dutenen artean horiek egin dituzten zerga-egitate guztiak osorik edo egia osorik esan gabe zainpetu ez dituztela adierazten duten zantzu nahikoak dituztenak aukeratzen ditu.

1.- Dirección General de Hacienda

La Dirección General de Hacienda es responsable de los siguientes Programas.

El programa 610.302 denominado “Inspección y SCAT” tiene entre sus objetivos la comprobación de la situación tributaria de las distintas personas obligadas tributarias, con el fin de verificar el exacto cumplimiento de sus obligaciones y deberes para con la Hacienda Foral, procediendo, en su caso, a la regularización correspondiente.

La función mencionada se ha ido dificultando con el tiempo en parte debido a una serie de circunstancias, como la sofisticación de los medios de defraudación, la globalización de la economía, la internacionalización fiscal y la aparición de nuevas figuras financieras. Todo ello ha dado lugar a la aparición de nuevos sistemas de fraude más sofisticados. Para detectar y dificultar la realización de este tipo de actuaciones es necesaria una estrecha colaboración entre los órganos de gestión e inspección, con el objeto de prevenir y detectarlas en origen. Todo ello supone una importante dedicación de personal en este tipo de tareas que, aún siendo preventivas, redundarán en la mejora de la recaudación.

Además de las tareas preventivas señaladas anteriormente, la realización de actuaciones de comprobación e investigación requieren de una previa selección de personas obligadas tributarias. Para ello, el ejercicio de estas funciones se debe adecuar al correspondiente plan de actuación. Existe un grupo específico para la elaboración del plan de inspección que, siguiendo las directrices emanadas de los órganos superiores del Departamento y los acuerdos que se alcanzan al respecto en la Comisión de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia, se encarga de seleccionar los y las obligadas tributarias en los que se detectan indicios racionales suficientes de que no han consignado en sus declaraciones tributarias, de forma veraz y completa, todos los hechos imponibles realizados.

Zergen arloan eragina duten datuak eskuratzea eta horien azterketa, batez ere informatikoa, dira antzemateari dagokionez erabiltzen diren tresna nagusiak. Pertsona ukituak ikuskapen planean sartzea aholkatzen duten zergen arloko anomaliak zuhurtziarakotasun eta eraginkortasun irizpideak erabiliz burutzen dira. Zergen arloari dagokionez garrantzitsua den informazioaren kalitatea eta kantitatea hobetzea da maularen aurkako borroka honetan eragina izango duen lehentasunetako bat. Informazioaren kalitateak hala zergak ordaindu behar dituzten pertsonei buruzko frogaketa-eragiketen hobekuntza lortzeko nola etorkizuneko ikuskapen planetan sartuko direnak hobeto aukeratzeko balio behar du.

La obtención de datos con trascendencia tributaria y el análisis, fundamentalmente informático, de los mismos, constituyen las principales herramientas empleadas en la detección, con criterios de discrecionalidad y eficacia, de las anomalías fiscales que aconsejan la inclusión en el plan de inspección de las personas afectadas. La mejora en la calidad y cantidad de la información con trascendencia tributaria es una de las prioridades que deben incidir en la lucha contra el fraude. La calidad de la información debe servir tanto para la mejora de los resultados de las actuaciones de comprobación de las personas obligadas tributarias, como para la mejora en la selección de los que conformarán futuros planes de inspección.

Ondorio horietarako, Informatikako Auditoretzarako Unitateko langileak Plangintzaren eta Auditoretza Informatikoaren Zerbitzuan organikoki sartu dira, aukeraketa tresnak hobetzeko asmoz.

A estos efectos, se ha adscrito orgánicamente en el Servicio de Planificación y Auditoría Informática al personal de la Unidad de Auditoría Informática, con el objeto de mejorar las herramientas de selección.

Ikuskapen Planaren burutzean eragingarritasuna handitzeko asmoz, ikuskatzailetza egiaztapenetan jarduera ekonomiko eta lanbide jarduerak garatzen dituzten zergadun behartuen sistema informatikoen begiztapena orokortu da. Auditoretza informatiko horiek egitearen helburua ikuskatzaileek sistema informatikoetako eragiketa ekonomikoen erregistro edo oharraren osotasuna eta zehaztasunari buruz funtsezko iritzia izan dezaten ahalbidetzeko beharrezko ebidentziak lortzea da. Sistema informatiko horietatik, erreminta informatiko egokien laguntzarekin mota guztietako prozesu eta kontrolak eginez eta Europar Batasunean gomendaturiko estandarren eta lan metodologiaren arabera, kontabilitateko orriak eta zerga aitorpenak atera dira.

Con el objeto de incrementar la eficiencia en la ejecución del Plan de inspección, se ha generalizado en las comprobaciones inspectoras la verificación de los sistemas informáticos de las y los obligados tributarios que desarrollan actividades económicas y profesionales. El objeto de la realización de estas auditorías informáticas es obtener las evidencias necesarias que permitan al personal inspector formarse una opinión fundada sobre la integridad y exactitud del registro o anotación de las operaciones económicas en los sistemas informáticos, de los que derivan los estados contables y las declaraciones tributarias, mediante la realización de todo tipo de procesos y controles con la ayuda de las herramientas informáticas apropiadas y conforme a los estándares y metodología de trabajo recomendados en la Unión Europea.

Jarduera hori ikuskapen prozeduretan parte hartuko duten ikuskatzaileek egiten dute. Aipaturikoen azken helburua honakoari arreta jartzea da: eginkizun ikuskatzailea ahalik eta modu eraginkor, eragingarri eta seguruenean garatzeari; eta horrez gain, eginkizun ikuskatzaile hori agente ekonomiko gehienek –kontrol prozesuetan ikuskatzailetza organoekin

Esta actividad es realizada por el propio personal inspector que participe en los diversos procedimientos de inspección, y cuyo objetivo último es atender al desarrollo de la función inspectora de la forma más eficaz, eficiente y segura posible, al tiempo que adaptada a las soluciones de gestión utilizadas por la mayoría de los agentes económicos, inmersos en el pleno

lankidetzan aritzeko duten betebeharra betetzetik datorren zergadun behartuen zeharkako presio fiskala murrizteko onura gehigarria sortuz, Informazioaren Gizartearen garapen osoan murgilduta daudenak- erabiltzen dituzten kudeaketa soluzioetara egokiturik.

Ikuskapen Zuzendariordetzan egin diren bestelako jarduketen artean daude, besteak beste, ondoko hauek: eskubide, errenta, produktu, ondasun, ondare, enpresa eta beste elementu batzuen balioa frogatzea; eta zerga hobariak edo pizgarriak eskuratzeko eskatzen diren beharkizunak betetzen direla frogatzea; eta, azkenik, zerga araubide berezien aplikazioa.

Arestian adierazi diren funtzio horiek betetzeko Ikuskapen Zuzendariordetza lau Zerbitzuetan antolatuta dago. Izan ere, Zuzendariordetzaren menpean honako zerbitzu hauek daude: Ikuskaritza Koordinatzeko Zerbitzua, Plangintzaren eta Auditoretza Informatikoaren Zerbitzua, Ikuskapen Jardueren I. Zerbitzua eta Ikuskapen Jardueren II. Zerbitzua. Ikuskaritza Koordinatzeko Zerbitzuaren menpe- menpean honako atal hauek daude: Zerga Dokumentazioaren Atala eta Zerga Agenteen Atala. Ikuskaritza Koordinatzeko Zerbitzuak Zuzendariordetza laguntzeko jarduerak egiten ditu. Zerga Agenteen Atalak plana prestatzeko eta betearazteko informazioa eta egiaztapen murriztu eta mugatuak eskuratzeko funtzioak betetzen ditu, eta egiaztapen eta ikerketa prozedurekin lotutako informazioa bildu eta analizatzen du. Zerga Dokumentazio Ataleko administrazioko pertsonalak egiten dituen lanen artean, hautespen funtzioetan laguntzea, aktuarioek eskatuta informazio zehatza bilatzea, espedienteen tramitazioa eta abar daude.

2015. urterako 4.700 ikuskapen jarduketa egitea zegoen aurreikusita. Jarduketa horiek egiaztapen eta ikerketa jarduketak, zergadun behartuaren presentziarik gabeko erregularizaziokoak eta ikuskatzaile eta ikuskatzaileordeek izapidetuko dituzten egiaztapenak biltzen dituzte. Urtean zehar egindako datuek 4.929 jarduketa egin direla

desarrollo de la Sociedad de la Información, produciendo el beneficio adicional de reducir la presión fiscal indirecta de las y los obligados tributarios, derivada del cumplimiento de su deber de colaboración con los órganos de inspección en los procesos de control.

Otras funciones realizadas en la Subdirección de Inspección son la comprobación del valor de derechos, rentas, productos, bienes, patrimonios, empresas y demás elementos, así como la comprobación del cumplimiento de los requisitos exigidos para la obtención de beneficios o incentivos fiscales y devoluciones tributarias, así como para la aplicación de regímenes tributarios especiales.

Para la realización de las funciones señaladas anteriormente, la Subdirección de Inspección está organizado en cuatro servicios que dependen de la misma: Servicio de Coordinación de la Inspección, Servicio de Planificación y Auditoría Informática, Servicio de Actuaciones Inspectoras I y Servicio de Actuaciones Inspectoras II. Del Servicio de Coordinación de la Inspección dependen dos Secciones, la Sección de Documentación Fiscal y la Sección de Agentes Fiscales. El Servicio de Coordinación de la Inspección se encarga de todas las actividades que sirven de soporte a la Subdirección. Los Agentes Fiscales realizan funciones de obtención de información y comprobaciones restringidas y limitadas, así como tareas auxiliares de recopilación y análisis de información en relación con procedimientos de comprobación e investigación. El personal administrativo de la Sección de Documentación Fiscal realiza tareas diversas como el apoyo en las funciones de selección, búsqueda de información concreta a petición de los actuarios, tramitación de expedientes, etc…

Para el año 2015 estaba previsto que se realizasen 4.700 actuaciones inspectoras. Estas actuaciones engloban las actuaciones de comprobación e investigación, de regularización sin presencia del obligado tributario y las comprobaciones que se tramitarán por las y los inspectores y subinspectores. Los datos

erakusten dute; aurrekontuan sartutakoaren, 104,87 beraz. Jarduera horietako bat da Fiskaltzari 6 txosten bidaltzea, Ogasun Publikoaren aurkako 15 delituren zantzuak egoteagatik, eta beste 3 txosten maularen, agiri-faltsutzearen eta ondasunak ostentzearen delituengatik. Aurkituriko kuoten batura osoaren zenbatekoa, interesak eta zehapenak barne, urtean zehar 243.965.738,41 eurokoa izan da. Herri Ogasunaren aurka delitua egon litekeela ikusi den espedienteetan aurkitutako kuoten haztatutako zenbatekoa, 14.731.462,58 euro baino gehiagokoa da. Egiaztapen murriztuei dagokienez, adierazi behar da itzulketak txikitzeko proposamenen zenbatekoa 3.374.797,38 euro izan dela. Egiaztapen murriztuko prozedurei esker, 1.957.924,11 euroko zerga-zorra deskubritu da, zehapenak barnean direla.

realizados durante el año ascienden a 4.929 actuaciones, suponiendo, por tanto un 104,87% de lo presupuestado. Dentro de estas actuaciones, se incluye la emisión de 6 informes remitidos al Ministerio Fiscal por la existencia de indicios de 15 delitos contra la Hacienda Pública y otros 3 informes por la existencia de otros delitos de estafa, falsedad documental y alzamiento de bienes. El importe total de la suma de las cuotas descubiertas, incluyendo intereses y sanciones, ha ascendido durante el año a 243.965.738,41 euros. La cuantía ponderada de las cuotas descubiertas en los expedientes en los que se ha apreciado la posible existencia de delito contra la Hacienda Pública, asciende a 14.731.462,58 euros. En relación con las comprobaciones restringidas, hay que señalar que se ha procedido a la propuesta de minoración de devoluciones por importe de 3.374.797,38 euros. Los procedimientos de comprobación reducida han supuesto el descubrimiento de una deuda tributaria más sanciones por importe de 1.957.924,11 euros.

Agente Fiskalek egiten duten lanari dagokionez, 2015. urterako helburua 1.850 jarduketa –besteak beste, egiaztapen murriztuak eta murritzak, informazioa lortzekoak eta ikuskatzaile eta ikuskatzaileordeekin lankidetza- egitea zen. Lorturiko datuek 2.146 jarduketa batzen dituzte, hau da, aurrekontuan sartutakoaren 116. Jarduketa horien ildotik agerian jarri da iruzurraren ondorioz ezkutuan egondako 8.185.152,29 euroko zorra.

En relación con el trabajo que realizan los y las Agentes Fiscales, el objetivo para el año 2015 era 1.850 actuaciones, incluyendo, entre otras, las comprobaciones restrigidas y reducidas, las de obtención de información y la colaboración con las y los inspectores y subinspectores. Los datos conseguidos suman 2.146 actuaciones, es decir, un 116 % de lo presupuestado utilizado para su cómputo. Estas actuaciones han supuesto el descubrimiento de una deuda defraudada por importe de 8.185.152,29 euros.

Ikuskatzailetzak aurrekontuan sarturiko beste helburu bat “Aholkularitza eta txostenak” deiturikoa da. Helburu horrek bi ekintza biltzen ditu: lehenengoa, txostenak egitea da eta Ikuskatzailetzak gertaera jakin batzuei buruz duen iritzia islatzen duten agiriak igortzean, eta hala badagokio, horien kalifikazio juridikoa egitean, datza. Horren helburua ebazpena ematea dagokion organoak hori asmatzeko berme gehienarekin egiteko behar dituen judizio elementuak edukitzea da. Nabarmentzea merezi du gero eta ugariagoak direla merkataritza eragiketen zinezkotasuna aztertzeari buruzkoak;

Otro objetivo presupuestado por la Inspección es el que se denomina “Asesoramiento e informes”, que comprende dos tipos de acciones. La primera acción es la elaboración de informes y consiste en la emisión de documentos que reflejan el parecer de la Inspección respecto de ciertos hechos y, en su caso, la calificación jurídica de los mismos, con el objeto de que el órgano al que corresponda dictar la resolución disponga de todos los elementos de juicio necesarios para hacerlo con las mayores garantías de acierto. Merece destacarse que cada vez son más numerosos los que se refieren al análisis de la veracidad de

horretarako, ustez eragiketa horietan esku hartu duten subjektu pasiboen kontabilitateak, eta dagokionean, garraio agiriak eta erabilitako ordainketa bitartekoak aztertzen direlarik. Jarduketa mota horien gauzatzeari dagokionez, 2015. urterako helburua 1.100 jarduketa egitea zen. Guztira 1.549 egin dira; beraz % 140,82 bete da.

operaciones comerciales, examinando, para ello, las contabilidades de las y los sujetos pasivos que presuntamente han intervenido en las mismas, los documentos de transporte y los medios de pago utilizados, en su caso. En relación con la realización de este tipo de actuaciones, el objetivo para el año 2015 era de 1.100 actuaciones, habiéndose realizado un total de 1.549, que supone el cumplimiento en un 140,82%.

2012. urtean bi helburu berri sartu ziren. Espedienteak izapidetzeko informatikako auditoretza probak, edozein aukeratan, erabiltzen diren espedienteen kopuruarekin, eta jarduteko modu berri hauek erabiltzen dituzten jarduleen kopuruarekin zerikusia dute helburuok. Ondorio horietarako, 2015 urtean informatikako auditoretzako probak 280 espedientetan egiteko helburua ezarri zen. 272 espedientetako 417 jarduketetan egin zen azkenean. Proba horiek 50 jardulek egiteko helburua ezarri zen bestetik (kopuru horretan ikuskatzaileak, ikuskatzaile-ordeak eta agente fiskalak sartzen dira). 74 jardulek erabili dituzte; beraz, helburua % 148an bete da.

En el año 2012 se introdujeron como nuevos objetivos relacionados con el número de expedientes en los que se utilizan, en cualquiera de sus múltiples posibilidades, pruebas de auditoría informática para su tramitación, así como el número de actuarios/as que utilizan estas nuevas formas de actuación. A estos efectos en el año 2015 se estableció como objetivo un número de 280 expedientes en los que se aplicaran pruebas de auditoría informática, habiéndose aplicado en 417 actuaciones de un total de 272 expedientes, así como un número de 50 actuarios que las utilizaran, comprendiéndose en estas cifras los inspectores, subinspectores y los agentes fiscales, ascendiendo a 74 los actuarios que las han utilizado, lo que supone un cumplimiento del 148%.

Koordinazio eta Laguntza Teknikoko Zuzendariordetzaren Zerbitzuek beren lana egitean dituzten helburuen barruan, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusitik eratorritako “administrazio doktrina sortzea eta zabaltzea” dago, zergak aplikatzeko prozedura guztietan aplikatu beharrekoa, bai administrazio irizpideak eginez eta Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren jarraibide egokiak eginez, bai idatzitako zerga kontsulten erantzunak prestatuz eta zergak ordaindu aurreko proposamenak eginez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 84. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Dentro de los múltiples objetivos que tienen en el desempeño de su labor los Servicios de la Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica destaca el concerniente a la “elaboración y difusión de la doctrina administrativa” emanada de la Dirección General de Hacienda y aplicable en todos los procedimientos de aplicación de los tributos, tanto a través de la elaboración de criterios administrativos y las correspondientes Instrucciones de la Dirección General de Hacienda como a través de la preparación de las contestaciones a consultas tributarias escritas y propuestas previas de tributación de conformidad con lo dispuesto en los artículos 84 y siguientes de la Norma Foral 2/2005 , de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

05. Ogasuna eta Finantzak
05. *Hacienda y Finanzas*

Koordinazio eta Laguntza Teknikoko Zuzendariordetzari arlo honetan ezarritako helburuak betetzeari dagokionez, nabarmendu behar dugu ekitaldi honetan idatzitako 330 zerga kontsultei erantzun zaiela; aurreko ekitaldietatik eboluzioa nahiko arrazoizkoa da.

En relación con el cumplimiento de los objetivos marcados a la Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica en ésta área, hay que destacar que en éste ejercicio han sido objeto de contestación 330 consultas tributarias escritas manteniendo una evolución razonable respecto a ejercicios anteriores.

Ekitaldi honetan ebatzi diren zergapetu aurreko proposamenei dagokienez, 7ri erantzun zaie.

Por lo que hace a las propuestas previas de tributación resueltas en éste ejercicio, se ha respondido a 7 de ellas.

Jarraibideak egiteari dagokionez, Jarraibide bat egin eta Ogasuneko zuzendari nagusiak izenpetzeko jarri da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitorpen kanpainan aplikatu beharreko irizpideen ingurukoa.

En lo que se refiere a la elaboración de Instrucciones, se han elaborado y elevado a la firma del Director General de Hacienda 1 Instrucción relacionada con los criterios a aplicar en la última campaña de declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

Koordinazio eta Laguntza Teknikoko Zuzendariordetzaren beste helburu bat Justiziaren Administrazioko organoekin eta Fiskaltzarekin harremanak zentralizatzea da. Helburu horri dagokionez, epaitegi eta auzitegietatik jasotako banakako 33.650 informazio-eskaera automatikoki bideratu dira, epai-organoek eskatuta ziurtagiriak emateko Lantik enpresarekin lankidetzan ezarritako prozedura informatikoaren bidez; halaber, epaitegietatik eta auzitegietatik jasotako banako 7.461 jakinarazpen ere bideratu dira.

En relación con otro de los objetivos de la Subdirección de Coordinación y Asistecia Técnica, el correspondiente a la centralización de las relaciones con los órganos de la Administración de Justicia y con el Ministerio Fiscal,se ha procedido a canalizar 33.650 peticiones de información de forma automática a través del procedimiento informático establecido en colaboración con Lantik para la emisión de certificados a petición de los órganos judiciales y 7.461 comunicaciones individualizadas recibidas de los Juzgados y Tribunales

Indarrean dagoen Zigor Kodearen 305 eta hurrengo artikuluetan (azaroaren 21eko 10/1995 Lege Organikoaren bidez onetsia) araututako balizko delituak egiteari buruzko zantzuak atzematen diren espedienteak izapidetzeari dagokionez, adierazi behar dugu Ministerio Fiskalari 6 espediente bidali zaizkiola, eta beste 4 beste delitu batzuen bestelako zantzuak egoteagatik.

En relación con la tramitación de expedientes en los que se aprecie la existencia de indicios respecto a la comisión de posibles delitos contra la Hacienda Pública de los regulados en los artículos 305 y siguientes del vigente Código Penal, aprobado por medio de Ley Orgánica 10/1995, de 21 de noviembre, hay que hacer notar que se han remitido 6 expedientes al Ministerio Fiscal y otros 4 por la existencia de indicios de otro tipo de delitos distintos.

610.303: Zerga kudeaketa. Zerga Kudeaketarako eta Zergadunari Laguntzeko Zuzendariordetzak (Zuzeneko Zergen Zerbitzua, Zeharkako Zergen Zerbitzua, Zentsuak Kontrolatzeko eta Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzua, Zergadunarentzako

El 610.303: Gestión Tributaria. La Subdirección de Gestión Tributaria y Asistencia al Contribuyente, integrada por los Servicios de Tributos Directos, de Tributos Indirectos, de Control Censal y Tributos Locales y de

05. Ogasuna eta Finantzak
05. *Hacienda y Finanzas*

Informazio eta Laguntza Zerbitzua eta Egiaztapen Presentzialen Unitatea atalak dauzkana) itundutako zerga guztien kudeaketa egin behar du. Zergadunek une bakoitzean indarrean dauden zerga betebeharrak bete dituztela egiaztatzea da beraren funtsezko eginkizuna. Eginkizun hau burutzeko, aurkeztutako aitorpenak eta autolikidazioak kontrolatzen dira, berrikusten dira eta, beharrezkoa bada, likidatzen dira.

Información y Asistencia al Contribuyente, así como la Unidad de Comprobaciones Presenciales dependiente de la Subdirección, tiene encomendada la gestión de la totalidad de los tributos concertados y su misión fundamental consiste en la verificación de que los y las contribuyentes han cumplido con las obligaciones tributarias vigentes en cada momento. Para llevar a cabo ésta labor se controlan las declaraciones y autoliquidaciones presentadas, se revisan y en su caso se liquidan las mismas.

Nabarmendu behar da Errenta eta Ondareko Zergen kudeaketaz arduratzen diren bi Atalen lana sendotu dela. Lanaren banaketa berria ezarri da, zergadunaren ezaugarrien arabera. Zehazki, Errenta eta Ondare Atala pertsona fisiken errentaz arduratzen da, eta Enpresa eta Lanbide Jardueren eta Informazioaren Egiaztapen Atala jarduera bat egiten duten pertsona fisikoen errentaz.

Merece destacar la consolidación del trabajo de las dos Secciones que se encargan de gestión de los Impuestos de la Renta y el Patrimonio. Se ha implantado una nueva distribución del trabajo, en función del perfil del contribuyente. En concreto, la Sección de Renta y Patrimonio se encarga de la renta de las personas físicas y la Sección de Comprobación de Actividades Profesionales y Empresariales e Información de renta de las personas físicas con actividad.

Zehazki, Zerga Kudeaketarako eta Zergadunari Laguntzeko Zuzendariordetzak administrazio funtzio hauek egiten ditu:

En particular, la Subdirección de Gestión Tributaria y Asistencia al Contribuyente realiza las siguiente funciones administrativas:

1. Autolikidazioak, aitorpenak eta zergetarako garrantzia duten gainerako dokumentuak jaso eta izapidetu. Pertsona zergadunek beren betebeharrak betetzea errazteko, zerga guztiei buruzko laguntza programak eskaintzen zaizkie. Programa horiek etengabe eguneratzen eta hobetzen dira. Fitxategia programa horiek erabiliz sortzen da, eta Internet bidez transmititu ahal da. Laguntza programen deskargetan goranzko joerak bere horretan jarraitzen du. Gehien erabiltzen dena Errentaren gaineko Zergarena da, gutxi gorabehera 80.000 deskargarekin, eta horren atzetik doa 140 ereduaren laguntza programa, ekonomi eragiketen erregistro-liburuaren aitorpen informatiboa, gutxi gorabehera 24.000 deskargarekin.

1. La recepción y tramitación de autoliquidaciones, declaraciones y demás documentos con trascendencia tributaria. Como medio para facilitar a las personas contribuyentes el cumplimiento de sus obligaciones, se ponen a su disposición programas de ayuda de los diferentes impuestos, los cuales son objeto de actualización y mejora permanentes. El fichero que se crea mediante la utilización de dichos programas, es susceptible de transmisión a través de internet. Continúa la tendencia ascendente en las descargas de programas de ayuda. El del Impuesto de la Renta continúa siendo el más utilizado con unas 80.000 descargas, seguido del programa de ayuda del Modelo 140, declaración informativa del libro registro de operaciones económicas con unas 24.000 descargas.

2. Zerga araudian aurreikusitako itzulketak egiaztatzea eta egitea. Urtero, PFEZ, BEZ eta Sozietateen gaineko Zerga itzultzeko eskaerak berrikusteak aurrezpen fiskal handia ekartzen dio foru ogasunari. Izan ere, kasu askotan, ez da bidezkoa eskatutako guztia edo zati bat itzultzea.2014 ko ekitaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan itzuli beharreko emaitza duten aitorpenen berrikuspenari esker, guztira 5.237.887 euroko aurrezpen fiskala lortu da. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eremuan, 2014. urtean, itzultzeko eskabideen berrikuspenaren ondorioz, guztira 36.730.205,94 euroko aurrezpen fiskala sortu da.

2. La comprobación y la realización de la devoluciones previstas en la normativa tributaria. Anualmente la revisión de las solicitudes de devolución de IRPF, IVA y Sociedades implica un importante ahorro fiscal para ésta Hacienda Foral debido a que, en numerosos casos, no procede la devolución en todo o en parte de lo solicitado. La revisión de las declaraciones a devolver del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondientes al ejercicio 2014 ha permitido obtener un ahorro fiscal de 5.237.887 euros. En el ámbito del Impuesto sobre el Valor Añadido, en el 2014, consecuencia de la revisión de las solicitudes de devolución se ha generado un ahorro fiscal de 36.730.205,94 euros.

3. Zerga onuren jatorria jakitea eta egiaztatzea, prozedura egokia arautzen duen araudiaren arabera. Zentzu horretan, jarduera ekonomikoak sustatzeko edo etorkizuneko ekitaldietan aplikatzeko kenkariak dauzkaten aitorpenak berrikusi dira. Bizkaiko Foru Ogasunak eta Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuak lankidetza-hitzarmena dute txostenen igorpenaren arloan, Sozietateen gaineko Zergaren foru araudiaren barruan teknologiaren arloko ikerketa, garapen eta berrikuntza jardueren ziozko kenkaria aplikatzeko. Jasotako informazioa oinarri hartuta, ikerketa eta garapenaren ziozko kenkariak sartu dituzten 234 enpresaren Sozietateen Gaineko Zergaren aitorpenak aztertu dira. Gainera, Bizkaiko Enpresa eta Aurrerapen Zentrua, S.A.U. (BEAZ) Sozietateak eta Aldundi honen Ingurumen Sailak eman dizkiguten datuei esker, behar bezala berrikus daiteke ea zuzena den berrikuntza teknologikoko jardueren ziozko kenkaria kentzea, baita Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren garapen iraunkorra eta ingurumenaren kontserbazioa eta hobekuntza ahalbidetzeko proiektuen ziozkoak ere. BEAZek 91 enpresak aurkeztutako 130 proiekturi dagokien ebaluazioa igorri dio Administrazio honi, eta

3. El reconocimiento y comprobación de la procedencia de los beneficios fiscales de acuerdo con la normativa reguladora del correspondiente procedimiento. La Hacienda Foral de Bizkaia y la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial tienen suscrito un convenio de colaboración en materia de emisión de informes a los efectos de la aplicación de la deducción por actividades de investigación, desarrollo e innovación tecnológica de la normativa foral del Impuesto sobre Sociedades. En base a la información recibida se han revisado las declaraciones del Impuesto sobre Sociedades de 234 empresas que han incluido deducciones por investigación y desarrollo. Además, los datos que nos aporta la Sociedad Bizkaiko Enpresa eta Aurrerapen Zentrua, S. A. U. (BEAZ) y el Departamento de Medio Ambiente de esta Diputación, permiten revisar si es correcta la aplicación de la deducción por actividades de innovación tecnológica y por inversiones y gastos vinculados proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la conservación y mejora del medio ambiente de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades. BEAZ ha remitido a esta Administración la evaluación correspondiente a los 130 proyectos presentados por 91 empresas y el Departamento de Medio

Bizkaiko Foru Aldundi honetako Ingurumen Sailak, berriz, ingurumeneko 150 egokitasun-ziurtagiri egin ditu, lehen aipatu den kenkaria egiaztatzeko. Gainera, jarduera espezifiko batzuk egin dira, zerga-onura batzuk behar bezala aplikatzen direla egiaztatzeko, zehazki indarrean dagoen legeriak taxi, autotaxi edo autoturismotzat jotzen dituen ibilgailu automobilen salbuespenari buruzko onurak eta alokatzeko ez beste ezertarako erabiltzen ez diren ibilgailu automobilen salbuespenari buruzko onurak. Era berean, erabilitako ibilgailuen eskualdaketarako aurreikusita dagoen salbuespena aplikatzen den jarduketen arauzkotasuna kontrolatu da, eskuratzailea halako ibilgailuen salerosketan jardun ohi duen enpresaburu bat izanik ibilgailuok berriro saltzeko erosten dituenean. Horren emaitza gisa 364 likidazio egin dira, eta likidazio horien zenbatekoa 521.573 euro izan da.

Ambiente de esta Diputación Foral de Bizkaia, 150 certificados de idoneidad ambiental, a efectos de acreditar la deducción antes citada. Además, se han realizado actuaciones específicas dirigidas a la comprobación de la correcta aplicación de los beneficios fiscales relativos a la exención de vehículos automóviles considerados como taxis, autotaxis o autoturismos por la legislación vigente, y a vehículos automóviles que se afecten efectiva y exclusivamente al ejercicio de actividades de alquiler. Igualmente, se ha controlado la regularidad de las operaciones en las que se aplique la exención prevista para las transmisiones de vehículos usados cuando el adquirente sea un empresario dedicado habitualmente a la compraventa de los mismos y los adquiera para su reventa. El resultado ha sido la práctica de 364 liquidaciones por un importe de 521.573 euros

4. Zerga aitorpenak edo autolikidazioak aurkezteko betebeharra eta beste betebehar formal batzuk (helburu horrekin egindako errekerimenduak bidaltzea barne) betetzen diren kontrolatzeko jarduketak. Ezarritako epean egin behar dituzten zerga aitorpenak aurkeztu ez dituzten zergadunak azkar detektatzeko kontrol sakona egin nahi da. Errekerimendu egokiak egingo dira eta bidezkoak diren zehapenak ezarriko dira. Nabarmentzekoak dira Sozietateen gaineko Zerga aurkeztu ez dutenei dagozkien 3.629 errekerimenduak. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, 1.500 errekerimendu egin zaizkie guztira aurreko ekitaldietako ez aurkezleei eta berretsi gabeko eta ordaintzeko Rentanet Etxean proposamena zuten 3.900 ez aurkezleei. Azkenik, 900 errekerimendu egin zaizkie Ondarearen gaineko Zergaren ez aurkezleei.

4. La realización de actuaciones de control del cumplimiento de la obligación de presentar declaraciones o autoliquidaciones tributarias y de otras obligaciones formales incluida la emisión de requerimientos encaminados a tal fin. Se pretende conseguir un control exhaustivo que detecte rápidamente a aquellos/as contribuyentes que no hubieren presentado en el plazo establecido para ello, las declaraciones tributarias a las que están obligados/as, generando los oportunos requerimientos e imponiendo, en su caso, las correspondientes sanciones. Destacan los 3.629 requerimientos correspondientes a no presentadores del Impuesto sobre Sociedades En relación con el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se han practicado unos 1.500 requerimientos a no presentadores de ejercicios anteriores y 3.900 a no presentadores que tenían propuesta Rentanet Etxean a ingresar sin confirmar. Finalmente, se han practicado 900 requerimientos a no presentadores del impuesto de Patrimonio.

5. Aurkeztutako autolikidazioak eta aitorpenak berrikustea. Lan hau hobeto egiteko, aitorpenetan eta autolikidazioetan dauden datuak eta foru ogasunak dauzkanak erkatzen dira. Horretarako, jasotako informazio aitorpenak eta hirugarrenengandik datorren gainerako informazioa kontrolatzeko, jasotzeko eta arazteko lan xehea egin behar da. Informazio horren barruan, estatuko beste lau zerga administrazioekin aldian behin egiten den informazio truketik eratorritakoa dago. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Ondarearen gaineko Zerga aurkeztu duten zergapekoen inguruko egiaztapenak egin direla, atzerriko higiezinen gaineko aitorpen informatiboa oinarri hartuta, 720 eredukoa. Horrez gain, Ondarearen gaineko Zergari dagokionez, ondasun eta eskubideen (bai zergadunak zuzenean dauzkanak, bai sozietateren batean parte hartuz eskuratu dituenak) balioaren aitorpena zuzena dela egiaztatu da. Enpresa eta Lanbide Jardueren eta Informazioaren Egiaztapen Atalak ekonomi jarduerak egiten dituzten 10.000 pertsona fisiko hautatu ditu, haien Errentaren autolikidazioak aztertzeko. 2015ean, datuak egiaztatzeko, lehenengo aldiz «Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua» izeneko 140 ereduan dagoen informazioa eduki da.

5. La revisión de las autoliquidaciones y declaraciones presentadas. Para una mejor ejecución de ésta tarea, se contrastan los datos contenidos en las declaraciones y autoliquidaciones con los que obran en poder de la Hacienda Foral, lo que exige una exhaustiva labor de control, recepción y depuración de las declaraciones informativas recibidas y del resto de información procedente de terceros, entre la que se cuenta la derivada del intercambio periódico de información que se realiza con las otras cuatro Administraciones Tributarias del Estado En este sentido, destacar la comprobación de obligados tributarios presentadores de la autoliquidación del Impuesto sobre el Patrimonio a partir de la declaración informativa de inmuebles en el extranjero, modelo 720. También, en relación con el Impuesto sobre el Patrimonio, se ha trabajado en verificar la correcta declaración del valor de los bienes y derechos, tanto de los ostentados de forma directa como de los poseídos a través de la participación en sociedades. La Sección de Comprobación de Actividades Empresariales, Profesionales e Información ha seleccionado alrededor de 10.000 personas físicas que desarrollan actividades económicas para el examen de sus autoliquidaciones de Renta. En el 2015, para verificar datos se ha contado, por primera vez, con la información procedente del modelo 140 – Libro registro de operaciones económicas.

6. Egiaztapen mugatuko jarduketak egitea. Horri buruz, iruzurraren aurkako borrokari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Kudeaketari buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren (mugatutako egiaztapenak egitea ahalbideratzen duena, betiere zergadunen berme juridikoak zainduz) 129. artikuluaren kudeaketa organoei esleitutako eskumenen finkatzea eta arrakasta nabarmendu behar ditugu. Nabarmentzekoak dira aitortutako lanbide jardueretako gastuak berrikustearen ondorioz egindako 722 egiaztapen mugatuak. Egiaztapen mugatuko prozedura horiek Enpresa eta Lanbide

6. La realización de actuaciones de comprobación limitada. A éste respecto debe resaltarse la consolidación y el éxito, en términos de lucha contra el fraude, de las competencias atribuidas a los órganos de gestión del artículo 129 de la Norma Foral 2/2005 , de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, que posibilita la realización de comprobaciones limitadas, siempre salvaguardando las garantías jurídicas de las y los contribuyentes. Destacan las 722 comprobaciones limitadas consecuencia de la revisión de los gastos de las actividades profesionales declaradas.

Jardueren eta Informazioaren Egiaztapen Atalak izapidetzen ditu. Kopuru horri Aurrez Aurreko Egiaztapenen Unitateak egindakoak gehitu behar zaizkio, gutxi gorabehera 100 egiaztapen mugatu.

Estos procedimientos de comprobación limitada están siendo tramitados por la Sección de Comprobación de Actividades Empresariales, Profesionales. A este número, hay que sumar las realizadas por la Unidad de Comprobaciones presenciales, aproximadamente, unas 100 comprobaciones limitadas.

7. Dokumentazio edo informazio errekerimenduak bidaltzea. Zergadunek informazio aitorpenak aurkezteko betebeharrak betetzeari buruzko prebentzio eta kontrol jarduketak areagotu direla aipatu behar dugu. Aitorpen horiek aurkeztu beharra, modu orokorrean, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 92 eta 93. artikuluetan jasotako informazioa emateko betebeharra betetzean datza. Horri buruz, aipatzekoak dira notariotzako indize bakarrean egiaztatutako datuetatik aurrera sortutako errekerimenduak. Gainera, atxikipenak eta konturako sarrerak derrigorrez egin eta ordaindu behar dituztenen jarraipena egin da, bereziki laneko errentei eta ordaintzen duten higiezinen kapitalari dagokienez. Kontrol hori egiteko, informazioa gurutzatu da aitorpen informatibo batzuen eta aurkeztutako autolikidazioetan egindako diru-sarreren artean. Errentagarritasunaren aldetik nabarmentzekoak dira honako hauek:

7. La emisión de requerimientos de documentación o información. Merece destacar la intensificación de las actuaciones de prevención y control sobre el cumplimiento por las y los obligados tributarios de sus obligaciones de presentación de las declaraciones informativas, exigidas con carácter general en cumplimiento de la obligación de suministro de información recogida en los artículos 92 y 93 de la Norma Foral General Tributaria del THB. A éste respecto son reseñables, los requerimientos generados a partir de los datos comprobados en el índice único notarial. Además, se ha hecho seguimiento de los obligados a practicar e ingresar retenciones e ingresos a cuenta, especialmente sobre las rentas del trabajo y del capital inmobiliario que satisfagan. Este control se ha desarrollado a partir de la realización de cruces de información entre diversas declaraciones informativas y los ingresos efectuados en las autoliquidaciones presentadas. Destacan por su rentabilidad:

- 190, 110 eta 111 ereduen gurutzaketa, urteko laburpena eta lanaren etekinei, jarduera ekonomiko batzuen etekinei eta sariei aplikatu beharreko atxikipenen eta konturako sarreren autolikidazioa erkatzen dituena. Gurutzaketa horri esker 1.300.000 € bildu dira, eta 180 eta 115 ereduen gurutzaketa, urteko laburpena eta hiriko higiezinak errentatuz lortzen diren etekinei dagokienez egin beharreko atxikipen eta konturako sarreren autolikidazioa erkatzen dituena. Gurutzaketa horri esker 250.000 € bildu dira.

- El cruce de los modelos 190, 110 y 111 que contrasta el resumen anual con la autoliquidación de retenciones e ingresos a cuenta sobre rendimientos del trabajo, de actividades económicas, premios y determinadas imputaciones de renta. Este cruce ha supuesto una recaudación de 1.300.000 € y el cruce de los modelos 180 y 115 que constrastan el resumen anual con la autoliquidación de retenciones e ingresos a cuenta sobre rendimientos procedentes del arrendamiento de inmuebles urbanos. Este cruce ha supuesto una recaudación de 250.000 €.

8. Rentanet etxean proposamenak bidaltzea, zergadunek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena egin eta aurkeztu behar ez dezaten. 2015. urtean, 350.000 aitorpenen kopuruari eutsi zaio.

9. Azkenean, arlo horren beste zeregin garrantzitsu bat da zehapen espedienteak irekitzea araudi indardunean jasotako zergen arloko arau-hausteak antzematen diren kasuetan. 2015. urtean ezarritako zehapenak, guztira, 5.200.000 eurotik gorakoak izan dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Lanaren Etekinen, Sozietateen gaineko Zergaren, Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren eta BEZaren kudeaketaren ondoriozkoak.

Zergadunarentzako informazio eta laguntzaren arloan, “Gure Gida” hobetzen jarraitzen da, zergadunei kontsultarako eta laguntzarako beste tresna bat eskaintzearren. Tresna hau egitea zaila suertatu da. Jakintza kudeatzeko sistema da eta helburua, printzipioz, zergadunei arreta ematen dieten langileei laguntzea da, zergen arloan eduki eta kasu oso ezberdinak eta ugariak daudelako. 2015. urtean, Gure Gidan informazioa zergadunaren ezaugarrien arabera ematen hasi da, kasu hauetan: errenta-eratxikipenaren araubideko erakundeak, irabazteko asmorik gabeko erakundeak eta ekonomia jarduera bat egiten duten pertsona fisikoak-higiezinen errentatzaileak.

630.101: Zerga-bilketaren kudeaketa. Ekitaldirako Zerga-Bilketaren Zuzendariordetzaren aurrekontuak eratzen dira, Diruzaintza, Berme, Zerga-Bilketa eta Zerga-Bilketako Ikuskaritzako Zerbitzuetarako ezartzen diren helburuak lortzeko.

8. Envío de las propuestas rentanet etxean para evitar que las y los obligados tributarios tengan que confeccionar y presentar la declaración del Impuesto de la Renta de las Personas Físicas. En el año 2015 se ha mantenido la cifra de 350.000 declaraciones confeccionadas.

9. Finalmente, otra labor importante de éste área, es la incoación de expedientes sancionadores en los supuestos en los que se apreciara la existencia de la comisión de infracciones tributarias tipificadas en la normativa vigente. Durante el 2015, se han impuesto sanciones por más de 5.200.000 de euros derivadas de la gestión del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Retenciones de Trabajo, Impuesto de Sociedades,Impuesto de Transmisiones Patrimoniales e IVA.

En el área de información y asistencia al conribuyente, sigue mejorando “Gure Gida”, ofreciendo a las y los contribuyentes una herramienta más de consulta y asistencia. Se trata de una herramienta de compleja elaboración, que consiste en un sistema de gestión del conocimiento pensado, en un principio, para dar apoyo a los profesionales de atención al contribuyente ante la compleja diversidad y la alta variabilidad de los contenidos y casuísticas tributarias. Durante el 2015 se ha comenzado a dar información en Gure Gida en función del perfil del contribuyente, en los casos de:entidades en régimen de atribución de rentas, entidades sin ánimo de lucro y personas físicas con actividad económica-arrendadores de inmuebles.

El 630.101: Gestión recaudatoria. Los presupuestos para el ejercicio de la Subdirección de Recaudación se elaboran en base a la consecución de los objetivos que se fijan para los Servicios de Tesorería y Garantías, de Recaudación y de Inspección Recaudatoria.

Diruzaintzaren kudeaketa eraginkortasunari begira dago eta saiatuko da teknologia berriez baliatzen eta barne informazioa ahalik eta arinen eta gutxieneko kostuan ematen. Horretarako, diru-sarrerak eta ordainketak era eraginkorrean tramitatzen dira, zerga-bilketarako orokorrean, eta zergapekoei erraztasunak ematen zaizkie beren betebeharrak betetzeko.

La gestión de Tesorería se enmarcará en la eficiencia, tratando de implantar y aprovechar las nuevas tecnologías y proporcionar la información interna con la máxima celeridad y al menor coste, tramitando los ingresos y pagos de forma eficiente, para la gestión recaudatoria en general y facilitando a los obligados al pago el cumplimiento de sus obligaciones.

2015ean lan handia egin da zorren ordainketa errazten duten eta PFEZen diru-sarrerei buruzko berehalako informazioa ematen duten bi utilitate ezartzeko. PFEZen 65. koadernoarekin ordaintzeko modua ezarri da, eta aldi berean, zerga horren autolikidazioak Internet bidez aurkeztea sustatu da.

En 2015 se ha trabajado intensamente en la implantacion de dos nuevas utilidades para facilitar el pago de las deudas y para la obtencion de información inmediata sobre los ingresos de IRPF. A la vez que implantar la forma de pago con el cuaderno 65 de IRPF, se ha favorecido la presentación por Internet de las autoliquidaciones de este impuesto.

Aldi berean, konpentsazio prozeduretako funtzionaltasun berriak ezarri dira; izan ere, nabarmen errazten diete kudeaketa zergapekoei.

Este Departamento de Desarrollo Económico y Territorial se ha marcado como prioridades la Innovación y el Empleo con el objetivo común de salir definitivamente de la crisis y crear empleo

Helburu horrekin, jarduteko lau ardatzetan egituraturiko neurrien multzo bat egituratu dugu.

Con este objetivo,hemos articulado un conjunto de medidas estructuradas en cuatro ejes de intervención:

- Berrikuntza eta Lankidetza produktibitatearen eragile eta etorkizunerako berme gisa. Bereizgarri izaten eta gauza berriak eta bereziak eginez, eta ahal bada, gauza apartak eginez, berrikuntza gure erakundeetan nagusitu nahian betiere.
- La Innovación y la Cooperación,como motores de la productividad y garantía de futuro. Diferenciándose y haciendo cosas nuevas,singulares y si es posible únicas, pretendiendo que la innovación se incorpore de forma masiva en las organizaciones.
- Enpresak sustatzea, enpresa berritzaile berriak sortzeko neurrien eta ETEen lehiakortasuna hobetzeko programen bidez.
- La Promoción Empresarial,con medidas dirigidas a la creación de nuevas empresas innovadoras y programas para mejorar la competitividad de las pymes existentes.
- Bereziki gazteen enplegua eta talentuaren sustapena. Gazteak nazioarteko bikaintasun zentroetan egonaldia izatea erraztea. Bizkaiko enpresetan praktikak kontratatzera bideraturiko ekintzak abiarazi dira urtearen barruan.
- El Empleo y la promoción del talento especialmente de la juventud.Facilitar las estancias del mundo joven en centros de excelencia internacional.Se ha puesto en marcha durante el año acciones que favorezcan la contratación en prácticas en empresas de Bizkaia.
- Azpiegiturak, hain zuzen enpresa, enplegua eta gizarte oreka sustatzeko planteaturiko estrategiaren laugarren ardatz gisa.
- Las Infraestructuras, como cuarto eje integrador de una estrategia planteda para la promoción empresarial, el empleo y el equilibrio social.

08. Ekonomi eta Lurralde Garapena
08. *Desarrollo Económico y Territorial*

Hauxe da sailaren jarduketa-ardatz bakoitzerako 2015. urtean erabilitako aurrekontua:

- 21 milioi euro jarri dira enplegua eta talentuaren sustapena bultzatzeko.
- 14,1 milioi euro berrikuntza sustatzeko.
- 12,4 milioi euro enpresak sustatzeko jarduketetan.
- 26,3 milioi euro azpiegiturak garatzeko.
- 4,1 milioi euro lankidetza eta nazioarteratzea bultzatzeko.
- 6,7 milioi euro Bizkaian turismoa sustatzeko.

Jarraian, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sail honek garaturiko proiektuen eta emaitzen laburpena zehaztuko dugu.

Berrikuntza indartzea

Berrikuntza Sustatzeko Planaren bidez, hainbat jarduketa egin dira.

- Berrikuntza Sustatzeko 2015eko Plana. 195 eskaera jaso dira; horietatik, 176 produktu edo prozesuari dagozkio, 7 erakundearen eraldaketari, 8 merkatuko berrikuntzari eta 4 patenteen gaineko jarduerei.
- EETIFIL 2015 inbertsio aurreratuari laguntzeko laguntzeko Plana. 184 eskaera jaso dira enpresa txiki eta ertainei dagokienez.
- LALF 2015 finantza-laguntzako plana. 298 eskaera jaso dira mikroenpresei, pertsona fisikoei eta nortasun juridikorik gabeko erakundeei dagokienez.

El presupuesto destinado en el año 2015 a cada uno de los ejes de actuacion del departamento es el siguiente:

- 21 millones de euros destinados al impulso del Empleo y la Promoción del Talento.
- 14,1 millones de eurosen potenciar la Innovación
- 12,4 millones de euro en actuaciones de Promoción Empresarial
- 26,38 millones de euros dedicada al desarrollo de las Infraestructuras.
- 4,1 millones de euros para impulsar la cooperación e internacionalización.
- 6,7 millones de euros para la promoción del turismo de Bizkaia.

A continuación se detalla una síntesis de los resultados y proyectos más importantes desarrollados por el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial

Potenciar la Innovación.

A través del Plan de Promoción de Innovación se han desarrollado diferentes actuaciones.

- Plan de Promoción de la Innovación 2015: se han recibido 195 solicitudes, de las que 176 corresponden a producto y proceso, 7 a transformacion organizacional, 8 innovacion en mercado y 4 actuaciones de patentes.
- Plan de apoyo a la inversión avanzada AFIPYME 2015, en el que se han recibido 184 solicitudes correspondientes a pequeñas y medianas empresas.
- Plan de Apoyo Financiero AFA 2015, se han recibido 298 solicitudes correspondientes a microempresas personas fisicas y entidades sin personalidad juridica.

- Lankidetzan berrikuntza bultzatzeko Programa 2015. 15 eskaera jaso dira eta jarduerak sarbide berriak berritzeko lankidetzako proiektuak bultzatzeari dagozkio.

- Innobideak-Kudeabide Plana, non kudeaketa hobetzeko proiektuei laguntzeko 49 eskabide jaso diren.

- Babesa CIC Biogune, Fundacion Biofisica eta Leartiker-i, azpiegiturak garatzeko; Babesa AIC Automotive Inteligence Center zentroari.

- Proiektuak garatzeko laguntzak Bilboko Merkataritza Ganbera, Plentziako Itsas Estazioa (UPV/EHU) eta Azterlan erakundei eta Tecnalia Research & Innovation, Azaro eta Biofísica Bizkaia fundazioei.

Enpresa sustapena.

Ardatz horren baitan, enpresen sorkuntza sustatzeko, ekintzaileak balioztatzeko, merkataritzaren sektorea dinamizatzeko eta enpresen mintegien sarea bultzatzeko jarduketak sartzen dira. Horretarako, Saileko nahiz sailarekin lankidetzan aritzen diren erakundeetako pertsona-talde baten konpromisoa eta laguntza izan dira; izan ere, uste osoa du garrantzitsua dela lan eraginkorra, gertukoa eta profesionala egitea. Hala, hona hemen Bizkaiko Lurralde Historikoan ekintzailetza bultzatzeko eta sustatzeko 2015eko ekitaldian izandako jarduketak, beste batzuen artean:

Enpresa berritzaileak sortzeko programa:

- 1. arloa: Enpresa-proiektu berritzaileak garatzea, horrelako proiektu moten bideragarritasun planaren garapena eta heldutasuna errazteko. 2015ean 68 proiekturentzako sustengua eman da.

- Programa para el fomento de la Innovación en Cooperación Elkarlanean 2015, en el que se han recibido 15 solicitudes, correspondientes a actuaciones dirigidas a fomentar proyectos de cooperación para la innovación.

- Plan Innobideak-Kudeabide, en el cual se han recibido 49 solicitudes de apoyo a los proyectos de mejora de gestión.

- Apoyo a CIC Biogune, Fundacion Biofisica y Leartiker para el desarrollo de infraestructuras y el apoyo al AIC Automotive Inteligence Center.

- Ayudas para desarrollo de proyectos a las entidades Cámara de Comercio de Bilbao, Plentziako Itsas Estazioa (UPV/EHU) y Azterlan, y a las fundaciones Tecnalia Research & Innovation, Azaro y Biofísica Bizkaia.

Promoción Empresarial.

Dentro de este eje se incluyen actuaciones destinadas al fomento de la creación de empresas, a la valorización de personas emprendedoras, a la dinamización del sector comercial y al impulso de la red de incubadoras empresariales. Todo ello mediante el compromiso y la colaboración de un equipo de personas que, tanto desde el Departamento como desde las entidades con las que se colabora, está convencido de la importancia del desarrollo de un trabajo eficaz, cercano y profesional. Así, las actuaciones para el impulso y fomento del emprendimiento en el Territorio Histórico de Bizkaia en el ejercicio 2015 han sido, entre otras, las siguientes:

Programa de Creación de Empresas Innovadoras:

- Area 1: Desarrollo de proyectos empresariales innovadores,que facilitan el desarrollo y la maduración del plan de viabilidad de este tipo de proyectos.En el año 2015 se han apoyado 68 proyectos.

– 2. arloa: Enpresa berritzaile berriak, Bizkaian enpresa berritzaile berrien sorkuntza sustatzeko. 31 enpresa berri lagundu dira.	– Area 2: Nuevas empresas innovadoras, para promocionar la creación de nuevas empresas innovadoras en Bizkaia. Se han apoyado 31 nuevas empresas.
– Bizkaia Sortzailea programa, sorkuntzaren industriekin loturiko jarduera ekonomikoko goranzko sektore berriak indartzeko. 27 proiekturentzako sustengua eman da.	– Programa Bizkaia Creativa, para potenciar nuevos sectores emergentes de actividad económica relacionados con las industrias de la creatividad. Se han apoyado 27 proyectos.
– Ekintzailetza eta Gizarte Berrikuntza Programa, ekintzailetzaren sustapenean eta gizartearen arloko enpresa espirituan eragin positiboa duten jarduketak egiteko. Guztira 19 eskabiderentzako sustengua eman da, haietatik 4 gizarte-enpresa edo gizarte-entitate berritzaile berria izan dira.	– Programa de Emprendimiento e Innovación Social, para desarrollar actuaciones que incidan positivamente en el fomento del emprendizaje y el espíritu empresarial en el ámbito social. Se han apoyado un total de 19 solicitudes, con una generación de 4 nuevas empresas o entidades sociales innovadoras.
– Bizkaia Digitala Programa: Internet Industriala, Bizkaiko enpresen prozesuen, produktuen edo zerbitzuen Gauzetako Internet abiarazteko modua sustengatzeko eta dinamizatzeko xedearekin. Guztira 13 proiekturentzako sustengua eman da.	– Programa Bizkaia Digital: Internet Industrial, que pretende apoyar y dinamizar la implementación de Internet de las Cosas en procesos, productos o servicios de las empresas de Bizkaia. Se han apoyado un total de 13 proyectos.
– Enpresa berritzaileen sorkuntza sustatzeko laguntzak eta hitzarmenak. 10 lankidetza-akordio kudeatu dira hainbat merkatari elkarte ezberdinekin.	– Ayudas y convenios para el fomento de la creación de empresas innovadoras. Se han gestionado 10 acuerdos de colaboración con diferentes asociaciones de comerciantes.
– Lankidetzarako 4 akordio sinatu dira, emakumezkoen ekintzailetzari laguntzeko, emakumezko ekintzaileak eta enpresaburuak nabarmentzeko eta erreferenteak identifikatzeko.	– Se ha firmado 4 acuerdos de colaboración para el apoyo al emprendimiento por parte de mujeres emprendedoras, para la visibilización de mujeres emprendedoras y empresarias y para la identificación de referentes.
– Merkataritza dinamizatzeko laguntzak. Lankidetzareko 4 akordio kudeatu dira, zenbait erakunderekin, merkataritza hobetu eta eskaria bizkortu nahian.	– Ayudas para la dinamización del comercio. Se han gestionado 4 acuerdos de colaboración con diferentes entidades para la mejora del comercio y la incentivación de la demanda.
– Tokiko garapena sustatzeko ekintzen barruan, lankidetza-hitzarmen bat egin da eskualdea ekonomikoki berpizteko.	– Dentro de la promoción del desarrollo local se ha realizado un acuerdo de colaboración para la reactivación económica comarcal.

- Bizkaiko enpresa ingurunean sorkuntza sustatzeko asmoz, 5 ekimen eraman dira aurrera zenbait erakunderekin, sorkuntzaren esparruan jarduketak garatu ahal izateko.

- Mintegien sarea kudeatzen jarraitu da. Izan ere, horren xedea da Bizkaiko proiektu berritzaile edota oinarri teknologikoko proiektu guztiak gaitzea da.

- Ekintzailetza kultura sustatzea:Ekintzailetza kulturaren eremuko programa bat da, DBHko eta Batxilergoko ikasleentzat, gazteen ekintzailetzarako ekimena sustatzeko. Horri esker, kultura aldaketa eragingo da ikastetxeetako hezkuntzaren bidez.

- Kultura zientifiko eta teknologikoa sustatzeko 3 jarduketa egin dira, bai kultura zientifikoa adin gazteetan sustatzera bideratutakoak bai zientzia oro har aintzat hartzera zuzendutakoak.

- Sailaren jarduketak koordinatzeko esku-hartze zehatzak izan dira, emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasunaren inguruan eta pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko Bizkaiko Foru Behatokiaren inguruan. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren gainerako zeharkako batzordeetan eta behatokietan parte hartu da.

- Con objeto de promover la creatividad en el entorno empresarial de Bizkaia se han llevado a cabo 5 iniciativas con diferentes entidades para el desarrollo de actuaciones en el ámbito creativo.

- Se continúa con la gestión de la red de incubadoras, cuyo objeto es la captación de todos los proyectos innovadores y/o de base tecnológica de Bizkaia.

- Fomento de la cultura emprendedora: desarrollo del programa Egin eta Ekin, dirigido al alumnado de ESO y Bachiller, en el que se persigue fomentar la iniciativa emprendedora desde la juventud, provocando un cambio cultural desde la educación en los centros escolares.

- Se han llevado a cabo 3 actuaciones para el fomentode la cultura científica-tecnológica,tanto destinadas a la cultura científica en edades tempranas como a la valoración de la ciencia a nivel global.

- Se han desarrollado las actuaciones específicas consecuencia de la coordinación de las actuaciones del Departamento en materia de igualdad de mujeres y hombres y en relación con el Observatorio Foral de la pobreza y la exclusión social de Bizkaia. Asimismo se ha colaborado en el resto de comisiones y observatorios tranvesrsales de la Diputación foral de Bizkaia.

Lankidetza eta nazioartekotzea sustatzea

ETE berriei beste herrialde batzuetako enpresekiko lankidetza erraztea, 16 elkarteren ekintzak babestuz.

Enpresak nazioarteko merkatu berrietara irten daitezen laguntza ematea, produktuak esportatzeko 131 proiektu eginez.

Promover la Cooperación y la Internacionalización

Facilitar la cooperación de nuevas PYMES con empresas de otros países apoyando las acciones de 16 asociaciones.

Apoyar la salida de las empresas a nuevos mercados internacionales mediante la realización de 131 proyectos de exportación de productos.

Bilboko Merkataritza Ganberarekin lankidetzan jardutea ETEentzako informazio zerbitzua eskaintzeko. Zerbitzu horrek nazioarteko merkataritzarekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa emango die edo esportatzen hasteko bideak erakutsiko dizkie.

Colaborar con la Cámara de Comercio de Bilbao para ofrecer un servicio de información para las PYMES que proporcione información sobre aspectos relacionados con el comercio internacional o para orientarlas sobre cómo comenzar a exportar.

Azpiegiturak

Infraestructuras

Azpiegitura ekonomikoak

Infraestructuras Económicas

Bizkaiko Foru Aldundiak parte hartzea Bizkaian lehendik dauden eta eraikitzen ari diren industrialdeetan, baita Parke Teknologikoan eta BECen ere.

Participación de la Diputación Foral de Bizkaia en los Industrialdeak existentes y en construcción en Bizkaia, así como del Parque Tecnológico y el BEC.

Elkartegiak Programaren barruan, aurkezturiko 30 eskabideetatik 29 onetsi dira 2015. urtean. Eta guztira 8 enpresa izan dira programa horretan jasotako errentamendu prezioaren laguntzen onuradunak.

Dentro del Programa Elkartegiak, en 2015 se han aprobado 29 de las 30 solicitudes presentadas y un total de 8 empresas han sido beneficiarias de las ayudas al precio del arrendamiento recogida en este programa.

Era berean, Industrialdeak eta Poligonoak biziberritzeko eta oinarri teknologikoko azpiegiturak berreskuratzeko programei dagokien kudeaketa egin da 2015eko ekitaldian.

Asimismo, se ha realizado la gestión correspondiente a los programas de Revitalización de Áreas y Polígonos industriales y de Recuperación de Infraestructuras de Base del ejercicio 2015.

GISLUR tresnaren jarraipena egitea. Tresna horrek on-line informazioa ematen du Bizkaiko industrialdeei buruz eta jarduera ekonomikoak garatzeko erabil daitekeen lurzoruari buruz. Ekitaldi honetan landa lanak egin dira, eta horiek ahalbidetu dute geoatari horrek ematen duen informazioa eguneratzea, bai eta Bizkaiko industriaguneen egoerari buruzko diagnostiko bat egitea ere; horrek lagunduko du inbentarioan sartutako azpiegiturak eta industriaguneen zerbitzuk hobetzeko politikak zehazten.

Seguimiento de la herramienta GISLUR que facilita información “on line” acerca del suelo apto para el desarrollo de actividad económica y los polígonos industriales existentes en Bizkaia. Durante este ejercicio se ha procedido a la realización de nuevos trabajos de campo que han permitido actualizar la información que facilita este geoportal, así como la elaboración de un diagnóstico de la situación de las áreas industriales de Bizkaia que facilitará la definición de políticas de mejora de las infraestructuras y de los servicios de los polígonos inventariados.

Lankidetza publiko eta pribatuari eta erakundeen artekoari dagokienez, ImagineNano ekitaldia antolatzeko finantzazioan lagundu da. Ekitaldi horren hirugarren edizioa izan da eta Bilbao Exhibition Centren egin da. Halaber, Enkarterriko Mankomunitatearekin lankidetzan jardun da, Karpineko finkaren zati bat erreformatzeko eta berregokitzeko lanetan.

En el ámbito de la colaboración público-privada e interinstitucional se ha colaborado en la financiación de la organización del evento ImagineNano en su tercera edición celebrado en el Bilbao Exhibition Centre. Asimismo, se ha colaborado con la Mancomunidad de las Enkartaciones en la reforma y readecuación de una parte de la finca El Karpin.

Barne dinamizaziorako zereginak Sailaren zerbitzuekin batera eta hura ordezkatzeko eginkizunak Bizkaiko Foru Aldundiaren zeharkako batzordeetan.

Labores tanto de dinamización interna junto con los servicios del Departamento, como de representación del mismo en las diferentes comisiones de carácter transversal existentes en la Diputación Foral de Bizkaia.

Turismoa

2015eko ekitaldia trantsizio urtea izan da Bilbo eta Bizkaiko politika turistikoei begira; ziklo bat ixteko urtea. Jarraian balantze labur bat egingo dugu haren gainean. Era berean, ekitaldi hau proposamen berriak egiteko urtea ere izan da; hala, epe ertainerako planifikazio sofistikatu eta handinahiagoa izango dugu; izan ere, planifikazio hori gehiago lotuko zaio gure lurraldeko sektore ekonomiko oparo honek bizi duen egoera berriari. Horrek hurbilduko gaitu eremu turistikoan unibertsalizatu den horizonte batera, 2030. urtera hain zuzen; izan ere, urte horretan gauza askok ez dute zerikusirik izango gaur egun ezagutzen ditugunekin.

Hala ere, lehenik eta behin egiaztatu behar da 2015. urtea izan dela Bilbo eta Bizkaiko eta Euskal Herriko turismoaren historia osoan ratiorik onenak lortu dituen ekitaldia, orain arteko onena, 2012koa, gaindituz; izan ere, aurten jasotako sarrerak %6,53 gehiago izan dira eta ostatu gauak %6,88. Beraz, Bilbo eta Bizkaiko interes turistikoei begira erabateko errekorra lortu da, 2014ko ekitaldia %9,52an eta %8,34an hobetuz arestian aipatutako parametroei dagokienez. Eta termino hauek ez dira erabatekoak; izan ere, datu horiek erakusten duten errealitatea ez da gure jomugan existitzen dena. Ezta hurrik eman ere.

Turismo

El pasado ejercício 2015 del que ahora abordamos su cierre, ha sido año de transición para las políticas turísticas de Bilbao Bizkaia, año de cierre de un ciclo, del que pasaremos a continuación a realizar un somero balance, y año de nuevas propuestas que darán paso a una planificación a medio plazo un poco más sofisticada y ambiciosa, si cabe, que la precedente, un poco más en consonancia con la nueva situación que vive este cada vez más boyante sector económico en nuestro Territorio, que nos acercarán un horizonte que, prácticamente, se ha universalizado como referente en el ámbito turístico, el año 2030, en el que muchas cosas dejarán de parecerse a las que hoy conocemos.

Lo primero, no obstante, que debieramos de hacer, sería constatar que, 2015, ha sido el año con mejores ratios en toda la historia del turismo en Bilbao Bizkaia y en el vasco en general, superando al 2012, el mejor año de todos hasta el momento, en un 6,53% en relación a las entradas recibidas en ese año, y en un 6,88% en cuanto a las pernoctaciones. Año de absoluto record, por tanto, para los intereses turísticos de Bilbao-Bizkaia que, eso sí, sólo en términos seudo-absolutos, superaron al 2014 en un 9,52% y en un 8,34%, respectivamente, con relación a los mismos parámetros de análisis. Y hablamos

Izan ere, zenbait kasutan agerian jarri dugunez eta Bilbo eta Bizkaiko Behatoki Turistikoak zehaztu eta ofizialdu zuenez, 2015eko ekitaldian jasotako ostatu gauen %35-40 inguru ez dira zenbatu gure estatistika turistikoetan. Horiek turisten tipologia berri batek sorrarazten ditu, turista horiek ostatu alternatiboak bilatzen baitituzte, eskaintzaren aldetik kalitate oneko ostatuak, eta aldez aurretik ezarritako eskaintza konbentzionalari kopuruak kentzen dizkiotenak. Orotara milioi bat gau-ostaturi buruz ari gara hizketan. Gau ostatu horiek ez dira estatistika ofizialetan azaltzen eta behatokiaren aurreikuspenen arabera 155 milioi euroko eragin ekonomiko zuzena eragin ahal dute. (Datu horien barruan ez dira sartzen Interneteko hainbat orrialdetan eskaintzen diren alojamendu partikularrak eta gaur-gaurkoz, zalantzarik gabe, lehiakortasun desleiala eta alegala sorrarazten dutenak.

de términos seudo-absolutos porque, lamentablemente, la realidad que esconden estos datos no refleja la que existe en nuestro destino. En absoluto. De hecho, como ya lo hemos evidenciado en alguna ocasión y que, definitivamente, el Observatorio Turístico de Bilbao Bizkaia fue capaz de concretar y, consecuentemente, oficializar, en el pasado ejercicio 2015, existe un porcentaje en torno al 35-40% de las pernoctaciones efectivas que recibimos, que se estarían dejando de contabilizar en nuestras estadísticas turísticas. Son aquellas provocadas por una nueva tipología de turista que busca alojamientos alternativos a los convencionales, alojamientos de una gran calidad en su oferta la mayoría de las veces y que, sin lugar a dudas, constituyen números arrebatados a la oferta más convencional anteriormente establecida. Estaríamos hablando de casi un millón adicional de pernoctaciones que no computan en ninguna estadística oficial y que, según estimaciones del propio observatorio, podrían generar un impacto económico directo de en torno a 155 millones de euros. (Estos datos excluirían aquellos relacionados con ese tipo de alojamientos particulares que se ofertan a través de un sinfin de páginas en internet y que, al menos a día de hoy, constituyen una competencia desleal y, a todas luces, alegal).

Merkatuei dagokienez, agerian jarri beharra dago nazioarteko turistek erabateko garrantzia izan dutela emaitza horiek lortzerakoan. Egia da, era berean, 2015. urte hau izan dela Espainiako merkatuaren susperraldiaren urtea, aurreko urteen aldean; izan ere, aurre urteetan partaidetza kuota galduz joan da. Gauzak horrela, Espaiako turisten ratioaren eta nazioartekoen ratioaren arteko aldea gero eta gehiago ari da murrizten eta une honetan parekidetasunetik hurbil dago (7:5). Gainera, ñabartu behar da zenbait alditan aipatu dugun turismo alternatiboaren kontsumo horretan nazioarteko turista ohikoagoa dela eskaintza mota horri dagokionez; horrek ageriago jartzen du nazioarteko unibertsoa gailentzen ari zaiola Espainiakoari, hazkundeei dagokienez. Horrela bada, datuekin guztiz bat datorren proiekzio bat eginez, lortutako emaitzek balio izan beharko

En relación con los mercados, por su parte, habría que evidenciar el absoluto carácter determinante de los internacionales en la consecución de los presentes resultados. Es cierto, no obstante, que este 2015 ha representado, también, el año de la recuperación del mercado español con respecto a los precendentes, años todos ellos en los que se fue perdiendo cuota de participación. De este modo, la diferencia entre el ratio turista español:turista internacional se va acortando cada vez más, situándose en estos momentos, en torno a la paridad 7:5. Además, habría que matizar que, en ese consumo de turismo alternativo que ya hemos puesto de manifiesto en varias ocasiones, el turista internacional es un consumidor más asiduo de esta oferta, lo que aún haría más evidente ese preponderancia del universo internacional sobre el español en cuanto a los

lukete sustapen ereduaren aldeko apustua indartzeko, bereziki merkatu horietan. Duela urte batzuk, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kanpo Sustapen eta Turismo Zuzendaritzak horren alde egin zuen.

crecimientos y, en una proyección absolutamente coherente de estos datos, los resultados obtenidos deberían de servir, también, para reforzar la apuesta por el modelo de promoción, principalmente en esos mercados, por el que ya se decantó, hace unos años, la Dirección de Promoción Exterior y Turismo de la Diputación Foral de Bizkaia.

2015. urteak gai turistikoan utzi duen balantze arrakastatsua egiaztaturik eta 2011-2015eko Legegintzaldiko Planean aldez aurretik finkatutako kopuru aldetiko helburuak lortzeko garatutako ekintzak eta estrategiak aztertzen hasi baino lehenago, amaitu berri den ekitaldiaren atipikotasuna nabarmendu behar da, hauteskunde urtea izan delako. Horrek ñabardura asko eragiten ditu: jarduera gelditzea, kudeaketa taldeak berritzea, politikak birdefinitzea eta abar. Hala, erreferentzia horiek izanik ere, honako jarduketa hauek nabarmen daitezke:

Una vez constatado el exitoso balance que nos ha dejado el 2015 en materia turística y, antes de pasar al análisis de las acciones y estrategias desarrolladas para alcanzar los objetivos numéricos prefijados en el Plan de Legislatura 2011-2015, habría que poner de manifiesto la absoluta atipicidad del ejercicio recientemente finiquitado, un año electoral, con todos los matices que esta cuestión importa: paralización de la actividad, renovación de equipos de gestión, redefinición de políticas, etc. Pues bien, con esas referencias de fondo, podríamos destacar las siguientes actuaciones

Normalizazioaren ardatza

Eje normalización

Jomuga turistikoa interpretatzeko lanabes teknologiko berri bat sortu eta horretan lagundu da; era berean, doako wifi sareko puntu berriak jarri dira.

Se han creado o colaborado con la creación de una nueva herramienta tecnológica para interpretar el destino turístico, así como nuevos puntos de redes wifi gratuitas.

Dinamizazioaren ardatza

Eje Dinamización

Legegintzaldi Planaren barruko ardatz honekiko aurreikusitako jarduerak betez, 2015an:

Atendiendo a las actuaciones contempladas en relación con este eje dentro del Plan de Legislatura, en este 2015:

Enpresa turistiko estrategikoen sorkuntzarekin jardun da lankidetzan (proiektu 1), bai eta produktu turistiko berriekin (20 proiektu) eta baliabide turistiko berri bat balioesteko egitasmoarekin ere.

Se ha colaborado con la creación de empresas turísticas estratégicas (1 proyecto) así como de nuevos prductos turísticos (20 proyectos) y con la puesta en valor de un nuevo recurso turístico.

Ekimen horiek turismoa dinamizatzeko planetarako laguntzen dekretuaren bidez garatu dira, eta 50 erakunde eskatzaileri erantzuna eman diete, honako hauetan banatuta: irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuak, elkarteak eta fundazioak (16 erakunde horiei 33 proiektu egiteko diru-laguntza eman zaie aurkezturiko 46 proiektuetatik), udalak eta menpeko beste erakunde batzuk (5 erakunde, 6 proiektutarako finantzazioa jaso dutenak) eta turismoaren sektorerarekin loturiko 29 enpresa 46 finantzaturiko

Estas iniciativas, desarrolladas a través del decreto de ayudas para planes de dinamización turística, dieron respuesta a las peticiones de 50 entidades solicitantes, repartidas éstas entre Asociaciones, Fundaciones y entidades privadas sin ánimo de lucro (16 entidades a las que se les financiaron 33 proyectos de los 46 presentados), Ayuntamientos y otros organismos dependientes (5 entidades, a las que se les financiaron 6 proyectos) y 29 empresas vinculadas al sector turístico, con 46 proyectos financiados,

Merkaturatzearen ardatza

Eje Comercialización

(Turismorako eta Kanpo Sustapenerako Zuzendaritzaren jardueraren ardatz nagusia).

(Eje principal de la actividad de la Dirección de Turismo y Promoción Exterior).

Azokak. Bilbo-Bizkaia presente egon da espainiar estatuko azoka nagusietan. Era berean, 2015an kanpoko azoka batzuetan ere egon zen, Helsinki, Berlinen eta Londresen, esaterako. Aldi berean, Kanadan izandako sustapen ekintza batean lagundu da eta, laguntza dekretu baten bidez, jomugaren partaidetza finantzatu da 25 sutapen inguruneta.

Ferias. Bilbao-Bizkaia ha estado presente en las principales ferias del estado español. Asimismo, en 2015 se estuvo en algunas de las principales ferias europeas como Helsinki, Berlín o Londres. Al mismo tiempo, se ha colaborado con una empresa receptiva local en una acción promocional en Canadá y, a través del decreto de ayudas, se ha financiado la participación del destino en 25 entornos promocionales

Fam eta Press Trip delakoak. 4 jarduera baizik ez dira, baina horien bidez 100 pertsona baino gehiago mobilizatu dira. Halaber, 8 fam eta press trip osagarri egiteko lankidetzan jardun da, laguntza dekretu baten bidez.

Fam y Press Trips. Se han realizado solamente cuatro actuaciones movilizando, eso sí, más de 100 personas. Al mismo tiempo, se ha colaborado con la realización adicional de 8 fam y press trips a través del decreto de ayudas.

Bi workshop egin ziren, bat Rotertam-en eta bestea Amsterdam-en, eta erantzun ona eskuratu zuten jorratutako merkatu igorleen eskutik. Halaber, beste hiru promozio-ekintza ere egin ziren Bogotan, Medellinen eta Santiago de Chilen. Era berean, Bilbo-Bizkaiko Turismo Eskualdeen bitartez, zuzeneko 16 komertzializazio-ekintza landu dira, askotariko merkatuetan: Ameriketakoetatik hasi eta gure destinorako aktiboagoak eta errazagoak diren Europako merkatuetara (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua). Beste ekintza batzuetan, berriz, segmentu bereziak landu dira hala nola luxuzko bideak Mallorka (alemanen merkatua) eta Japoniako merkatuetan.

Se realizaron dos workshops, uno en Roterdam y otro en Amsterdam, con una buena respuesta por parte de los mercados emisores abordados, así como tres acciones promocionales más en Bogotá, Medellín y Santiago de Chile. Asimismo, de la mano de las empresas turísticas de Bilbao-Bizkaia, se abordaron 16 acciones directas de comercialización, en mercados variados, desde americanos hasta los europeos más activos y receptivos para nuestro destino (Alemania, Francias, Reino Unido e Italia). Algunas acciones más, abordaron segmentos especiales, como el de los viajes de lujo, en mercados como Mallorca (mercado alemán) o Japón.

Profesionaltasunaren ardatza.

Zuzenean, eta baita Laguntza Dekretuaren bidez ere, 14 prestakuntza-proiektu dinamizatu dira kalitatearen, sentsibilizazio-jardunaldien, merkaturatzearen, jardunbide onen, produktuen sorreraren gaiekin lotuta.

Deustuko Unibertsitatearekiko akordioaren bidez, eta, zehatzago, BIZKAILAB programaren bidez, I+G+B programak eta espezializazio-programak garatzen dira prestakuntza-zikloen barruan.

Lurraldearen sustapena eta turismoaren sektorearen dinamizazio ekonomikoa ekitaldi handien bidez.

Atal honetan askotariko ekitaldiak nabarmendu behar dira, sendoturik dauden eta nolabaiteko ibilbidea duten batzuk, hala nola BBK Live Festival, BIME, Sakeko Slam Handiko Maisuen Finala, Bilbao Night Marathon edo Latinoamerikako Publizitate Komunikaziorako Sol Jaialdia, eta hain iraunkorrak ez diren baina inpaktu handia duten beste batzuk, esate baterako Red Bull Cliff Diving World Series.

Eje Profesionalización.

Directamente y, también a través del Decreto de Ayudas, se han dinamizado 14 proyectos de formación relacionados con temas de calidad, jornadas de sensibilización, de comercialización, de buenas prácticas, de creación de producto, etc.

A través del acuerdo con la Universidad de Deusto y, más concretamente, a través del programa BIZKAILAB, se desarrollan programas de I+D+I y también de especialización dentro de los ciclos formativos.

Promoción del Territorio y dinamización económica del sector turístico a través de los grandes eventos.

Destacan de este apartado una pléyade de eventos, algunos consolidados y con ya relativa solera, como el BBK Live Festival, el BIME, la Final de Maestros del Grand Slam de Ajedrez, el Bilbao Night Marathon o el Festival Iberoamericano de la Comunicación Publicitaria, el Sol, por citar algunos, y otros, menos permanentes, aunque de importante impacto, asimismo como, por ejemplo, las Red Bull Cliff Diving World Series.

Bide Sare Teknologikoaren eta errepideen inbentarioaren kudeaketa

Egitarau honek lau atal ditu:

1. Teknologia eta Inbentario Arloa.
2. Artapen Integralaren eta Ustiapenaren Arloa.
3. Bide Segurtasun, Hobekuntza eta Modernizazio Arloa
4. Sistemaren Operazio Arloa.

1. Teknologia eta Inbentarioa.

Helburuak:

Gestion de la Red Viaria Tecnologia e Inventario de Carreteras

Este Programa se compone de cuatro áreas:

1. Área de Tecnología e Inventario.
2. Área de Conservación Integral y Explotación.
3. Área de Seguridad Vial, Mejora y Modernización.
4. Área de Operación del Sistema.

1. Tecnología e Inventario.

Objetivos:

08. Ekonomi eta Lurralde Garapena
08. *Desarrollo Económico y Territorial*

1. Fabrikako Obrak Kudeatzeko Sistema ustiatu eta eguneratzea, Fabrikako Obrak Lehengoratu eta Konpontzeko Plana barne.
2. Bide-zoruak, drainatzeko egitura eta obrak, seinaleak, segurtasun hesiak eta balizatzeko beste elementu batzuk kudeatzeko tresnak ezartzea, errepide sarearen inbentarioa eta egiturazko auskultazioa egitea eta sare funtzionaleko bide-zoruei buruzko datu-basea egitea.
3. Proiektuak gainbegiratzea.
4. Errepideetan aplikatu beharreko legezko arauen eta arau teknikoen dokumentu-basea eguneratzea.
5. Errepide sarearen inbentarioa eta egituren eta eginkizunen auskultazioa.
6. Obra unitate berriak eta material berriak aztertu eta analizatzea errepideetan erabiltzeko.
7. Obra amaierako agiriak.
8. Sareari buruzko datu-basea eta zoruen birziklapenari buruzko azterlana egitea.

Aipatutako helburuak lortzeko, urte anitzeko jarduketa hauek egiten ari dira:

- Ikus inbentariorako laguntza teknikoa, egiturazko parametro funtzionalen eskuraketa eta kontsultarako aplikazio informatikoak.
- Zubien inbentarioa handitzeko eta zoruak kudeatzeko laguntza teknikoa.
- Obra amaierako agiriak, bide-zoruen karakterizazioa eta laguntza teknikoa.

1. Explotación y actualización del Sistema de Gestión de Obras de Fábrica, incluyendo el Plan de Regeneración y Reparación de Obras de Fábrica.
2. Implementación de herramientas de gestión de firmes, estructuras y obras de drenaje, señalización, barreras de seguridad y otros elementos de balizamiento, así como, inventario y auscultación estructural y funcional de la red de carreteras y confección de una base de datos de los firmes de la red funcional.
3. Supervisión de Proyectos.
4. Actualización de la base documental de Normativa Legislativa y técnica de aplicación en Carreteras.
5. Inventario y auscultación estructural y funcional de la Red de Carreteras.
6. Estudio y análisis de nuevas unidades de obra y nuevos materiales para su aplicación en carreteras.
7. Documentos fin de obra.
8. Confección de una base de datos de la Red y un estudio del empleo de reciclado de firmes.

Para la consecución de los objetivos señalados, se está continuando con las siguientes actuaciones de carácter plurianual:

- Asistencia tecnica para el inventario visual, obtención de parámetros funcionales y estructurales y aplicaciones informáticas de consulta.
- Asistencia Técnica para la ampliación de inventario de puentes y gestión de firmes.
- Documentos de fin de obra, caracterización de firmes y apoyo técnico.

2. Errepideen Artapena eta Ustiapena

Helburu hauek biltzen ditu:

1. Artapen integrala.
2. Artapen berezia.
3. Kontratu txikiak.

2.1. Artapen integrala.

Artapen integralak oinarrizko hiru kontzeptu hartzen ditu barruan

a) Zirkulazioan eta segurtasunean ohiko baldintzak lortzeko behar diren lanak.

b) Bideak neguan.

c) Bide-ondarea erabili eta babesteko zaintza.

2.2. Artapen berezia.

Azpiegiturak beti erabiltzeko moduan eduki behar direnez, lehengoratze funtzionaleko obrak, hobekuntza obrak edo estandarrak gaitzeko obrak egin ahala hormak eraiki behar izaten dira edo sendotze lan egokiak egin behar izaten dira alde ezegonkorretan.

Hormak:

- Hormen ezusteko eraikuntza

2.3. Kontratu txikiak.

Mantentze, hobetze eta modernizatze lanetarako kontratu txikien zerrenda.

Izan duten zenbateko ekonomikoagatik, 2015an egin diren ondoko jarduketa hauek azpimarratu behar dira.

2. Conservación Integral y Explotación de Carreteras.

Comprende los siguientes objetivos.

1. Conservación Integral.
2. Conservación Extraordinaria.
3. Contratos menores.

2.1. Conservación Integral.

La conservación integral alcanza tres conceptos básicos

a) Trabajos necesarios para conseguir las condiciones normales de circulación y seguridad.

b) Vialidad invernal.

c) Vigilancia sobre el uso y protección del patrimonio vial.

2.2 Conservación Extraordinaria.

La necesidad de mantener las infraestructuras en perfecto estado de operación, en tanto en cuanto se van llevando a cabo las obras de regeneración funcional, mejora o habilitación de estándares, exige la construcción de muros o llevar a cabo las labores de consolidación correspondientes en zonas inestables.

Muros:

- Construcción de muros imprevistos

2.3 Contratos menores.

Relación de pequeños contratos de mantenimiento, mejora y modernización.

Cabe destacar por su cuantía económica las siguientes actuaciones durante el ejercicio 2015:

– Artapen integrala. I., II. eta III. aldeak eta metropoli aldea.

– Loreztatutako aldeak artatzea I., II. eta III. aldeetan.

– Errepideetan unean uneko jarduketak egiteko L.T.

3. Bide segurtasuna eta errepideak hobetu eta modernizatzea.

Bide segurtasunaren hobekuntzari dagokionez, horrelako obrak egiten dira zirkulazioa oztopatzen duten egoerak zuzentzeko eta hobekuntzak egin edota elementuak egokitu eta modernizatu ondoren elementuak berritzeko, garatzen ari den arautegi berriari jarraituz.

Helburu hauek biltzen ditu:

1. Hobekuntza programatuak.
2. Estandarren gaikuntza.
3. Hobekuntza funtzionala.
4. Bide segurtasunaren hobekuntzak.
5. Trafikoa baretzea.
6. Mantentzea
7. Laguntza teknikoak

3.1. Hobekuntza programatuak

Hobekuntza programatuen bidez hasierako egoeran jarri nahi dira errepideetako elementuen ezaugarriak.

– Conservación Integral. Áreas I, II y III y Metropolitana.

– Mantenimiento de zonas ajardinadas. Áreas I, II y III.

– A.T. actuaciones puntuales en carreteras.

3. Seguridad Vial, Mejora y Modernización de Carreteras.

Destinadas a la mejora de la Seguridad Vial, la corrección de las situaciones desfavorables para la circulación, la renovación de elementos provocados por la introducción de mejoras y/o por la adaptación o modernización de los elementos, de acuerdo con la nueva normativa que se va desarrollando.

Comprende los siguientes objetivos:

1. Mejoras programadas.
2. Habilitación de estándares.
3. Mejora funcional.
4. Mejoras de Seguridad Vial.
5. Calmado de tráfico.
6. Mantenimiento
7. Asistencias Técnicas

3.1 Mejoras programadas

Las mejoras programadas pretenden poner en situación inicial las características de los elementos de las carreteras.

3.2. Estandarren gaikuntza.

Hona zertan diren lan horiek: errepidearen zeharkako sekzioa hobetu egiten da edozein foru errepideren zeharkako sekzioan eskatzen diren gutxieneko estandarrak lortu arte, errepidea zein mailatakoa den kontuan hartuta. Gerta liteke, halaber, trazaduran han eta hemen zuzenketaren bat egiteko aprobetxatzea.

3.2 Habilitación de estándares.

Consisten estas operaciones en la mejora de la sección transversal de la carretera hasta alcanzar los estándares mínimos exigidos en la sección transversal de cualquier carretera foral, en función de la categoría a que pertenece. También pudiera darse el caso de que se aprovechara para realizar alguna rectificación puntual del trazado.

3.3. Hobekuntza funtzionalak.

Hona zertan diren lan horiek: hobekuntza egiteko nahikoa da trazadura edota haren konfigurazioaren ezaugarriak (batez ere lotuneak) zuzentzea, zeharkako sekzioa jada lortuta dagoelako.

3.3 Mejoras funcionales.

Consisten estas operaciones en que la mejora supone solo la rectificación del trazado y/o características de su configuración, (principalmente conexiones), ya que la sección transversal ya se encuentra conseguida

3.4. Bide segurtasunaren hobekuntzak.

Jarduketak bideratu dira bide segurtasuna istripurik gehien izaten diren tarteetan hobetzeko; horrela, bidegurutzeen tipologia alda daiteke, oinplanoan edo altxaeran trazaketa zuzendu, gaitasuna handitu eta tarte horietako errepide azpiegiturako elementu guztietako elementuak hobetu.

3.4. Mejoras de Seguridad Vial.

Consisten estas operaciones en la realizacion de actuaciones destinadas a la mejora de seguridad Vial en tramos en los que se produce una accidentalidad anormalmente elevada, y que pueden consister en modificación de tipologia de intersecciones, rectificaciones de trazado tanto en planta como en alzado, aumentos de capacidad, y mejoras en todos los elemetos de infraestructura de las carreteras en esos tramos.

3.5. Trafikoa baretzea.

Udalekin hitzarturiko jarduketak dira (hitzarmenak). Horien bitartez, hiriguneetan, toki errepideetako trafikoaren intentsitatea gutxitu nahi da, hirigunea oinezkoentzat izan dadin bultzatzeko.

3.5 Calmado de tráfico.

Consisten en actuaciones concertadas con los municipios (Convenios) por lo que se procurará, en cascos urbanos, que las carreteras locales pierdan su intensidad de tráfico favoreciendo la peatonalización del casco urbano.

3.6. Mantentzea

Errepidea osatzen duten elementuak nahi bezain ondo mantentzeko egin behar diren lanak. Izan ere elementu horiek hondatu egiten dira trafikoaren edota meteorologiaren eraginez.

3.6 Mantenimiento

Trabajos necesarios para el mantenimiento de los elementos constitutivos de la carretera con calidad deseable, cuya degradación se puede producir por el tráfico y/o climatología.

3.7. Laguntza teknikoak

Mantentze, hobekuntza eta modernizazio proiektuak idazteko eta obrak egiteko laguntza teknikoa.

Azpimarratzekoak dira, euren garrantzi ekonomikoagatik, 2014ko ekitaldian egindako jarduketa hauek:

a) Obrak:

- Bi-3715 errepidea egokitzea eta zabaltzea Galbarriatun.
- Bi-625 hobetzea AP-68rekiko loturan (Arrigorriaga-Zaratamo) eta osagarrian.
- Bi-625 hobetzea Zaratamoko eta Basauriko loturan eta osagarrian.
- Bi-623 errepideko zoladura hobetzea 29+200 P.K.-tik 30+200 P.K-ra Durangon.
- Bi-3602 errepideko zoladura hobetzea 24+920 P.K.-tik 27+480 P.K-ra Zallan.

b) Laguntza teknikoak:

- Errepideen bide-segurtasunaren azterlanak eta kudeaketa.
- Segurtasun eta osasunaren arloko laguntza teknikoa.
- Errepideak artatzeko kalitate-kontrolerako laguntza teknikoa.
- Errepide-zerbitzu txikiak.
- Errepideetan ezpondak kontrolatzeko laguntza teknikoa.
- Errepideetan ezpondak hobetzeko laguntza teknikoa.

3.7 Asistencias Técnicas

Asistencias técnicas para redacción de proyectos y ejecución de obras de Seguridad Vial, mejora y modernización.

Cabe destacar por su cuantía económica las siguientes actuaciones durante el ejercicio 2015:

a) Obras:

- Acondicionamiento y ensanche en la Bi-3715 en Galbarriatu.
- Mejora de la Bi-625 enlace con la AP-68 Arrigorriaga-Zaratamo y complementario.
- Mejora de la Bi-625 enlace de Zaratamo-enlace de Basauri y complementario.
- Mejora de firme en la Bi-623 P.k 29+200 al P.k 30+200 en Durango.
- Mejora de firme en la Bi-3602 del P.K 24+920 al P.K 27+480 en Zalla.

b) Asistencias técnicas:

- Estudios y gestíon de seguridad vial de carreteras.
- Asistencia técnica en materia de Seguridad y Salud.
- Asistencia técnica para el control de calidad para la conservación de las carreteras.
- Servicios menores de carreteras.
- Asistencia técnica para el control de taludes en carreteras.
- Asistencia técnica para la mejora de taludes en carreteras.

- Bizkaiko Errepideen II. Lurralde Plan Sektoriala.
- Errepideak mantendu, hobetu eta modernizatzeko proiektuak idazteko laguntza teknikoa.
- Zubiak eta biaduktuak auskultatzea.
- Bide segurtasunri dagokionez, laguntza teknikoa, kalitatea kontrolatzeko, errepideak mantentzeko, hobetzeko eta berritzeko.

4. Sistemaren eragiketa.

Hurrengo helburuak azaldu dira:

1. Bizkaiko garraioaren mugikortasuna kudeatzeko telekomunikazioen instalazioak eta azpiegiturak mantendu eta ustiatzea, eta Txorierriko korridorean instalazio telematikoak jartzea, I. fasea, betiere denbora errealean jakin ahal izateko zein den zirkulazioaren egoera.

2. Malmasingo Mugikortasuna Kudeatzeko Zentroa mantentzea eta ustiatzea urteko egun guztietan, 24 orduetan. Zentroaren helburuak hauexek izango dira:

- Errepide sareko tunel nagusietako (Malmasin, Mamariga, Sodupe eta Ibarrekolanda) trafikoari jaramon egitea.
- Deiei eta gorabeheren abisuei jaramon egitea eta agente eskudunak horien jakitun jartzea; halaber, trafikoaren egoeraren berri ematea informazioko zerbitzariaren bitartez.
- Errepide sareko argi, semaforo eta instalazio telematikoen arazoei jaramon egitea, baita aireztapenerako, suteen kontrako, interfonia, megafonia eta CCTVko instalazioei ere, tuneletan.

- II Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia.
- Asistencia técnica para la redacción de proyectos de seguridad Vial, mejora y modernización de carreteras.
- Auscultación de puentes y viaductos.
- Asistencia técnica para el control de calidad para Seguridad Vial, mejora y modernización de las carreteras.

4. Operación del Sistema:

Se plantean los siguientes objetivos:

1. Mantenimiento y explotación de las instalaciones e infraestructuras de telecomunicación para la gestión de la movilidad del transporte en Bizkaia, así como la integración de las instalaciones telemáticas del Corredor del Txorierri Fase I con el objetivo de conocer el estado del tráfico en tiempo real.

2. Mantenimiento y explotación del Centro de Gestión de la Movilidad en Malmasin durante las 24 horas de todos los días del año, con los siguientes objetivos:

- Atender el tráfico de los túneles más importantes de la red de carreteras (Malmasin, Mamariga, Sodupe e Ibarrekolanda).
- Atender las llamadas y avisos de incidentes, comunicándolos a los agentes competentes, así como la difusión del estado del tráfico a través del servidor de información.
- Atender las incidencias de las instalaciones de alumbrado, semáforos e instalaciones telemáticas en la red de carreteras, así como las instalaciones de ventilación, contra-incendios, interfonía, megafonía y CCTV en los túneles.

- Uneoro trafikoa nola dabilen jakitea denbora errealean.

Zeregin horiek guztiak burutzeko, ondoko egitarauak daude:

1. Instalazioen ezarpena.
2. Mantentzea eta eragiketa.
3. Proiektuen idazketa.

2014ko ekitaldiko hurrengo kontratuak azpimarratu behar dira:

- Laguntza teknikoa, jarraipena eta kontrola. Kastrexanako segurtasun biltegia.
- Argi publikoen eta ponpaketa-estazioaren erabateko artapena.
- Errepideetako argi publikoen hornidura. 2014.
- Semaforo bidezko bidegurutzeetarako ekipoen hornidura eta instalazioa.
- Errepideen gainegiturei lotuta dauden lankidetzetarako laguntza teknikoa.
- Segurtasuna eta osasuna errepideak artatzeko obretan.
- Bizkaiko tunelen segurtasuna.

Azpiegituren garapena

“Azpiegituren Garapena” deritzon egitarauaren barrukoak I.A. eredutik zuzkitzen diren bitartekoz baino ez dira zuzkitzen, hau da, “Finantzaketa Tradizionaleko Sistema” (Bizkaiko Foru Aldundiaren Aurrekontuei buruzko Foru Araua); hori da, bada, aztergai dugun deskripzioa eta errepideen Planean aurtengorako eta hurrengo ekitaldietarako programatu dena. Halaber, Interbiak sozietatearen bidez eta BFAk emakidetan duen eskuordetzearen bidez jarduten da.

- Conocer en todo momento el estado del tráfico en tiempo real.

Para su realización se cuenta con los siguientes programas:

1. Implementación de Instalaciones.
2. Mantenimiento y Operación.
3. Redacción de Proyectos.

Cabe destacar los siguientes contratos durante el año 2014:

- Asistencia técnica seguimiento y control depósito seguridad de Kastrexana.
- Conservación integral alumbrado público y estación de bombeo.
- Suministro alumbrado público de carreteras. 2014.
- Suministro e instalación de equipos reguladores de cruces semafóricos.
- Asistencia técnica para colaboraciones asociadas a la superestructura de carreteras.
- Seguridad y salud obras conservación de carreteras.
- Seguridad de túneles de Bizkaia.

Desarrollo de Infraestructuras

El programa "Desarrollo de Infraestructuras" se nutre de recursos únicamente procedentes del Modelo I.A "Sistema de financiación tradicional", (Norma Foral de Presupuestos de Diputación Foral de Bizkaia) que es la descripción que nos ocupa y que en el Plan de Carreteras se programa para este y los próximos años. Además, se actúa a través de Interbiak.

Gaur arte, jarduteko ildoa hau izan da:

- Lantzean behingo jarduketa isolatuak, zerbitzu maila egokiak bermatzeko helburua eskuratzeko. Maila funtzionalean inbertsioak anitzak dira, ez handiegiak zenbatekoari dagokionean baina bai etekin handikoak.

2015ko ekitaldiari begira honakook nabarmen ditzakegu:

a) Errepideetako hurrengo obra hauek amaitu eta zerbitzuan jartzea:

- Bi-3715 errepidea egokitzea eta zabaltzea Galbarriatun.
- Bi-625 hobetzea AP-68rekiko loturan (Arrigorriaga-Zaratamo) eta osagarrian.
- Bi-625 hobetzea Zaratamoko eta Basauriko loturan eta osagarrian.
- Hormigoizko hesiak instalatzea BI-631 errepidean (7+400 - 8+000 P.K.).
- Bi-623 errepideko zoladura hobetzea 29+200 P.K.-tik 30+200 P.K-ra Durangon.
- Bi-3602 errepideko zoladura hobetzea 24+920 P.K.-tik 27+480 P.K-ra Zallan.
- Bi-712tik Bi-625erako sarbidea berrantolatzea Arrigorriagan.
- Oinezkoen pasagunea Bi-631n Agirletan.

b) Honako obrak burutzen ari dira:

Gaitasuna handitzea Derioko loturan.

La Arenako zubia konpontzea.

Hasta el momento la línea de actuación ha sido la siguiente:

- Eventuales actuaciones aisladas que aseguren el objetivo de obtención de Niveles de Servicio globales adecuados, con inversiones funcionalmente diversas, de no gran cuantía y gran rendimiento.

En lo que respecta al ejercicio 2015 cabe señalar lo siguiente :

a) Finalización y puesta en servicio de las siguientes obras de carretera:

- Acondicionamiento y ensanche en la Bi-3715 en Galbarriatu.
- Mejora de la Bi-625 enlace con la AP-68 Arrigorriaga-Zaratamo y complementario.
- Mejora de la Bi-625 enlace de Zaratamo-enlace de Basauri y complementario.
- Instalación de barreras de hormigón en la BI-631 PKs 7+400 a 8+000
- Mejora de firme en la Bi-623 P.k 29+200 al P.k 30+200 en Durango.
- Mejora de firme en la Bi-3602 del P.K 24+920 al P.K 27+480 en Zalla.
- Reordenación de acceso en Bi-712 a Bi-625 en Arrigorriaga.
- Pasarela peatonal en la Bi-631, Agirleta.

b) En ejecución las siguientes obras:

Aumento capacidad del enlace de Derio.

Reparación del Puente de La Arena.

c) Honako laguntza teknikoak burutzen ari dira:

- La Avanzadako tunela zabaltzeko proiektua Bi-637 errepidean.
- Ingurumen-laguntza teknikoa 2012-2015.
- Pantaila akustikoak eraikitzeko proiektuak.
- Neurgailuen Plana.
- Bizkaiko Errepideetan zarataren aurka borrokatzeko plana eguneratzea, mantentzea eta ustiatzea.
- Obra berrietako segurtasun eta osasunari buruzko laguntza teknikoa.
- Uribe-Kosta eta Bolue-Unibertsitatea konexioaren proiektua.
- Bide-segurtasunari buruzko azterlanak eta txostenak.
- Uribe-Kosta eta Mungialdea konektatzeko planeamendua.
- Tunelak ikuskatzea Bizkaian.
- Unbegane-Pozozabale-Mendiondo proiektua.
- Laguntza teknikoa eraikuntza-zerbitzuari.
- Ballontiko sistemaren korridoreen konexioaren alternatibetarako azterlana prestatzea BI-637 errepideko sistemarekin.
- Ballontiko ardatzean Cueto-Carmen tartea eraikitzeko proiektua prestatzea.
- La Arenako biaduktuan obra zuzendaritzaren laguntza teknikoa A-8an.

c) En ejecución las siguientes asistencias técnicas:

- Proyecto de ampliación del túnel de La Avanzada en la Bi-637.
- Asistencia Técnica medioambiental 2012-2015.
- Proyectos pantallas acústicas en carreteras
- Plan de Aforos.
- Actualización, mantenimiento y explotación del plan de lucha contra el ruido en las carreteras de Bizkaia.
- A.T. seguridad y salud obras nueva implantación.
- Proyecto de conexión de Uribe-Costa con Bolue-Universidad.
- Estudios e informes seguridad vial.
- Planeamiento de conexión con Uribe-Costa y Mungialdea.
- Inspección túneles de Bizkaia.
- Proyecto de costrucción del corredor de Unbe. Tramo: Unbegane-Pozozabale-Mendiondo
- Asistencia Técnica al Servicio de Construcción.
- Redacción del estudio de alternativas conexión corredores del sistema Ballonti con sistema Avanzada BI-637.
- Redacción de proyecto de construcción del tramo Kueto-Carmen en el eje de Ballonti.
- Asistencia técnica a la dirección de obra en el viaducto de La Arena en la A-8.

d) Amaitutako laguntza teknikoak:

- Foru bideetan mugimenduen azterketa historikoak sateliteko radarraren irudien bidez.
- Geologia eta geotekniari buruzko azterlanak.

e) Desjabetzeak egiten eta kaltetutako zerbitzuak birjartzen jarraitu da Sailaren zein Interbiak-en aurtengo obretarako eta ekin beharreko etorkizunekoetarako.

f) Interbiak Foru Sozietatearen bidez burutu beharreko obrei dagokienez, ustiatzen ari da:

- Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea.

g) Bizkaiko Foru Aldundiak, aparteko jarduketa moduan, ondokoa burutu du:

- Artxandako tunelen ustiapena.

d) Asistencias técnicas terminadas:

- Estudios históricos de movimientos en vías forales mediante imágenes radar satélite.
- Estudios de geología y geotecnia.

e) Continuación de las expropiaciones y las reposiciones de los servicios afectados para las obras en curso y las futuras a abordar, tanto del Departamento como de Interbiak.

f) En lo relativo a las obras a ejecutar a través de la Sociedad Foral Interbiak, se está explotando:

- Variante Sur Metropolitana.

g) La Diputación Foral de Bizkaia, como aspecto singular, lleva a cabo la siguiente actuación:

- Explotación de los Túneles de Artxanda.

Saila: Ekonomi eta Lurralde Garapena
Departamento: Desarrollo Económico y Territorial

Millaka euro/Miles de euros

Kapitulua Capítulo	Izendazioa Denominación	2.015				2.014			
		H.K. C.I.	A.K. C.F.	B. O.	Bet. % % Ejec.	H.K. C.I.	E.K. C.F.	B. O.	Bet. % % Ejec.
1	Langileriaren ordainsariak Remuneraciones de Personal	15.696	15.045	14.389	95,6%	6.456	6.548	6.391	97,6%
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak Gastos de Bienes Corrientes y Servicios	54.377	52.727	52.122	98,9%	5.509	6.159	6.011	97,6%
3	Finantza gastuak Gastos Financieros								
4	Transferentzia arruntak Transferencias Corrientes	25.680	27.070	25.230	93,2%	40.751	43.074	41.751	96,9%
6	Benetako inbertsioak Inversiones Reales	34.921	31.141	22.060	70,8%	1.809	1.988	1.972	99,2%
7	Kapital transferentziak Transferencias de Capital	14.901	15.802	15.080	95,4%	14.411	20.876	19.063	91,3%
8	Finantza-aktiboen aldakuntza Variación Activos Financieros	111.121	119.251	119.250	100,0%	14.621	15.900	15.900	100,0%
9	Finantza-pasiboen aldakuntza Variación Pasivos Financieros								
	Guztira / Total	**256.696**	**261.037**	**248.131**	**95,1%**	**83.556**	**94.546**	**91.088**	**96,3%**

Sailaren Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*

09. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna
09. *Empleo, Inclusión Social e Igualdad*

Ahaldun nagusiaren uztailaren 2ko 186/2015 Foru Dekretuak (Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 9ko 186/2015 Foru Dekretuak aldatu zuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren sailen kopurua eta izena zehazten dituenak) aldaketa batzuk egin zituen momentu hartan indarrean zegoen egituran eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila sortzea xedatu zuen.

El Decreto Foral 94/2015, de 2 de julio, del Diputado General, modificado por el Decreto Foral 186/2015, de 9 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se determina el número y la denominación de los Departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia, introdujo una serie de modificaciones en la estructura vigente, hasta entonces, disponiendo la creación del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren xedea da beren egoera pertsonala, familiarra edo soziala tarteko bizimodu duina eta betea egiteko zailtasunak dituzten pertsonei prestazio eta zerbitzuak sustatzea. Bereziki erreparatzen diete babesik gabe dauden emakumeei edo tratu txarren biktima izan direnei, eta gizartean baztertuta dauden edo egon daitezkeen pertsonei, enplegua indartu eta giza garapen iraunkorra bultzatuz, generoko eta garapenerako lankidetzako politikak diseinatuta.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad tiene como misión proveer de prestaciones y servicios a aquellas personas que, a causa de su situación personal, familiar o social, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención en el colectivo de mujeres en situación de desamparo o víctimas de maltrato, en el de personas en riesgo o situación de exclusión social, en el impulso del empleo y en la prompoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género y de cooperación al desarrollo.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko ekintza gidatzen duten printzipioak honako hauek dira:

Los principios que guían la acción del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad son los siguientes:

a. Erantzukizun publikoz jardutea, Sailak kudeatzen dituen prestazio eta zerbitzuen eskuragarritasuna eta sarbidea bermatuta.

a. Actuar con responsabilidad pública, garantizando la disponibilidad y acceso a las prestaciones y servicios gestionados por el Departamento.

b. Unibertsaltasuna; prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko eskubidea duten pertsona guztiek eskubide hori erabiltzeko aukera dutela bermatuta.

b. Universalidad, garantizando el derecho a las prestaciones y servicios a todas las personas que ostenten un derecho a acceder a los mismos.

c. Berdintasuna eta ekitatea; prestazioak eta zerbitzuak irizpide parekideen arabera eskuratzen direla eta bereizketarik egiten ez dela bermatuta.

c. Igualdad y equidad, garantizando que el acceso a las prestaciones y servicios se realizará conforme a criterios equitativos, sin que se produzca ningún tipo de discriminación.

d. Berdintasun- eta erantzunkidetasun-printzipioak zeharkako bihurtzea Bizkaiko Foru Aldundian, genero-politikei eta aniztasunaren errespetuari dagokienez.

d. Transversalización de los principios de igualdad y corresponsabilidad en la Diputación Foral, respecto de las políticas de género y el respeto a la diversidad.

e. Prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa; bazterkeria sortzen duten arrazoiak aztertuta, herritarrak beren inguru pertsonalean, familiarrean eta sozialean integratuz eta normalizazioa bultzatuz.

f. Elkartasuna. Elkarte-sareari dagokionez, zenbait herrialde txirotutan garapen-proiektuak sustatuta.

g. Arreta pertsonalizatua eta integrala eta arretaren jarraipena. Ematen den arreta pertsonalizatua egongo da, bai eta pertsona eta/edo familiaren beharretara egokitua ere, eta horren jarraipena ziurtatuko da.

h. Esku-hartzeen diziplina arteko izaera. Emandako prestazioa osotasunean bermatzeko, esku-hartzeen diziplina arteko izaeraren alde egingo da.

i. Koordinazioa eta lankidetza. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sailak beste herri-administrazio batzuekiko koordinazio eta lankidetzarako beharraren arabera jardungo du.

j. Gizarte ekimenaren sustapena; alde batetik, irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenak berak kudeatutako gizarte zerbitzuen eremuan parte hartzen duela indartuta eta, bestetik, lan munduko ekintzailetza bultzatuta.

k. Herritarren partaidetza; lankidetza solidarioak eta hirugarren sektorearen partaidetza sustatuta, berak kudeatutako zerbitzuek planifikazioan.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sailak bere gain hartu dituen eskumenak garatzeko, egitura organikoa eta aurrekontu egitura behar ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 26ko 6/2016 Foru Dekretuaren bitartez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Araudi Organikoa onetsi zen. 3 Zuzendaritza Nagusik osatzen dute Sail hori:

e. Prevención, integración y normalización, analizando las causas que generan la exclusión, orientando a la integración de la ciudadanía en su entorno personal, familiar y social, y promoviendo la normalización.

f. Solidaridad. En relación con el tejido asociativo, promoviendo proyectos de desarrollo en países empobrecidos.

g. Atención personalizada e integral y continuidad de la atención. La atención que se presté será de carácter personalizado, ajustada a las necesidades particulares de la persona y/o familia, y garantizando la continuidad de la misma.

h. Carácter interdisciplinar de las intervenciones. Con el fin de garantizar el carácter integral de la atención prestada, se favorecerá la interdisciplinidad de las intervenciones.

i. Coordinación y cooperación. El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad actuará de conformidad con el deber de coordinación y cooperación con otras administraciones públicas.

j. Promoción de la iniciativa social, promociendo, por un lado, la participación de la iniciativa social sin ánimo de lucro en el ámbito de los servicios sociales gestionados por el mismo, e incentivando el emprendimiento laboral.

k. Participación ciudadana, promoviendo la colaboración solidaria y la participación del tercer sector en la planificación de los servicios gestionados por el mismo.

El desarrollo de las competencias asumidas por el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, precisa de una estructura orgánica y de una estructura presupuestaria.

Mediante Decreto Foral 6/2016, de 26 de enero, de la Diputación Foral de Bizkaia, se aprobó el Reglamento Orgánico del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, que se ha estructurado en 3 Direcciones Generales:

09. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna
09. *Empleo, Inclusión Social e Igualdad*

- Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.
- Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
- Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusia

- Dirección General de Empleo.
- Dirección General de Inclusión Social.
- Dirección General de Igualdad, Cooperación y Diversidad.

Egitura.

Hauxe da Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sailaren egitura:

1. Enplegu Zuzendaritza Nagusia

Zuzendaritza nagusi honen jarduera eremuan honakoak sartzen dira:

- Kultura ekintzailea eta autoenplegua sustatzea.
- Pertsonen enplegugarritasuna hobetzea, prestakuntzaren eta lan trebakuntzaren bidez.
- Laneratzea sustatzeko politika aktiboak garatzea.
- Enplegugarritasuna sustatu eta eustea.

2. Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

Zuzendaritza nagusi honen jarduera eremuan honakoak sartzen dira:

- Gizarte inklusiorako aldundiaren gizarte zerbitzuak, bazterkeriaren ondoriozko beharrizanei, gizarteratzeko premiei edo familia giroan genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta beren seme-alabentzako arretari erantzuteko.

Estructura.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, se estructura de la siguiente forma:

1. Dirección General de Empleo

El ámbito de actuación de esta dirección general se circunscribe a:

- El impulso de la cultura emprendedora y el autoempleo.
- La mejora de la empleabilidad de las personas mediante la formación y la capacitación laboral.
- El desarrollo de políticas activas para la Inclusión laboral.
- La promoción y sostenimiento de la empleabilidad.

2. Dirección General de Inclusión Social.

El ámbito de actuación de esta dirección general se circunscribe a:

- Los servicios sociales forales para la inclusión, con el fin de dar respuesta a las necesidades derivadas de exclusión o estén orientados a la inclusión social o a la atención de mujeres que sean víctimas de violencia de género en el ámbito familiar, así como a sus hijas e hijos.

- Familia mailako gizarte jarduerako politikak.
- Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren kontrako borrokarako politikak.

4. Berdintasuna, Lankidetza eta Dibertsitatea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

Zuzendaritza nagusi honek jorratu behar dituen gaiak honako hauek dira:

- Giza garapen iraunkorra eta eraldatzea sustatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak antolatu eta sustatzea.
- Lankidetza politikak antolatu eta sustatzea, giza garapen tokikoa eta globala bultzatzeko.
- Aniztasuna gizartearen aktibo gisa kudeatzeko politikak antolatu eta sustatzea.
- Gizarte jardueraren hirugarren sektorearen eta boluntarioen partaidetza sustatzea.
- Elkarrizketa Zibilaren Mahaiko bulego teknikoari babesa ematea.

- Las políticas de intervención social de carácter familiar.
- Las políticas de lucha contra la pobreza y la exclusión social.

4. Dirección General de Igualdad, Cooperación y Diversidad.

Las materias que son objeto de atención de esta dirección general son las siguientes:

- Promoción del desarrollo humano sostenible y transformador.
- Articulación e impulso de políticas de igualdad de mujeres y hombres.
- Articulación e impulso de políticas de cooperación, que promocionen un desarrollo humano local y global.
- Artículación e impulso de políticas para gestionar la diversidad como un activo de la sociedad.
- Promocionar la participación del tercer sector de intervención social, así como del voluntariado.
- Dar soporte a la oficina técnica de la Mesa de Diálogo Civil.

Saila: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna
Departamento: Empleo, Inclusión Social e Igualdad

Millaka euro/Miles de euros

Kapitulua Capítulo	Izendazioa Denominación	2.015				2.014			
		H.K. C.I.	A.K. C.F.	B. O.	Bet. % % Ejec.	H.K. C.I.	E.K. C.F.	B. O.	Bet. % % Ejec.
1	Langileriaren ordainsariak Remuneraciones de Personal	5.040	5.193	5.138	98,9%	5.532	5.449	5.263	96,6%
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak Gastos de Bienes Corrientes y Servicios	21.364	21.154	20.099	95,0%	9.872	9.672	9.667	99,9%
3	Finantza gastuak Gastos Financieros								
4	Transferentzia arruntak Transferencias Corrientes	25.359	26.581	25.491	95,9%	3.749	3.949	3.768	95,4%
6	Benetako inbertsioak Inversiones Reales					4.019	3.745	3.188	85,1%
7	Kapital transferentziak Transferencias de Capital	869	500	500	100,0%	50.630	52.020	51.964	99,9%
8	Finantza-aktiboen aldakuntza Variación Activos Financieros					2.696	2.696	2.696	100,0%
9	Finantza-pasiboen aldakuntza Variación Pasivos Financieros								
	Guztira / Total	**52.632**	**53.428**	**51.228**	**95,9%**	**76.498**	**77.532**	**76.546**	**98,7%**

III.1.1.3. Gastuen aurrekontuaren txostena

Memoria del presupuesto de gastos

Sailen egituraren aldaketak

Uztailaren 2ko 94/2015 Foru Dekretuaren bidez, aldaketak egin dira Bizkaiko Foru Aldundiko sailen egituran, eta ahaldun nagusiaren uztailaren 2ko 97/2015 Foru Dekretuaren bidez, Ahaldun Nagusiaren Kabinetea sortu da. Bi dekretu horiekin, Bizkaiko Foru Aldundiko sailen mailako antolaketa berria eratu da, honelaxe:

Aurreko 09 Ingurumena eta 02 Nekazaritza sailek bat egin dute, eta 02 Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko sail berria sortu da, bere programa guztiekin.

Eutsi egiten zaio 03 Gizarte Ekintza sailari, baina 09 Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko sail berriak kudeatuko ditu honako programa hauek:

- 320.301: “Gizarte bazterketaren kontrako borroka”
- 310.304: “Emakumea eta familia”
- 320.401: “Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena”
- 320.402: “"Herritarren eskubideak eta lankidetza”

04 Kultura Saila orain Euskara eta Kultura Saila da, eta 07 Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sail berriak kudeatuko ditu honako programa hauek, eta zehatzago, Ahaldun Nagusiaren Kabinete berriak:

- 150.201:” Gazteen ekipamenduak eta programak”.
- 450.203:”Gazteen partaidetza eta sustapena”

05 Ogasun eta Finantza Sailetik 07 Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako sailera eskualdatu da “Gai europarrak” programa, Ahaldun Nagusiaren Kabinete berriak kudeatuko dituena.

Modificaciones en la estructura departamental

El Decreto Foral 94/2015, de 2 de julio, procede a la modificación de la estructura departamental de Diputación Foral de Bizkaia y el Decreto Foral del Diputado General 97/2015, de 2 de julio, crea el Gabinete del Diputado General. Con estos dos decretos queda configurada la nueva organización a nivel departamental de la Diputación Foral de Bizkaia de la siguiente manera:

Se fusionan los antiguos departamentos 09 Medio Ambiente y 02 Agricultura y se crea el nuevo departamento 02 Sostenibilidad y Medio Natural con todos sus programas.

Se mantiene el departamento 03 Acción Social pero pasan a ser gestionados por el nuevo departamento 09 Empleo, Inserción Social e Igualdad los siguientes programas:

- 320.301: “Lucha contra la exclusión social”
- 310.304: “Mujer y familia”
- 320.401: “Promoción de igualdad de mujeres y hombres”
- 320.402: “ Derechos ciudadanos y cooperación”

El departamento 04 Cultura pasa a denominarse Euskera y Cultura y pasan a ser gestionados por el nuevo departamento 07 Administración Pública y Relaciones Institucionales y, más concretamente, por el nuevo Gabinete del Diputado General los siguientes programas:

- 150.201:” Equipamientos y programas juveniles”
- 450.203:”Participación y promoción juvenil”

Del departamento 05 Hacienda y Finanzas se traspasa al departamento 07 Administración Pública y Relaciones Institucionales, el programa “Asuntos europeos” que pasa a gestionarse por el nuevo Gabinete del Diputado General.

06 Lan eta Garraio Saila orain 08 Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Saila da, eta 08 Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren esku gelditu dira programa hauek: 510102 “Azpiegituren garapena” eta 510101 “Bide-sarearen kudeaketa, teknologia eta errepideen inbentarioa”. Hartara bere gain hartu du aurreko 07 Lehendakaritza Sailaren 430201 programa, ”Kudeaketa orokorra, lurraldearen antolamendua eta hiri plangintza”.

07 Lehendakaritza Saila orain Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila da, eta Ahaldun Nagusiaren Kabinetea sortu da. Gainera, goian aipaturiko programak kudeatzen ditu.

08 Ekonomi Sustapen Saila orain Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila da. 320.203 ”Enplegua eta talentuaren sustapena” programa 09 Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sail berriaren eskura igaro da. Gainera, goian aipaturiko aurreko 06 sailaren programen kudeaketa hartu du bere gain.

Azkenik, 09 Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sail berria sortu da, eta goian aipaturiko sailaren 03 eta 08 programak kudeatuko ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiaren antolamenduaren egitura berrian izandako aldaketen ondorioz, zaila da 2015 eta 2014 ekitaldien artean gastua egikaritzearen gaineko konparazioa egitea sailen aldetik.

Sarrera

Memoria honetan guztirako gastua 2 osagaitan zatitu da: Guztirako gastua = Kudeaketa propioa + Erakunde konpromisoak.

2015eko ekitaldiko gastu osoa (7.066.603 mila euro) arestian aipatu diren bi osagaietan banatu dira, era honetan alegia: Kudeaketa propioa: 1.470.854 mila euro (osoaren % 20,8), Erakundeen konpromisoak: 5.595.749 mila (osoaren % 79.2)

El departamento 06 Obras y Transportes pasa a denominarse Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio traspasando al departamento 08 Desarrollo Económico y Territorial la gestión de los programas 510102 “Desarrollo de infraestructuras” y 510101 “Gestión red viaria, tecnología e inventario de carreteras” y asumiendo la gestionar del programa 430201 “Gestión general, ordenación territorial y planificación urbana” del antiguo departamento 07 Presidencia.

El departamento 07 Presidencia pasa a denominarse Administración Pública y Relaciones Institucionales y se crea el Gabinete del Diputado General gestionando adicionalmente los programas arriba mencionados.

El departamento 08 Promoción Económica pasa a denominarse Desarrollo Económico y Territorial. Se traspasa la gestión del programa 320.203 ”Empleo y promoción del talento” al nuevo departamento 09 Empleo, Inserción Social e Igualdad. Adicionalmente, pasa a gestionar los programas del antiguo departamento 06 arriba indicados.

Finalmente se crea el nuevo departamento 09 Empleo, Inserción Social e Igualdad que gestionará los programas del departamento 03 y 08 arriba mencionados.

Como consecuencia de las modificaciones en la estructura organizativa de la Diputación Foral de Bizkaia, resulta complicado realizar una comparativa desde el punto de vista departamental sobre la ejecución del gasto entre los ejercicios 2015 y 2014.

Introducción

En esta memoria el Gasto Total se subdivide en 2 componentes: Gasto Total = Gestión Propia + Compromisos Institucionales.

El gasto total de 2015 (7.066.603 miles de euros) se ha distribuido en los dos componentes mencionados de la siguiente forma: Gestión Propia: 1.470.854 miles de euros (20,8% del total) y Compromisos Institucionales: 5.595.749 miles de euros (79,2% del total).

Kudeaketa propioaren ataleko 1.470.854mila horiek erreferentzia moduan hartuta sailen arteko banaketa hau dela esan daiteke: Gizarte Ekintza osotasunaren % 31, Ekonomi eta Lurralde Garapena, %16,9 eta Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa, %10,3. Osotasun horretan gasturik txikiena duten bi sailak hauek dira: Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna, % 3,5 eta Euskara eta Kultura % 3,9. Gainerako 3 sailetan portzentajea % 6 eta % 8 koa da.

Kapituluen araberako gastuak aztertzen hasi aurretik komeni da gastuak orokorrean izan duen eboluzioari buruzko iruzkin bat egitea.

Betebehar aintzatetsia, aurreko ekitaldikoarekin erkatuta, +153.593 mila euro gehitu da (+% 2,2). Gehikuntza hori honela bana daiteke: Kudeaketa Propioak eragindakoa (+16.468 mila, +% 1,1) eta Erakundeen Konpromisoek eragindakoa (+137.125 mila euro, +% 2,5).

Erakundeen konpromisoen gastua (Ekarpenak, Kupoa, Udal Finantzaketako Funtsa, Batzar Nagusiak eta Doikuntzako Funtsa Orokorra) (+2,5%) hein handi batean zuzenean lotuta dago Itundutako Zergen sarreren bilakaerarekin, eta 2015ean positiboa izan da (% 0,5). Kudeaketa Propioko gastuaren gehikuntzari dagokionez (+% 1,1), esan behar da gastuak gora egiteko eragile nagusiak VI. kapitulua (+147.285 mila euro eta +% 2,5) eta VII. kapitulua (+12.511 mila eta +% 10,4) izan direla, horri buruzko atalean ikusiko den bezala.

Burutzapenari dagokionez adierazi behar da % 97,2koa izan dela.

Lehen puntu honekin bukatzeko adierazi behar da amaierako kredituak hasierakoa baino +19.260 mila euro gehiagokoa izan dela, era honetan banatuta, Zabalkuntzak: +12.142 mila, Inkorporazioak: +7.213 mila, Bajak: -2.416 mila eta Sortzapenak: +2.321 mila euro.

Bukatzeko, esan behar da 2015ean Bizkaiko Foru Aldundiaren antolamenduaren egitura aldatu dela, eta zaila da 2015 eta 2014 ekitaldien artean gastua egikaritzearen gaineko konparazioa egitea.

Limitándonos a los 1.470.854 miles de euros de Gestión Propia, mencionar que la distribución del gasto departamental es la siguiente: Acción Social 31% del total, Desarrollo Económico y Territorial 16,9% y Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio 10,3%. Los dos departamentos con menos gasto sobre el total son: Empleo, Inserción Social e Igualdad 3,5% y Euskera y Cultura 3,9%. Los 3 departamentos restantes se mueven entre el 6% y el 8%.

Antes de proceder a analizar el gasto por capítulos conviene realizar un apunte sobre la evolución del gasto en su conjunto.

La Obligación Reconocida en relación al ejercicio anterior ha aumentado en +153.593 miles de euros (+2,2%). Este aumento se puede dividir en la producida por Gestión Propia +16.468 miles de euros (+1,1%) y el aumento derivado de los Compromisos Institucionales +137.125 miles de euros (+2,5%).

El gasto de Compromisos Institucionales (Aportaciones, Cupo, Fondo de Financiación Municipal, Juntas Generales y Fondo General de Ajuste) (+2,5%) está relacionado con la evolución del ingreso de Tributos Concertados, que en 2015 ha sido positiva en un 0,5%. En cuanto al incremento del gasto de Gestión Propia (+1,1%) indicar que, tal como se detallará en el apartado correspondiente, los causantes principales del aumento del gasto son el Capítulo IV (+147.285 miles de euros y +2,5%) y Capítulo VII (+12.511 miles de euros y +10,4%).

En cuanto a la ejecución, mencionar que ésta ha alcanzado el 97,2%.

El Crédito Final ha sido superior al Inicial en +19.260 miles de euros distribuidos en Ampliaciones: +12.142 miles de euros, Incorporaciones: +7.213 miles de euros, Bajas: -2.416 miles de euros y Generaciones: +2.321 miles de euros.

Para finalizar mencionar que en el 2015 se modifica la estructura organizativa de la Diputación Foral de Bizkaia y resulta complicado comparar el gasto realizado por los departamentos en los ejercicios 2015 y 2014.

Kapitulukako aurrekontuaren burutzapenaren azterketa egin ondoren hau esan daiteke:

I. kapitulua. Langileria

Kapitulu honen egikaritza % 96,2koa izan da 2014an eta % 96,8koa 2015ean. Horren arrazoiak dira aurrekontuan jaitsiera handiagoa izan dela, -%2,6, gastuaren aldean, -%2. Kapitulu honetako gastuak I-IX. bitarteko kapituluetako gastu guztien % 2,6 dira: 2014. urtean 187.983 mila euro izan ziren eta 2015. urtean, berriz, 184.259 mila euro izan dira (-3.724 mila euro eta -% 2).

Kapitulu honek aurrekontuaren gastuetan duen partaidetza % 12,5koa da, Kudeaketa Propioaren Aurrekontua bakarrik aintzat hartuta.

Osatasunean %2ko jaitsiera duen kapitulu honetan, Oinarrizko lansariei dagokiena da urtearteko bilakaera negatiborik handiena duena, -6.064 mila euro.

Artikulu mailan, hona hemen I. Kapituluko 3 talde handien urtearteko aldakuntzak, osotasunean gastuaren %92,7 hartzen dutenak: Lansari gehigarriak (urtearteko +%0,5eko igoera) eta Kapituluko gastuaren %46,9; Oinarrizko lansariak (-%11), eta Kapituluaren %26,6; Kuota sozialak (+%0,9) eta Kapituluaren %19,3.

Alderdi deigarrienen artean, esan beharra dago ekitaldi honetan aurreko urteetako joerak jarraitzen duela, hots, gora egin dutela Kontratatutako eta Behin-behineko Langileen Lansariek (+140 mila euro eta +%5,6). Gora egin dute nabarmen Erretiroaren Ziozko Sariek ere (+1.572 mila euro eta +%63,2). Hala ere, beheranzko joerari eusten diote Lan Itunpeko Pertsonalaren Lansariek (-345 mila euro eta -%13,2).

Del análisis de la ejecución del Presupuesto por Capítulos destacan los siguientes comentarios:

Capítulo I. Personal

La ejecución de este capítulo pasa del 96,2% en 2014 al 96,8% en el año 2015. Esto es consecuencia de una mayor disminución en el presupuesto -2,6% frente a la disminución en el gasto -2%. Los gastos de este capítulo representan el 2,6% del gasto de los Capítulos I a IX y pasan de 187.983 miles de euros en el año 2014 a 184.259 miles de euros en el 2015 (-3.724 miles de euros y -2%).

La participación del capítulo en los gastos del presupuesto representa el 12,5% si consideramos únicamente el Presupuesto de Gestión Propia.

Dentro de un Capítulo que, en conjunto, presenta una disminución de 2 puntos porcentuales, el concepto que mayor evolución interanual negativa presenta es Retribuciones Básicas -6.064 miles de euros.

A nivel de artículo, las variaciones interanuales de los 3 grandes grupos del Capítulo I y que, en conjunto, absorben el 92,7% de su gasto son: Retribuciones Complementarias (+0,5% de incremento interanual) y 46,9% del gasto del Capítulo; Retribuciones Básicas (-11%) y 26,6% del Capítulo; Cuotas Sociales (+0,9%) y 19,3% del Capítulo.

Como aspectos llamativos mencionar que, en este ejercicio se sigue la tendencia del años anteriores de ascenso de las Retribuciones al Personal Contratado y Eventual (+140 miles de euros y +5,6%) También aumentan significativamente los Premios por Jubilación (+1.572 miles de euros y +63,2%) Sin embargo, continúan disminuyendo las Retribuciones del Personal Laboral (-345 miles de euros y -13,2%).

Adierazi behar da kapituluko gastu osoan Lan-kontratudun Langileen eta Kontratatutako Langileen eta Behin-behineko Langileen gastuaren pisu erlatiboak 2015ko % 2,7ko mailari eutsi diola, aurreko ekitaldietan bezala.

Indicar que el peso relativo del gasto del Personal Laboral y del Contratado y Eventual en el gasto total del Capítulo se mantiene en el 2,7% en el 2015 al igual que en el ejercicio anterior.

II. kapitulua. Ondasun arruntak eta zerbitzuak

Kapitulu honetan egindako gastua 378.503 mila eurokoa izan da, aurreko ekitaldian 364.307 mila eurokoa izan zen bitartean. Beraz, +% 3,9ko igoiera izan da (+14.196 mila euro). 2015. urtean kapitulu honetako gastua kudeaketa propioko gastuen % 25,7 izan da.

Gastuak gora egin badu ere (+%3,7), %95era jaitsi da kapituluaren betearazpena, kreditua +%6,4 hazi baita.

Gehikuntza handiena izan duen kontzeptua «Beste enpresa eta profesional batzuek egindako lanak» da: +14.452 mila euro eta +% 5. gehienbat “Laguntza zerbitzuen prestazioak” (+5.724 mila euro eta +%2,6) eta “Atzerriko beste lan batzuk” (+5.761 mila euro eta +%54,8) azpikontzeptuaren gehikuntzagatik.

Hona hemen kontzeptu honek hartzen dituen eta gehien hazi diren programak: “Adinekoak” +%1,7 eta +%2.437 mila euro eta “Ezinduak” +%5 eta +2.922 mila euro.

Kapituluaren gastuaren egitura ekonomikoari dagokionez, komeni da azpimarratzea ezen, hura osatzen duten 25 kontzeptuetatik, bik biltzen dutela gastu osoaren %91,3. “Beste enpresa eta profesional batzuek eginiko lanak” (%79,7), eta “Errepideen, bideen eta eraikuntza berezien konponketa, mantentzea eta artapena” (%11,6).

Kapitulu honen barruan gastu nagusia hiru sailaren kontua da: Gizarte Ekintza Saila (% 59,4), Ekonomi eta Lurraldearen Garapena (%13,8) eta Ogasuna eta Finantzak (%8,2). Denetara zortzi sailen % 81,4 hartzen dute.

Capítulo II. Bienes Corrientes y Servicios

El gasto realizado por este Capítulo asciende a 378.503 miles de euros frente a los 364.307 miles de euros del ejercicio anterior, lo que supone un aumento del +3,9% (+14.196 miles de euros). Este Capítulo en 2015 ha representado el 25,7% del gasto de Gestión Propia.

A pesar del aumento del gasto (+3,7%), la ejecución del capítulo ha disminuido a un 95%, ya que el crédito ha aumentado en un +6,4%.

El concepto que más aumenta es “ Trabajos realizados por otras empresas y profesionales” +14.452 miles de euros y +5%, fundamentalmente por el aumento del subconcepto “ Prestaciones de servicios asistenciales” (+5.724 miles y +2,6%) y “Otros trabajos exteriores” (+5.761 miles de euros y +54,8%).

Los programas que más crecen que cubre este concepto son: “Personas mayores” +1,7% y +2.437 miles de euros y “Personas con discapacidad” +5% y +2.922 miles de euros.

En cuanto a la estructura económica del gasto del Capítulo conviene destacar que, de los 25 conceptos que lo forman, son dos los que agrupan el 91,3% del total de su gasto: “Trabajos realizados por otras empresas y profesionales” (79,7%), y “Reparaciones, mantenimiento y conservación de carreteras, caminos y construcciones especiales” (11,6%).

Tres departamentos concentran la mayor parte del gasto de este Capítulo, son los de Acción Social con el (59,4%), Desarrollo Económico y Territorial (13,8%) y Hacienda y Finanzas (8,2%), lo que supone el 81,4% del total de los 8 departamentos.

III. kapitulua. Finantza gastuak

Kapitulu honetan zuzen azaltzen da Foru Aurrekontuak bizi izan duen prozesua, horretan kredituen eta ekitaldian zehar aurrekontuko diruzaintzan egoten diren mentsak orekatzeko beharrezkoak izaten diren fondoen eskuraketen korrituak zenbatesten direlako.

Ekitaldi honetan, -14.613 mila euro gutxiagoko gastua izan da (-%30,7), gehienbat “Epe luzera jaulkitako zorraren interesak”(-6.791 mila euro) desagertu direlako, “Epe luzera jasotako maileguen interesei” dagokien zenbatekoa jaitsi egin delako (-4.267 mila euro eta -%11,5) eta behera egin dutelako “Beste finantza gastu batzuek” (-3.799 mila euro). Kapituluak %2,2ko pisua galdu du Kudeaketa Propioaren gastuarekiko.

Kapituluaren gastuaren egitura ekonomikoari dagokionez, oinarrizko osagaia ”Epe luzera jasotako maileguen interesak” dira, hots, kapituluaren gastuaren %99.2. Guztira 32.774 mila euroko zenbatekoa izan du.

IV. kapitulua. Transferentzia arruntak

Kapitulu honetako gastua 5.853.151 mila euro izan zen 2014an eta 6.000.436 mila euro 2015ean (+147.285 mila euro eta +% 2,5).

Kapitulu honen egikaritza Aldundiak eginiko gastu osoaren %84,9 da, eta jaitsiera txikia izan du, 2014ko %99,8tik 2015eko %98,3ra.

Kapitulu honek dituen kontzeptuen ezaugarriak kontuan hartuta bi azpitaldetan sailkatu da: Kudeaketa propioa (Aldundiak zuzenean egiten dituenak) eta Erakunde konpromisoak (Ekonomi Itunaren emaitzako bitartekoen banaketa arautzen duen esparru araupetzailean egiten diren transferentziak).

Capítulo III. Gastos Financieros

En este capítulo se manifiesta directamente el proceso financiero experimentado por el Presupuesto Foral, ya que en él se contabilizan los intereses de los créditos y de las disposiciones de fondos necesarios para equilibrar las insuficiencias en la tesorería presupuestaria durante el ejercicio.

En este ejercicio el gasto ha disminuido en -14.613 miles de euros (-30,7%) debido principalmente a la desaparición de los “Intereses de deuda emitida a largo plazo”(-6.791 miles de euros), a la reducción del importe de los “ Intereses de préstamos recibidos a largo plazo” (-4.267 miles de euros y -11,5%) y la disminución de “Otros gastos financieros” (-3.799 miles de euros). El peso del Capítulo en relación al gasto de Gestión Propia ha sido del 2,2%.

En cuanto a la estructura económica del gasto del Capítulo, el componente básico, que supone el 99,2% del gasto del Capítulo, es ” Intereses de préstamos recibidos a largo plazo”, cuyo importe ha ascendido a 32.774 miles de euros.

Capítulo IV. Transferencias Corrientes

Este capítulo pasa de 5.853.151 miles de euros en 2014 a 6.000.436 miles de euros en 2015 (+147.285 miles de euros y +2,5%).

La ejecución de este Capítulo, que representa el 84,9% del total del gasto realizado por la Diputación, pasa del 99,8% en el 2014 al 98,3% en el 2015.

Dadas las características de los conceptos que presenta este capítulo se dividen en dos grupos: Gestión Propia (los realizados directamente por la Diputación) y Compromisos Institucionales (que son las transferencias realizadas en el marco normativo que regula el reparto de los recursos derivados del Concierto Económico).

A) Kudeaketa propioa

2015ean, 407.810 mila euroko gastua egin da, hau da, aurreko ekitaldian baino +9.807 mila euro gehiago (+% 2,5eko gehikuntza). Kudeaketa propioko gastuaren % 27,7 da gastu hau.

Guztirako zenbatekoak kontuan hartuta, lau azpikontzeptuk irentsi dute atal honetako ia gastu guztia. 2015eko gastuen % 89,5 (365.129 mila euro):

- Partaidetzarik gabeko enpresei egindako transferentziak 112.055 mila euro izan ziren 2014an eta 110.169 mila euro 2015ean (-1.886 mila euro; -% 1,7). Azpikontzeptu hau kapituluko kudeaketa propioko gastu osoaren % 27 da. Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Sailak egin du, "Garraioaren administrazioa eta kudeaketa" programarekin, azpikontzeptuaren gasturik handiena (gastu osoaren %75,6 eta 83.280 mila euro).

- «Familiei gizarte laguntzaren arloko zerbitzuak» 94.131 mila euroko gastua eragin zuen 2014an eta 97.699 mila eurokoa 2015ean (+3.568 mila euro eta +% 3,8). Azpikontzeptu hau IV. kapituluko kudeaketa propioko gastuaren % 24 da. 2015ean, azpikontzeptu honetan, Gizarte Ekintza Sailak kudeaturiko "Mendetasunaren prestazioak eta diru-laguntzak" programa bere gastuaren %87,5 da (+85.477 mila euro) eta +%5,5 egin du gora 2014koaren aldean.

- Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari egin zaizkion transferentziak 91.100 mila euro izan ziren 2014an eta 2015ean 90.050 mila euro izan dira (-1.050 mila euro eta -% 1,2). Gizarte Ekintza Sailak kudeatzen duen azpikontzeptu hau kapituluko kudeaketa propioko gastuaren % 22,1 da.

A) Gestión Propia

El gasto realizado en 2015 ha ascendido a 407.810 miles de euros con un incremento de +9.807 miles, lo que supone un aumento del +2,5% en relación al ejercicio anterior. Este gasto supone el 27,7% del gasto de Gestión Propia.

En términos absolutos son cuatro los subconceptos que en 2015, absorben casi en su totalidad el gasto de este apartado, el 89,5% (365.129 miles de euros):

- "Transferencias a otras empresas no participadas" que pasa de 112.055 miles de euros en 2014 a 110.169 miles de euros en 2015 (-1.886 miles de euros y -1,7%). Este subconcepto representa el 27% del total del gasto de Gestión Propia del Capítulo. Es el departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio el que con el programa "Administración y gestión de transporte", aparece como el mayor responsable del gasto del subconcepto (75,6% del total y 83.280 miles de euros).

- "Atenciones de asistencia social a familias", que pasan de 94.131 miles de euros en 2014 a 97.699 miles de euros en 2015 (+3.568 miles de euros y +3,8%). Este subconcepto representa el 24% del total del gasto de Gestión Propia del Capítulo IV. En 2015 en este subconcepto, el programa "Prestaciones y subvenciones de la dependencia" gestionado por el departamento de Acción Social representa el 87,5% de su gasto (+85.477 miles de euros) y aumenta un +5,5% respecto al 2014.

- "Transferencias al Instituto Foral de Asistencia Social "que pasa de 91.100 miles de euros en 2014 a 90.050 miles de euros en 2015 (-1.050 miles de euros y -1,2%). Este subconcepto, gestionado por el departamento de Acción Social, representa el 22,1% del total del gasto de Gestión Propia del Capítulo.

- "Irabazteko asmorik ez duten erakundeen aldeko transferentziak", 60.090 mila eurokoa izan zena 2014an eta 67.211 mila eurokoa 2015ean (+7.121 mila euro; +% 11,9). Azpikontzeptu hau IV. kapituluko kudeaketa propioko gastuaren % 16,5 da. Sailei dagokienez, Euskara eta Kultura sailak gastatu du gehien azpikontzeptuan, 15.816 mila euro (gastu osoaren %23,5), hain zuzen ere "Zabalkundea eta museoak" (+8.493 mila euro) eta "Euskararen sustapena" (+2.468 mila euro) programek eraginda.

  Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Saila azpikontzeptu honen %20,1 da, 13.522 mila euro, "Enplegurako eta talentuaren sustapenerako transferentziak" (+6.238 mila euro) eta "Herritarren eskubideak eta lankidetza" (+6.122 mila euro) programak izanik hartzaile nagusiak.

  Azkenik, Gizarte Ekintza Saila azpikontzeptuaren gastu osoaren %20 da, 13.390 mila eurorekin, "Mendetasunerako prestazioak eta laguntzak" (+12.826 mila euro) programak eraginda.

Sailei dagokienez, IV. kapituluko kudeaketa propioaren gastuaren eragile nagusiak Gizarte Ekintza Saila 203.693 mila euro izan ditu (IV. kapituluko kudeaketa propioen gastu osoen % 50) eta Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Saila, 95.736 mila euro (%23,5).

Programei dagokienez, eta Kudeaketa Propioko IV. kapituluko kontzeptuak kudeatzen dituzten 40en artean, hiru nabarmendu behar dira, kapituluko gastuaren % 72 osatzen dute eta: Gizarte Ekintza Sailaren "Mendetasunerako prestazioak eta diru-laguntzak" (100.181 mila euro), "Administrazio orokorra" (97.847 mila euro, eta horietatik 92.640 mila Gizarte Ekintza Sailari dagozkio) eta Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Sailaren "Garraioaren administrazioa eta kudeaketa" (95.736 mila euro).

- "Transferencias a instituciones sin fines de lucro", que pasa de 60.090 miles de euros en 2014 a 67.211 miles de euros en 2015 (+7.121 miles de euros y +11,9%). Este subconcepto representa el 16,5% del total del gasto de Gestión Propia del Capítulo IV. A nivel departamental es el departamento de Euskera y Cultura el que con 15.816 miles de euros (23,5% del total) resulta el principal gastador del subconcepto, arrastrado por los programas "Divulgación y museos" (+8.493 miles miles de euros) y "Promoción del euskera" (+2.468 miles de euros).

  El departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad representa el 20,1% de ese subconcepto con 13.522 miles de euros con los programas "Transferencias al empleo y promoción del talento " (+6.238 miles de euros) y "Derechos ciudadanos y cooperación" (+6.122 miles de euros) como mayores destinatarios.

  Por último, el departamento de Acción Social supone el 20% del gasto total del subconcepto con 13.390 miles de euros, arrastrado por el programa "Prestaciones y subvenciones de la dependencia" (+12.826 miles de euros).

A nivel departamental, son Acción Social con 203.693 miles de euros (50% del total de Gastos de Gestión Propia del Capítulo IV) y Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio con 95.736 miles de euros (23,5%), los principales responsables del gasto de Gestión Propia del Capítulo IV.

A nivel programa y entre los 40 que gestionan conceptos del capítulo IV de Gestión Propia destacan tres que suponen el 72% del gasto del Capítulo: "Prestaciones y subvenciones de la dependencia "(100.181 miles de euros) del departamento de Acción Social, "Administración general" (97.847 miles de euros, de los cuáles 92.640 miles corresponden al departamento de Acción Social) y "Administración y gestión del transporte" (95.736 miles de euros) del departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio.

B) Erakundeen arteko konpromisoak

2015ean egin den gastua 5.592.627 mila eurokoa izan da, hau da, aurreko ekitaldian baino +137.480 mila euro gehiago: +% 2,5eko gehikuntza.

- Kupoa: Kupoagatiko gastu gordinak 408.165 mila euro izan dira, hau da, aurreko ekitaldian baino +12.259 mila euro gehiago (+% 3,1). Esan behar da ezen, 2014an gertatu zen bezala, ekitaldi honetan 22.179 mila euroko sarrera izan dela Aurreko Ekitaldiko Kupoaren Likidazioagatik. 2015ean, Aldundiaren gastuaren %5,8 izan da Kupoa (%5,7 2014. urtean).

- Ekarpenak: hauek biek 4.355.581 mila euroko zenbatekoa jo dute bat eginik, hau da, aurreko ekitaldian baino +% 2,1 gehiago (+90.657 mila euro. Ekarpenak Aldundiaren gastuaren % 61,6 izan dira eta ehuneko hau aurreko ekitaldikoa baino handiagoa da, orduan % 61,7 izan baitzen.

  Argitu behar da, dena den, aurreko zifretan ez direla sartu Aribideko Ekitaldiko likidazioak, sartu beharrekoak izan zirenez Sarreren Memorian azaltzen direlako. 2015eko likidazioa +76.744 mila eurokoa izan zen.

- Udalkutxa: gastuak 820.881 mila euro izan dira guztira; gehikuntza bat egon da ekitaldian, hain zuzen ere +% 4,3koa (+34.064 mila euro).

  Gastu hau Aldundiaren aurrekontuaren % 11,6 izan da 2015. urtean, aurreko urtean baino gehiago (% 11,4).

  Ekarpenekin gertatzen den bezala, ez dira sartu Sarreren Aurrekontuan eraginik duten sartzeko likidazioak, Sarreren Memorian aipatu direlako. 2015. urtean zenbatekoa 75.533 mila euro izan da, baina 2014. urtean 20.930 mila euroko sarrera sartu zen.

B) Compromisos Institucionales

El gasto realizado en 2015 ha ascendido a 5.592.627 miles de euros con un incremento de +137.480 miles de euros, lo que supone un aumento del +2,5% en relación al ejercicio anterior.

- Cupo: los gastos brutos por Cupo alcanzan el importe de 408.165 miles de euros, lo que supone un incremento respecto al ejercicio anterior de +12.259 miles de euros (+3,1%). Mencionar que, al igual que ocurrió en el año 2014, en este ejercicio se ha producido un ingreso por la Liquidación Cupo Ejercicio Anterior por 22.179 miles de euros. En 2015 el Cupo ha representado el 5,8% (5,7% en el 2014) del gasto de la Diputación.

- Aportaciones: han alcanzado un importe conjunto de 4.355.581 miles de euros y supone un incremento del +2,1% (+90.657 miles) en relación al ejercicio anterior. Las Aportaciones representan el 61,6% del gasto de la Diputación que es ligeramente inferior al porcentaje del ejercicio anterior que fue del 61,7%.

  Aclarar que las cifras anteriores no incluyen las liquidaciones del Ejercicio Corriente, dado que fueron a ingresar y, por lo tanto, se comentan en la Memoria de Ingresos. La liquidación 2015 fue de +76.744 miles de euros.

- Financiación Municipal: los gastos ascienden a 820.881 miles de euros y han experimentado un aumento en el ejercicio del +4,3% (+34.064 miles de euros).

  Este gasto supone el 11,6% del presupuesto de gasto de la Diputación del año 2015, superior al porcentaje del año anterior, 11,4%.

  Al igual que sucede con las Aportaciones, no se incluyen las liquidaciones a ingresar que afecten al Presupuesto de Ingresos, ya que se comentan en la Memoria de Ingresos. En 2015 el importe ha sido de 75.533 miles de euros, mientras que el ingreso incluido en 2014 fue de 20.930 miles de euros.

- Batzar Nagusiak: transferentzia hauek ez dute bilakaera erregularrik edukitzen eta unean-unean planteatzen diren beharrizanei lotuta egoten dira.

  Aurtengo ekitaldian zenbatekoa 8.000 mila eurokoa izan da eta horrek esan nahi du +500 mila euroko igoera gertatu dela (+% 6,7).

Aipatzekoa da "Udalaren partaidetza itundutako zergetan" azpikontzeptuaren azken kredituaren zati bat ez dela pastatu (4.310mila euro) eta 2016ko ekitaldira sartu dela.

VI. kapitulua. Inbertsio errealak

Kapitulu honetako gastua 61.238 mila eurokoa izan da, beraz, iazkoaren aldean -9.649 mila euroko beherapena izan du (-%13,6). Kapitulu honek kudeaketa propioko gastuaren % 4,2 osatzen du (% 4,9 2014an).

Ikuspegi ekonomikotik aztertuta aldaketarik adierazgarrienak aurkezten dituzten azpikontzeptuak ondoko hauek dira:

1. Behera egin du "Errepideetako ondasunak eta zerbitzuak hobetzea eta sartzea" programak (-6.916 mila euro eta -%34), hain zuzen " Bide-sarearen kudeaketa, teknologia eta errepideen inbentarioa" programako gastuen jaitsierak (-4.854 mila euro eta -%38,8) eta "Azpiegituren garapena" programaren murrizpenak (-2.061 mila euro eta -%36,5) eraginda. Programa biotan, gehienbat errepideak hobetzeko proiektuetan inbertsio txikiagoa izan delako gertatu da jaitsiera.
2. Behera egin du "Lurren, ondasun naturalen eta hiri-altzarien eskuraketa" (-1.460 mila euro eta -%59,5) programak, oso-osorik esportarzioen jaitsieragatik.
3. Behera egin du "Errepideetan inbertitzeko proiektuak" programak (-1.510 mila euro eta -%40), murriztu egin direlako (-695 mila euro eta -%36,2) "Azpiegituren garapena" eta "Bide-sarearen kudeaketa, teknologia eta proiektuaren inbentarioa" (-815 mila euro eta -%43,7) programen gastuak.

- Juntas Generales: estas transferencias no siguen una evolución regular estando sujetas a las necesidades puntuales que se puedan plantear.

  El importe en el actual ejercicio ha sido de 8.000 miles lo que supone un aumento de +500 miles de euros (+6,7%).

Mencionar que, parte del crédito final del subconcepto "Participación municipal tributos concertados" no ha sido gastado (4.310 miles de euros) y se ha incorporado en el año 2016.

Capítulo VI. Inversiones Reales

Este capítulo con un gasto que asciende a 61.238 miles de euros presenta una caída de -9.640 miles (-13,6%) con relación al ejercicio anterior. Este capítulo representa el 4,2% del gasto de Gestión Propia (4,9% en 2014).

Desde el punto de vista económico los subconceptos que presentan, en términos absolutos, las variaciones más relevantes son los siguientes:

1. Disminuye "Mejora e incorporación de bienes y servicios carreteras" (-6.916 miles de euros y -34%), arrastrado por los -4.854 miles de euros y -38,8% de reducción del gasto en el programa " Gestión red viaria, tecnología e inventario de carreteras" y -2.061 miles de euros y -36,5% de reducción de gasto en el programa "Desarrollo de infraestructuras". En ambos programas la reducción se debe fundamentalemente a la menor inversión en proyectos de mejora de carreteras.
2. Disminuye "Adquisición de terrenos, bienes naturales y mobilliario urbano" (-1.460 miles de euros y -59,5%) debido en su totalidad a la disminución de las expropiaciones.
3. Disminuye "Proyectos de inversión en carreteras" (-1.510 miles de euros y -40%), debido a la reducción (-695 miles de euros y -36,2%) en el gasto de los programas "Desarrollo de infraestructuras" y "Gestión de red viaria, tecnología e inventario del proyecto" (-815 miles de euros y -43,7%).

4. Gora egin du “Prozesu informatikoetako elementuen eskuraketa” programak (+2.594 mila euro eta +%9), gehienbat “Herri berrikuntza” programako “Lantik SA- BFA” proiektuagatik (+2.899 mila euro eta +%127) eta “Batzar Nagusietarako Hauteskundeak” (+1.280 mila euro eta +%100) programagatik. Hala ere, igoera horren zati bat (-1.583 mila euro eta -%6) “Foru plan informatikoa” programaren gastuaren beherakadagatik gertatu da.

